

Telesforo Monzon eta haren mezua izan dituzte gogoan Bergaran | 5

Denboraldiko lehen garaipena eskuratu du Antzuolak | 22

Arrasaten aurkeztu du 'Badoa, badirau' diskoa Ain_1 taldeak | 30



Zapatu eguerdian Eskoriatzako pilotalekuan elkartu ziren herritarrek *Euskaraz bizi nahi dut* aldarrikatzeko. | IMANOL SORIANO

Euskaraz bizitzeko egunak dira 365ak

Euskararen Nazioarteko Eguna girotzeko ekitaldiak aste bukaeran hasi dituzte Eskoriatzan. Eta Debagoieneko gainerako herri guztietan izango dira gaurtik eguenera bitartean agerraldiak, hitzaldiak, lehiaketak eta jaialdiak. Horiek eta gehiago abenduaren 3aren bueltan antolatutakoak ume, gazte eta helduendako, euskarak 365 egun dituela aldarrikatzeko, gogorarazteko eta ospatzeko. | 14

SINADURAK

MAIDER AZKARRAGA-URIZAR | 9

9 | ARANTZAZU EZKIBEL

ENEKO BARBERENA | 15

17 | ASIER ELORTZA

MAITE IRIZAR | 18

19 | PALOMA MARTINEZ

IMANOL GALLEGO | 37

40 | XABIER ZUBIZARRETA

Inoizko elikagai bilketarik handiena egin da aste bukaeran

Egunotan jakinaraziko dute zenbat jaso den Debagoieneran | 5

Ziburuko ikastolarendako dirua jaso dute krosak eginda

Kaskaroteneako ordezkaritza izan da Arrasaten | 12-13



Bergarako umeak. | ARANZADI IKASTOLA

'Nabarralde Saria' jasoko du Juan Zelaia oñatiar sustatzaileak eguaztenean

6

EUSKARAK 365 EGUN



etxean,
eskolan,
kalean,
hedabideetan


euskaltzateen
topagunea

goiena“



Eskoriatzako Gorosarri landetxea; sare berdeko Debagoieneko bi ostatueta bat da. | GOROSARRI

Landa turismo arduratsuaren alde, baita Debagoienean ere

- Beste hainbat eragilerekin, "sare berdea" eratzen dabil Deba-Garaia
- Bailarako bi ostatu daude, oraingoz, Espainia mailakoa den proiektuan

JULEN IRIONDO | ARRASATE
Sei erkidegotako eragileek –Asturiaseko bik eta Andaluziako, Kataluniako, Baleareetako, Nafarroako eta Euskadiko, bakoitzeko, batek– martxan jarritako egitasmoa da Landa Turismo Arduratsuaren Sare Berdearena. Landa inguruneetako turismoarekin lotutako enpresa ekimen "arduratsuen" bilgune izan nahi du sareak; ez bakarrik bilgune izan, baizik eta ekimen horiek –ostatu, jatetxe edo bestelako zerbitzu– ekonomia, gizarte eta ingurumen alorretan ardura hori izan badutenaren berme izango den zigilu edo ziurtagiri bat kudeatzeaz ere arduratuko da.

Proiektuan diharduten eragileen artean, Euskadiko ordezkaria da Mendinet. Mendinet osatzen dute Hazik –Jaurilaritzaren fundazioa– eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako landa garapenerako elkarteek, Debagoieneko Deba-Garaia, tartean.

Deba-Garaia da, beraz, Landa Turismo Arduratsuaren Sare Berdearen gaia bailaran lantzen ari dena. Ekimena hasiera fasean izan da orain arte, eta bertara batu diren Debagoieneko bi enpresa ekimenak izan dira bi ostatu

–deialdi mugatua egin zuten fase piloturako–, Oñatiko Goiko Benta eta Eskoriatzako Gorosarri. Lehen fasea amaituta, kide izateko baldintzak betetzeko moduan leudekeen gainerakoengana joko dute orain –hasiak dira–, proposamena egiteko.

Ekimenaren bultzatzaileek nahi dute sare berdearen zigilua izatea landa turismo enpresentzako merkatuan euren "praktika onengatik" bereiziko dituen zerbait, eta bezeroentzako, hartzera doazen zerbitzu horren emailaren praktika onen berme. Baina landa turismo arduratsu

ESANAK

"Egin dezakegun eskaintza ez da masifikatua; da eskaintza oso berezia, mugatua"

MARI CARMEN ITURBE | DEBA-GARAIA

horren onuradun enpresa ekimen hori kokatuta dagoen ingurunea eta komunitatea izango lirateke, zentzu zabalagoan: natura eta kultura ondarearen kontserbazioan laguntzen du, eta tokiko aktibitate ekonomikoa eta enplegua bultzatzen ditu, lan baldintzak hobetzen laguntzearekin batera.


Hiru maila
Europako *Leader* izendapena duten lekuetako –Debagoienean Leintz Gatzaga eta beste herrietako zenbait auzo; berrikustekoan dira, dena den– turismo alorreko enpresak izan daitezke sare berdeko kide. 30 inguru jasotzen dituen baldintza zerrendatik herena bete behar dute, gutxienez, sarera batu nahi dutenek. Baldintzak dira lau alorretakoak: enpresa kudeaketako praktika onak; ingurumen alorreko praktika onak; komunitatean, kulturean eta ondarean integratzeari dagozkion praktika onak; eta langileen lan eta gizarte baldintzei dagozkien praktika onak. Betekizun hauetan zenbat eta aurrerago joan, goragoko mailako ziurtagiria eduki ahal izango da –hiru maila dira denera–.

Fase pilotua amaituta, dagoe-

neko lehen mailako ziurtagiria dutenak bigarren mailakora bidean jartzea eta ekimenara gainerako landa turismo enpresak ere erakartzea izango da hurrengo lana; Debagoienean 30-35 dira aukera luketenak: "Izan daiteke Arrikruz, izan daitezke Arantzazuko jatetxeak... Koka-pena kontuan hartzen da; Arrasate erdiguneko hotel batek ez du hona sarbiderik", dio gaia daraman Deba-Garaia landa garapenerako elkarteak Mari Carmen Iturbek. Oraingoz proposamena jaso duten guztiek begi onez ikusi omen dute aukera.

Turismo alorreko merkatuari dagokionez, oraindik irizpide nagusia prezioa izan arren, aipatutako beste aspektuok begiratzen direla dio Iturbek: "Tendentzia bat eta bezero tipologia bat bada hori bilatzen duena". "Egin dezakegun eskaintza ez da masifikatua; da eskaintza oso berezia, mugatua. Bezeroak ere espezifikoak bilatzen dira, eta horrelako guneeak laguntzen diote bezeroari leku hauek aurkitzen", gaineratzen du teknikariak.

Interneten, sare berdearen helbidea da www.turismorural-responsable.com.



Geotermia. | QUENERGIA.COM



Birziklapena. | AZULAMBIENTALISTAS.ORG



Bertako produktua. | IMAGUI.COM




Gutxitasunen irudia. | GOIENA

Bete beharreko baldintzak

- Enpresa, lan eta ingurumen arloetan indarrean dagoen araudia betetzea.
- Elbarrien integrazio sozialerako legea betetzea.
- Energiaren kontrolerako eta aurrezpenerako uneoroko neurrien aplikazioa: ura, argindarra...
- Hondakinak gaika bereiztea.
- Aktibitate turistikorako tokiko nekazaritza elikagaiak edo/eta ekologikoak erostea.
- Aukera berdintasuna bultzatzea eta errespetatzea.
- Instalazioak gutxitasunen bat duten pertsonentzako egokitu egotea.

*Oharra: baldintzak derrigorrez bete beharrekoak dira, Landa Turismo Arduratsuaren Sare Berdeko kide izateko. Beste hogei baldintza artean lau gehiago ere bete behar dira.

Ez zaitez galdu.



EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!



Gipuzkoa
BERRIA

DEBAGOIENeko
MANKOMUNITATEA



goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Maite Aristegi: "Herri honek askatasun egarriz jarraitzen du"

Telesforo Monzonen mezuak bizirik dirauela aldarrikatu dute Bergaran

LARRAITZ ZEBERIO | BERGARA
Bergarako ezker abertzaleko lagun ugari elkartu ziren, atzo eguerdian, Zabalotegi aretoan. Telesforo Monzon (1904-1981) herriki-dearen omenezko ekitaldia egin zuten. Ordubeteko saioa izan zen non gogora ekarri zituzten haren ibilbidea eta mezua. Eta aldarrikatu zuten inoiz baino indartsuago bizirik dirauen mezua dela. Amaieur alderdiko diputatu bergarar Maite Aristegik gidatu zuen saioa, eta Bergarako trikitilarien zein Osintxuko Musiraka dantza taldeko kideen emaldiekin jantzi zuten ekitaldia. Lore eskaintza egin zioten Monzonen irudiari. Aurretik, argazkiekin eta ahots grabazio batekin ekarri zuten gogora nor izan zen.

Bizirik dirauen mezua
Badira 33 urte Telesforo Monzon hil zela. Hala ere, herriaren premiak berdinak direla azpimarratu zuen Maite Aristegik ekitaldian: euskara, langileriaren borroka, gatazka politikoa, erabakitzeko eskubidea, ingurumenarekiko errespetua... "Euskaldunak ez du



Maite Aristegi Telesforo Monzonen mezuaren gaurkotasunaz berba egiten, atzo, Zabalotegin. | JOSETXO ARANTZABAL

bere arima saldu nahi", entzun genuen Monzonen ahotik —grabazioa— ekitaldian. "Atzo Elgetan, Soiuben, Artxandan... Gaur esku-muturrak loturik, baina bihotzak libro (...) Izan ala ez izan. Bizi

ala hil. Horra zertan den gure herria", zioen Monzonek. Kontrasteetako gizona izan zela zioenn Aristegik ekitaldian. Familia aberatseko semea, aristokrataren makilarekin jaio zela

esan zuen, baina jakin zuela base-rritarren txapela janzten. Monzonek ibilbide luzea egin zuen Euzko Alderdi Jeltzalean. Ministroa izan zen lehenengo Eusko Jaurlaritzan, eta denbora luzea

Candy-ko langileekin bat

Telesforo Monzonen omenezko ekitaldian gogoan izan zituzten Candy-Hoover enpresako langileak. "Monzonek, azken urteetan, oso barneratuta zeukan langileriaren mina eta gaur, sekula baino gehiago herrian daukagu arazo hori. Candy da, beste hainbat enpresa dira...", zioen Aristegik. "Egoera triste honi irauli bat emateko erantzuna elkartzea, herri moduan borroka egitea, eta burujabetza dira. Hori barik nekez lortuko dugu aurrera egitea".

egin zuen erbestean, Frantzian. "Bizitzako azken urteetan, ordea, asko gerturatu zen langileen borrokara, eta Herri Batasunaren sorreran izan zen", azaldu zuen Maite Aristegik.

Eusko Gudariak abestuz amaitu zuten ekitaldia, baina aurretik azken hilabeteotan Bergaran jasotako irudiekin egindako ikus-entzunezkoa erakutsi zuten Zabalotegin: herriko presoei eta errefuxiatuei egindako ongi-etorrietako batzuk, Gure Esku Dago ekitaldiko uneak, joandakoen omenezko irudiak...

Topaketa feministak, hilaren 13an, erronka berriak identifikatzeko

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE
Euskal Herriko Bilgune Feministak VI. Topaketa Feministak antolatu ditu abenduaren 13rako, zapatua, Ondarroan. Aste bukean aurkezpenean egin dute Oñatin zein Arrasaten, eta helburuen artean mugimendu feministaren erronka berriak identifikatzea, eta feminismoaren sarea artikulatzea azpimarratu dituzte. Ondarroan aztergai izango diren zenbait gairen inguruan hausnarketa abiatzeko aitzakia izan dira Oñatin eta Arrasaten egindako saioak. Parte-hartzaileek lehen hausnarketa egin dute ondorengo gaien inguruan: Zela irudikatzen duzu Euskal Herri feminista bat? Zeintzuk

dira mugimenduaren etorkizuneko erronkak? "Emakumeen egoeran aldaketa oso handiak egon dira, baina ikusten dugu botere harremanei dagokienean ez dela aldaketarik egon. Egitura estrukturalak —patriarkatua— mantendu egiten da. Gai hori eztabaidara ekartzea ezinbesteko ikusten dugu", azaldu du Arrasateko saioan Iraitz Agirrek.

Izenematea zabalik
Egun osoko egitaraua gertatu dute hilaren 13rako. Zabalik da izenematea *bilgunefeminista.org* atarian. Prezioa da 15 euro. Lotarako lekua eta haurrentzako gunea egongo dira.



Emakume taldea, atzo, Arrasaten egindako saioan. | L.Z.

Jatekoz betetako poltsak eta orgak eman dituzte debagoiendarrek Elikagai Bankurako

Urteko elikagai bilketarik handiena egin dute aste bukaeran boluntarioekin

MIRARI ALTUBE | ARRASATE
Bergarako Elikagai Bankua bete dago berriro. Urteko elikagai bilketarik garrantzitsuen egin zuten egubakoitzean eta zapatuan. 32 bilketa puntu jarri zituzten Debagoienean, eta herritarrek bikain erantzun zutela jakinarazi dute lanean jardundako boluntarioek, oraindik datu zehatzik izan ez arren. Iaz 120.000 kilo inguru jaso zituzten eta aurten hortik gora izango direlakoan daude.

Orga bete janari
Esnea, olioak, azukrea, galletak, janari-poteak, aurrez gertatutako jakiak (babarrunak, dilistak, garbantzuak...), arroza, irina eta beste elikagai mordoak jaso dituzte Debagoieneko hainbat gunetan, beste batzuen artean Eroski, BM, Super Amara, Lidl eta Dia supermerkatuetan. Hala, zapatu eguerdirako kaxak goraino beteta zituzten, eta iluntzean gainezka. Aurten, gainera, umeekin akordatzeko eskatu dute. Hori horrela, pixoihalak, esnea, pureak eta antzekoak ere jaso dituzte. "Dendara sartu ahala poltsa eman diegu bezeroei erosketak egin bitartean zerbait har dezaten



Boluntarioak herritarrek emandako elikagaiak jasotzen. | IMANOL SORIANO

Elikagai Bankurako, baina asko erosketa-orga bete janari ekarri digute. Izugarria izan da", jakinarazi dute boluntarioek hunkituta. Horrelaxe erakutsi zuten herritarrek ekimenarekin bat

zetoze. "Urtean behin baino gehiagotan egin beharko lirateke halakoak", zioten batzuek, eta "herritarrok bakarrik ez, asko dutenek ere eman beharko luke", beste batzuek.


Arizmendiarrietaren filosofiaren inguruko hausnarketa egin dute

Apaizari buruzko 'Hemen' aldizkariko monografikoa ere aurkeztu dute

I. G. / A. L. | ARRASATE

Jose Maria Arizmendiarrietaren heriotzaren 38. urteurrena dela-eta, mahai-ingurua egin zuten egunean Kultureteko areto nagusian elizbarrutiak antolatuta, Mugimendu Kooperatiboa sustatu zuten baloreen gainean hausnartzeko. Atzera begiratzeaz gain, hitzaldian Arizmendiarrietaren balore eta ideiek etorkizunean izan ditzaketen garrantziaz ere hitz egin zuten.

Jakina da Arizmendiarrietak kristau baloreak elizatik atera eta kooperatibaren esparrura eroan zituela. Duela ia 60 urte Arrasaten sortutako enpresa mugimenduak, hein handi batean, Markinako apaizari zor dio bere funtsa: duda barik, Debagoiene-ko kooperatiben sustrai eta oinarri bilakatu da bere filosofia. Mahai-inguru horretan apaizaren ideiei errepaso bat egiteaz gain, hauek gaur egun izan ditzaketen erabileraren eta akatsen gainean mintzatu ziren, besteak beste.



Mahai-inguruko hiru hizlariak. | IMANOL GALLEGO

Hori horrela, ez zen hitzaldi soil bat izan: Kooperatibismoaren aitari buruzko *Hemen* aldizkari-ko monografikoa da hain zuzen, barikuan aurkeztu zutena. Joxe Mari Arzallus, *Hemen* aldizkari-

ko zuzendaria; Ainara Udaondo, MUko Lankiko zuzendaria; eta Pako Garmendia, Deustuko Unibertsitateko soziologiako katedratikoa izan ziren hitzaldiaren gidariak.

JOXE MARI ARZALLUS
'HEMEN'
ALDIZKARIKO
ZUZENDARIA



"Arizmendiarrietak lanari eman zion filosofia eta historia aztertu ditugu apaiz eta kooperatiba ikuspuntutik gaurko mahai-inguruan".

AINARA UDAONDO
LANKIKO
ZUZENDARIA



"Bere garaian gaurkotasun handiko ideiak izan ziren eta gaur egun ere oraindik ekarpen esanguratsuak direla esan daiteke".

PAKO GARMENDIA
SOZIOLOGIAKO
KATEDRADUNA
DEUSTUN



"Errusian edo Venezuelan egindako beste ekonomia eredu batzuekin alderatuta hobea da Arrasatekoaren osasuna, nahiz eta momentu onenean ez egon".

Aurtengo 'Nabarralde Saria' Juan Zelaiari emango diote

Etzi, euskararen eguna aintzat hartuta, egingo diote oñatiarrari omenaldia bere jaioterrian

ANDER LARRAÑAGA | OÑATI

Nabarralde Saria oñatiar bati emango diote aurtin: Juan Zelaiari, hain zuzen. Jakina da, Nabarralde Kultur Elkartek Euskal Herriko kulturaren arlo ezberdinak lantzen dituela; hizkuntza, historia, kultura, oroi-mena edota ondareari dagokionez. Alor hauek sustatzen, bultzatzen eta laguntzen dituen ematen diete sari hori. Beraz, azken urteotan horiek guztiak biltzen dituen sinbolo bilakatu da, hain justu, sari hori.

Orain arte, sinbolo hori Jean Louis Davant edo Benito Lertxundi bezalako izen handiek jaso dute. *Nabarralde Saria* ez dute pertsona jakinek bakarrik eskaini, esaterako, nafar Erriberako Beterri Elkarteari edo *Ikastola* proiektuari ere eman zaie.

Nabarraldetik diotenez, aurtin Oñatikoari eman gura izan

diote saria, Euskal Herriko proiektu asko isilean eta esku-zabaltasunez bultzatu dituelako. Izan ere, gutxiak dakite kultura, hedabide edo hezkuntza alorreko ekimen ugari, egunkariak, zailtasunak dituzten ikastolek, literatur sariak, herri ekimenek, edo kirol espedizioek, oñatiar horren babesa eta laguntza izan dutela oinarri, besteak beste.

Omenaldia etzi

Kontuak kontu, Nabarralde eguaztenean, abenduaren 3an Oñatin bertan egingo dio omenaldi xumea Zelaiari, Nafarroaren eta Euskararen Nazioarteko Eguna aitzaki hartuta.

Horrekin batera, Nabarraldekoek, esker ona adierazi nahi izan diote oñatiarrari, une zailetan herriaren alde lan egin eta egiten jarraitzen duelako.



Omenaldia jasoko duen Juan Zelaia. | PAMELA ARGITALETXEA



Egubakoitzean, Gipuzkoako Merkataritza Sarien banaketa ekitaldia. | GIPUZKOAKO BAZKUNDEA

Gorosti loradenda saritu du Gipuzkoako Bazkondeak

A. L. | BERGARA

Bergarako Gorosti loradenda eta Arrasateko Oskarbi zapata-denda saritu dituzte Gipuzkoako Merkataritza Sarien 22. edizioan. Gipuzkoako Bazkondeak, Eusko Jaurlearitzako Merkataritza-Bulego Dinamizatzaileekin batera,

antolatu ditu sari horiek. Oskarbi Oinetakoak enpresak Gipuzkoako Merkataritza Saria jaso du. Ordiziarra da enpresa, baina Gipuzkoako hainbat herritan ditu dendak, Arrasaten, esaterako, bi.

Bestetik, sari horietan bada- go eskualdeka banatutako sail

bat, *10 Bitxiak* izenekoa. Bertan, hamar eskualdetako denda onenak saritzen dituzte: Debagoienean, Irene Zenitagoitia bergararren Gorosti dendak jaso du sari hori.

Eskualdeko enpresa eredua

Merkataritza Sarien antolakuntzaren arabera, eskualdeko merkataritzaren ezaugarri diren balore, irudi eta prestigioa adierazten duelako saritu dute Zenitagoitiaren komertzioa.



UNAI ETXEBESTE

Zuhaitza bidegorria oztopatzen

Twitterreko erabiltzaile batek ohartarazi zuen egubakoitzean, Oñatin, Elorregi eta Zubillaga arteko bidegorri zatian, zuhaitz bat jausi zela. Zuhaitzak bidea moztu zuela-eta, Oñatiko udaltzaingoa Foru Aldundia jakinarazi behar izan zuen, azken honek kudeatzen baititu bidegorriak. Arratsalde parterako zuhaitza bidegorritik kendu zutela jakinarazi zuen udaltzaingoa.



Candyko langileak lantegiaren aurrealdean. | MIREN ARREGI

Langileak altxatu eta batzarretik irten dira

Zuzendaritzak "xantaia" egin diela diote langileek; egubakoitzean berriro batzartuko dira

MIREN ARREGI | BERGARA

Haserre irten ziren Candyko langileak egubakoitzean enpresarekin izandako batzarretik. Goizeko bederatzieta zuten batzarra, eta ordubetera, mahaitik altxatu eta irten egin ziren langileak. Langabezia prestaziorako eskubiderik ez luketen langileen gaia mahai gaineratu zutenean sortu zen tirabira. "Barre egin digute, eta ez hori bakarrik; xantaia ere egin digute. Esan digute kaleratzeak onartzen badiugu ordainduko dietela langile horiei", azaldu zuen lantegi kanpoaldean Jesus Markez langileen batzordeko kideak.

Bileraren ostean lantegiko atean eseri ziren langileak, Candyko zuzendarietara iteera oztopatzeko. Ez zen istilurik izan, baina enpresako ordezkari

riek langileen oihu artean egin zuten kanporako bidea.

Egubakoitzean egingo dute laugarren batzarra zuzendaritzarekin. Langileek argi dute langabezia prestaziorik ez duten langile horiei irtenbide bat eman arte ez dutela amore emango.

Erakundeak konponbide bila
Erakundeek ere badihardute Candyren itxierari konponbide bat bilatu guran. Foru Aldundia, itxieraren aurrean zein irtenbide egon daitekeen aztertuko duen aholkulari batekin dago harremanetan. Enplegua mantentzearen alde egingo dutela azaldu du Pedro Iturbek.

Eusko Jaurlaritzak ere bide beretik egin du. Izan ere, Candyrendako konponbide bila jarraitzeko asmoa berretsi du Arantza Tapia ekonomia sailburuak.

Ulmak Eroskiko plataforma logistikoko berria garatu du

Sistemak dendetarako eskaerak automatikoki jaso, biltegiratu eta prestatzen ditu

JON BEREZIBAR | OÑATI

ULMA Handling Systems-ek, LKS ingeniarietza eta Eroskik Elorrioko plataforma logistikoko berria garatu dute. Euskal Herriko eta Espainia iparraldeko (Kantabria, Errioxa eta Asturias) 26 hipermerkatu eta 325 supermerkatu hornituko ditu Elorrioko plataformak. Joan zen astelehenean inauguratu zuten sistema berria, Iñigo Urkullu lehendakaria, Arantza Tapia sailburua, Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahalguz nagusia eta Javier Sotil, Mondragon Taldeko presidente berriarekin.

Plataforma logistikoa garatzeko inbertsioa 40 milioi eurokoa izan da. Modu honetan, biltegi eta banaketa lana %50 produktiboagoa egin gura dute aurrerantzean; eta, aldi berean,

kostu logistikokoak %10-15 inguru murrizteko asmoa dute.

Produktuak manipulatu gabe
Sistemak dendetarako eskaerak automatikoki jaso, biltegiratu eta prestatzen ditu. Produktuak ia eskuz manipulatu gabe egiten da kudeaketa eta denda bakoitzerako eskaerak saltokian produktuak kokatzen diren ordenari jarraituz prestatzen ditu. Produktzioaren erdia langileen laguntzarik gabe egiten dela nabarmendu zuten aurkezpenean. Lantegia automatizatu aurretik prestatzaileek 8.000 kiloko zama lan egiten zituzten eta aurrerantzean horren %30 besterik ez dute euren gain hartuko. Berrikuntzen artean dago, botilak ere modu automatizatuan kudeatuko direla.

Nazioarteko esperientziak partekatzeko I. foroa

Abenduaren 12an egingo dute, Enpresagintzan, 12:00etatik 14:00etara

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

MU Enpresagintza, MIK eta Mondragon Team Academy antolatuta *Nazioartekotze eta azken tendentzien inguruko lehenengo Foroa* egingo dute abenduaren 12an. Bi orduko saioa izango da, 12:00etatik 14:00etara. Oñatiko Enpresagintza fakultatean egingo dute.

Sain Milena Lopez Enpresagintzako irakasle eta ikertzailea dabil antolakuntza lanetan. Hark azaldu du asmoa ez dela "hitzaldi bat ematea", foro baten bitartez "hartu-eman bat sortzea" baizik. Horretarako world cafe formatuan egingo dute saioa.

Nazioartekotze eraginkorrak
Nazioartekotze prozesuen aspektu teoriko eta praktikoak landuko dituzte. "Enpresetako nazioarteko saileko arduradunek parte hartuko dute, besteak beste, foroan", dio Lopezek eta gaineratu: "Esportazioan duten esperientziak kontatuko dituzte".

"Nik neuk ere asko bidaiatu izan dut, eta konturatu naiz behar batzuk daudela. Ikusi dut hainbat herrialdetan, Txinan esaterako, merkatua asko hazi dela; gainera, guk bizi dugun krisia kontuan hartuta, irtenbidea kanpora joatea da", azaldu du Lopezek. Zergatik esportatu behar den, bete beharreko baldintzak zeintzuk diren, herrialde bakoitzaren ezaugarriak... gai horiek guztiak landuko dituzte foroan.



Oñatiko enpresagintza fakultatea. | GOIENA

Konturatu dira, gainera, jende asko dabilela bidaiatzen baina euren artean ez dagoela koordinaziorik. Horregatik, esperientziak partekatu gura dituzte, eta egon daitezkeen arazoak identifikatu.

Doakoa izango da foroa
Abenduaren 12an egingo den foroa doakoa izango da baina beharrezkoa izango da aurrez izena ematea. Lopez irakasle eta ikertzailearen bitartez egin behar da hori. Idatzi mezua smlopez@mondragon.edu helbide elektronikora edo deitu 943-71 80 09 telefono zenbakira. Lopezek esan du dagoeneko hainbat enpresa interesatu direla: "Bailarakoak, kooperatibak, eta baita Bilbo ingurukoak ere". Izena emateko aukera abenduaren 10era arte egongo da zabalik.

"Hitzaldi baten bitartez, kontatzen dizutenaren %5arekin geratzen zara; esperientziak elkartrukatzuz, ordea, %50a jasotzen duzu", dio Lopezek. Saioan luncha ere eskainiko dute.

Natra Zahorrek elikagaien bankuak emandako saria jaso du

Gipuzkoako Elikagai Bankuak 2014ko sariak banatu zituen azaroaren 21ean, Hondakinak Prebenitzeko Astearen harira. SDA Aduna enpresak jaso zuen plaka, eta Elikagai Bankuaren proiektuetan laguntzen duten beste 28 enpresak diploma bana eskuratu zuten, tartean Oñatiko Natra Zahorrek.

Gailu berria atera dute autobideetan deskontuak lortzeko

Bidegik Abiatu teleordainketa gailu berria aurkeztu du. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera erabili ahal izango da Abiatu eta apirilaren 1etik aurrera Gipuzkoako autobideetan deskontuak lortzeko gailu bakarra izango da. Horregatik, teleordainketa gailua duten erabiltzaile guztiek Abiatu eskuratu behar dute.

Gregorio Villalabeitia, Kutxabankeko presidente

Mario Fernandezek eguenean aurkeztu zuen dimisioa sei urteko agintaldiaren ostean

A.E. | ARRASATE

Mario Fernandezek lekua Gregorio Villalabeitiari hartuko du Kutxabanken. Eguenean jakinarazi zuen Fernandezek Kutxabankeko presidente izateari utziko ziola. Hala, egubakoitzean, BBK-ko patronatuak aho batez aukeratu zuen Villalabeitia (Barakaldo, 1951) presidente berri. Bankua zuzentzeko eginkizunean pozik agertu da Villalabeitia. "Pribilejioa" dela uste du eta "zeregin gogorra baina zoragarria" izango dela gaineratu.

Fernandezek dimisioa
Mario Fernandez (Bilbo, 1943) Kutxabankeko presidenteak eguenean aurkeztu zuen dimisioa. Administrazio Kontseiluaren bileran egin zuen hori. Kutxabankekin ohar bidez azaldu

zuenez, uda aurretik aurreratu zuen Fernandezek bere agintaldia amaitzeko asmoa "erreferentziazko akziodunari" (BBK Fundazioa), garai hau bukatutzat emateko eta testigua momentu egokian emateko. Sei urteko agintaldia izan du Fernandezek Kutxabanken.

Babes falta izan du
Bankuei egiten zaizkien estres testa nota onarekin gainditu ostean etorri zen Fernandezek dimisioa. Kargua hartu zuenean, asmoa bost urtean hiru fundazioek Kutxabanken akzioen %30 soilik kontrolatzea eta gainerakoa kapital pribatuaren esku uztea zela azaldu zuen. Baina, norabide horretan, babes falta izan dezake, eta horrek eragina izan du dimisioa ematerakoan.

Ainara Udaondo | Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiko zuzendaria

"Fagor Etxetresnen legatua izan daiteke kooperatibismo sendoagoa"

- 'Arizmendiarieta. Gaurko begiradatik' hitzaldia eman du Udaondok Pako Garmendiarekin
- Apaiz bizkaitarra hil zela 38 urte bete dira eta horren harira antolatutako ekitaldia izan da

IRATI GOITIA | ARRASATE

Jose Maria Arizmendiarietaren heriotzaren 38. urteurrenaren aitzakian, Arrasate eta Bergarako artzapezgoak antolatuta, hitzaldia egin zuten Ainara Udaondok, Lankiko zuzendariak, eta Pako Garmendiak, Soziologia katedradunak Deustuko Unibertsitatean. **Nola ikusten da Arizmendiarietaren pentsamendua egungo begiradarekin?**

50 urte pasa badira ere, eta testuingurua aldatu bada ere, Arizmendiarietaren pentsamenduak gaurkotasan handia dauka. Gainera, uste dut hor daudela etorkizuneko kooperatibismoa pentsatzen jarraitzeko oso pista interesgarriak. Azkenean, Arizmendiarietak mahai gainean jartzen duen ideia nagusia da auto-eraketarena edo auto-antolaketarena. Pertsona kooperatiboago eta helduago bat. Hor badaude gaurkotasan handiko hainbat eta hainbat balore eta ideia.

Zein izan da kooperatibismoa egin duen ekarpenik garrantzitsua?

Ekonomia egiteko molde gizatiar bat bultzatu nahi izan du eta enpresa eredu alternatiboak inspiratzeko balio izan du. Hein batean, enpresa efikazia eta baloreak uztartzeko saiakera egin du. Hori oso ekarpen garrantzitsua izan da. Bi horien arteko oreka lortzea oso zaila da, hori nabarmena da, baina artikulazio hori praktikara ekartzen saiatzea ekarpen handia dela uste dut. Kooperatibismoaren ezaugarri garrantzitsua da izaera demokratikodun erakundeak direla, demokrazia ekarri dutela enpresaren mundura. Beste ekarpen bat izan da esperientzia kooperatibo honek egin duela ahalegin berezi bat baloreak praktikan jartzeko. Zentzu horretan hemen egon da horrelako ia obsesio bat balore konkretuak –elkartasuna, parte-hartzea, gizarte eraldaketa...– praktikara ekartzeko. Horren adibide garbia izango litzateke interkooperazioa. Elkartasunaren praktika konkretua da eta bere mekanismo zehatzak garatu ditu. Gainera, garapen maila handia izan du.

Fagor Etxetresnen krisiaren harira, zalantzan jarri da interkooperazio edo sare hori?

Egia da Fagor Etxetresnetako gertakariak korapilo eta galdera berriak ireki dituela, eta askok zalantzan jarri dutela eredu. Ea gai garen gertatu denetik ikasi



Ainara Udaondo, Lanki Aretxabaletan duen egoitzaren kanpoaldean. | IRATI GOITIA

eta kooperatibismo sendoago bat ernetzeko. Ea dagokien instituzioek hausnarketa serio eta sakon bat egiten duten. Hala ere, interkooperazioaren gaian egon da izugarritzko sormena. Izan ere, hasten zara arakatzan ze mekanismo garatu izan diren historioki eta... Zentzu horretan esperientzia kooperatibo hau erreferentziala da mundu mailan ziurrenik, izan duelako interkooperazio garapen oso garrantzitsua. Hainbat mekanismo daude dagoneko instituzionalizatuta. Fagor Etxetresnen gertakariak ekarri du instituzionalizatuta ditugun mekanismo horietatik harago, mekanismo berriak martxan jartzea. Ezohikoa izan zen kooperatiba guztiengana zabaldu zen deia Fagor Etxetresnei laguntzeko –kooperatibistek euren soldatetik %1a jarri zuten–. Zoritzarrez ez zen nahikoa izan. Nik uste dut interkooperazioa ez dagoela zalantzan, baina egia da aldi berean

"Dagokien instituzioek hausnarketa egin behar dute"

mahai gainean galdera berriak jartzen dituela: Non daude interkooperazioaren mugak? Laguntzek izan dezakete efektu lo eragilea? Badugu ahalmena horrelako krisi handiei aurre egiteko? Interkooperazioa albo batera utzi beharrean, egin beharko da mekanismoetan sakondu eta berrikuntza sustatu. Hain zuzen, hori izan daiteke Fagor Etxetresnek utzi dezaketen legatua: kooperatibismo sendo baterako irakasgai.

Egungo kooperatiben tamaina eta nazioarтерatztea beste erronka bat da. Nola egin hori ikuspegi kooperatibotik?

Kooperatibek dauzkate enpresa erronka oso garrantzitsuak. Merkatuaren exijentziak oso handiak dira eta hor badauzkate erronka jakin batzuk. Horien artean daude dimentsioaren gaia eta nazioarтерatzeko beharra. Hainbat kasutan, nazioartera jo da hemengo enpleguari eutsi ahal izateko. Egia da, ordea, fenomeno kontraesan-

"Kooperatibaren ideiak gaurko gakoetara ekarri behar dira"

korra ematen dela. Hemen balore eta printzipio batzuk dituzu eta kanpoan dimentsio hori ahuldu ta geratzen da. Kasuistika oso zabala da eta lurralde bakoitzak du bere legedi propioa eta kultura. Kooperatiba bere formula horretan hemen oso normalizat hartzen dugu, baina beste toki batzuetan ez da ohikoa. Beraz, badauzka bere zailtasunak. Bestalde, badago eskala bat. Multinazionalak egiten dutena egitetik, kooperatiba bat sortzera, badago tartea. Hor bilatu behar dira, adibidez, parte-hartzerako formulak edo konpromiso soziala. Nik uste dut Mondragon Taldeko kooperatibei badagokiela nazioarтерatzeko politika horretan gauzak beste modu batera egitea; ez edozein multinazional bezala.

Beharrezkoa da arlo horretan zein orokorrean kooperatibismoa birpentsatzea?

Lankin badaramatzagu hainbat urte arlo honetan lanean. Orain

"Kooperatibismoa modu kontzientean landu behar den zerbait da"

dela urte batzuk egin zen diagnostiko zabal batean, argi ikusi zen aspektu sozialek eta kooperatiboek behar zutela bultzada berri bat. Kooperatibismoa sortu zen testuinguru sozial eta ekonomikoa jakin baten eta hori aldatu egin da. Kooperatibak eurak ere eraldatu dira, baita kooperatibisten motibazioak. Garrantzitsua da gaur egun erronka sozial eta ekonomikoei erantzuneko dien formulazio berriak sortzea. Arlo enpresarialean egiten den moduan, berrikuntza soziala behar da. Horretarako birpentsatu eta hausnartu egin behar da. Gaurko gakoetara ekarri behar dira kooperatibaren ideiak.

Egungo kooperatibistek badute kooperatibista izaera?

Ezin da orokortu, denetarik dago. Azken urteotan egin da lan esanguratsu bat norabide horretan. Une honetan hezkuntza edo hausnarketa kooperatibo programa esanguratsuak daude martxan eta Lankitik lanean ari gara horretan. Azkeneko sei edo zazpi urteetan 8.000 bat lagunekin egon gara. Hori urrats bat da. Nik esango nuke kooperatibista izatea oso estatus zorrotza dela. Izan ere, langilea zara eta aldi berean enpresa baten ko-jabe. Bi logia artikulatzen dira bazkidearen figuran eta horrek dakartzak eskubideak eta betebeharrak. Hori elikatu egin behar da. Hausnarketa egin behar da, harrera plan egokiak behar dira, hezkuntza kooperatiboa egin... Modu kontzientean landu behar den zerbait da.

Enpresatik harago eraman da esperientzia, ordea...

Bai, ez da enpresa humanizatzea edo demokratizatzea mugatu. Izan du gizarte eraldaketarako bokazio edo bultzada garbi bat. Enpresa ulertzen da justizia soziala sortzeko erreminta bezala, garapen komunitarioa sustatzeko elementu moduan... Adibidez, kooperatibak dira enpresa sustraituak, eta hala, bada lurraldearekiko konpromiso edo sentsibilitatea. Eta esaterako, enpleguaren sorkuntza edo mantentzea kooperatiben ahalegin garrantzitsua izan da historikoki. Hezkuntza edo kultura mailako ekimenak ere egin dira. Hor badago gizartearekiko bokazio bat, baina arlo hori ere berri tu egin behar da. Kooperatibek gizarte eraldaketan duten rola indartu eta birpentsatu beharko genuke ziurrenik.

ZABALIK

MAIDER AZKARRAGA-URIZAR

goiena.eus/komunitatea/



Kostatzen zaigu

Kostatzen zaigu eskertzea. Baina nago gehiago kostatzen zaigula eskertu daitekeenaz ohartzea. Asko eta asko gara herrigintzan gabiltzanak. Herria barrutik eraiki, margo-tu eta alaitu daitekeen konbentzimenduz.

Eta bortitza izan liteke hau horrela esatea; baina bizi garen eta bizi dugun herri honetan, batzuk badira lan honi nahikoa balio ematen ez diotenak edo paso egiten dutenak.

Sinetsidazue, ez da asko eskatzen duguna. "Eskerrik asko" batekin, bi hitzekin, txalo egitearekin, askotan, nahikoa da.

Horrela esanda, ematen du, agian, behartuta egiten dugula, gogoz kontra. Gustu handiz egiten dugu egiten duguna. Ilusioz eta maitasunez. Eta hala ere, ezin duzue imajinatu esker oneko hitz batzuk nola estimatzen ditugun, nolako indarra ematen diguten, gauza gehiago egiteko eta aurrera jarraitzeko.

Horregatik, zeharka baldin bada ere, eskerrak eman nahi dizkiet herriko trikitilari, pandero-jole, bertsolari, txalapartari, albokari, gaitero, txistulari eta dantzari.

Herritar guztien txaloak jaso gabe ere, indar berberarekin, aurrera jarraitzearren.

Gazte Asanbladako kideei, antolatutako ekintzetan, askotan, jende askorik ez agertu arren, gazteontzako ekintzak antolatzen jarraitzeagatik. Eta nola ez, jai eta txosna batzordekoei, bertako norbanako eta bertan aritzen diren eragile guztiei; jaiak ospatzea posible izan dadin sukaldeko lanean aritzen direlako, jaietan ere herritarrok geure senti dezakegun eremu aske bat izan dezagun gozatzeko, libre izateko. Eta mila esker lerrootan kabitu ez zaretenoi ere.

Esango nuke sentitzen dudala inori gogorregi suertatu bazaio irakurri duena, baina barkamena merkeegi saltzen den garaio-tan, pozik nengoke guztiok pare bat buelta emango bagenizkio gaiari. Inor beharrezkoa ez den arren, denok baitugu zerbait eskaintzeko!

USTEAK USTE

ARANTZAZU EZKIBEL | aezkibel@goiena.com

...izatea zein nekeza den...

Euskahaldundu! Hori izango da 2015eko Korrikaren leloa. Euskaldun izateaz eta horrek eskatzen duen ahaleginaz pentsatu izan dut azken egunotan. Euskaldun zaharra naiz ni. Euskaldun izatea naturala da niretzat, hala jaso dut eta hala bizitzea erabaki dut. Beste askok, ordea, ahalegina egiten dute euskalduntzeko. Euskal Herrian bizi direla kontuan hartuta, egin beharreko ahalegina dela pentsa genezake, baina badakigu hori ez dela beti horrela. Gazteleraz bizi daitezke. Horregatik, animatu eta eskertzen diet ahalegina. Egunerokoan euskaraz bizitzea, ordea, norberaren erabakia da; eta hori guztiok egin behar dugun ahalegina da. Euskahaldundu gaitezen!

KALE INKESTA

Badakizu zein den zure abizenen jatorria?



AITOR LIZARTZABURU
ARRASATE



ANA ISABEL AMENABAR
ARRASATE



MARIA LOURDES LLOPIS
ARRASATE



JESUS ARREGI
ONATI

"Ez daukat ideiarik ere. Ez naiz informazio horren bila sekula ibili. Baina gurako nuke jakin nondik datozen nire sustraiak".

"Ez. Eta sekula ez dut lortu informazio hori aurkitzerik. Besteak beste, nire ama biologikoa ez dudalako ezagutzen".

"Nire abizena katalana da; gaztelaniazko Lopez. Nire sustraien gainean ibili izan naiz informatzen".

"Aitaren aldekoak bai. Oñatikoak dira, eta badakit ze baserritatik datozen. Amarenen gainean askoz gutxiago".

ADIERAZPENA

URKO ARISTI | Tokikom-eko presidentea

Euskarak 365 egun

Abenduak 3, abendua hotz. Sukaldearen epelean ederki. Goxo-goxo. Amaren altzoan, baina kalera atera behar. Kanpoan hotz, bai, baina beldurrik ez. Berokia hartu, eta aurrera! Igurtzika, bata besteari hotza kenduz, amaren losintxa ederra delako, baina ez bakarra. Laztanak behar ditugu, baina ez soilik etxeakoak. Etxekoak, auzokoak, eta denak, denonak.

Abenduak 3. Euskaldunon jaia, edo euskal herritarrena. Zalantza maiz: Bertakoa bai, baina euskal hiztuna ez. Kale. Biak pare, hala beharko luke. "Dun", "tar", "zale"... atzizkiak anitz, erroa bakarra. Euskara. Lurraren eta adaxkaren arteko lotura. Enborraren oinarria. Ez ipar ez hego, inolako haize boladak botako ez duen enborra.

Menditik zelaira. Baserritik kalera. Arriben, Orendainen, Larrabetzun eta Kanpezun bai, baina baita Iruñean, Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Baionan ere. Eta ez soilik Ttipian, handian ere berdin. Txikitik abiatu, eta handira. Euskaldunak non topatu badakigu, baina topaleku berriak behar ditugu. Taberna eta ostatuan bai, elkarteetan ere bai, baina baita udaletxean ere. Eta ez soilik kultur etxean. Euskara kultura delako, noski, baina kultura baino gehiago da. Hitz egiteko ez ezik, pentsatzeko, sentitzeko, eta maitatzeko modua. Lotsarik ez, beraz. Armairutik atera, eta plazaren erdira atera. Ozen aldarrikatu plazan; bertan, denon bilgune, topagune den plazan; herriaren bihotzean. Bihotzetik mingainerako bidea hartuko du gero, baina bihotzean odolik ez bada, alferrik ari gara! Odolak bor-bor behar

du. Museoko erakusleihorako ez, bizirik behar dugulako. Gerorrek emango diogu bizia, euskaratik eta euskaraz bizi bagara!

Abenduak 3. Nafarroan jai! Kolore gorritz egutegian. Marra gorriak, batetik bestera. Honaino bai, haraino akaso... baina hortik aurrera, ja-jai! Marrak apurtu, eta koloreak gehitu. Hori erronka. Auzokoekin bai, baina baita ondoko auzokoekin ere, eta auzokoen auzokoekin. Kate batzuetatik askatu, eta beste batzuk josi.

Abenduak 3. Euskara elkarreetan, galtzak bete lan. Borondatez ari denarentzat, jaiegunak lanegun. Lana bai, baina soldatarik ez. Bada saririk ordea... Ari garena, ari garena, eta lortuko dugula... Eta batzuetan, gehienetan, lortu dugula! Malkoak garbitzeko unea, tristurazkoak zein pozezkoak izan. Albokoak, auzokoak emandako zapiarekin guztiak kendu, eta irribarreari bidea erraztu. Halako keinu txikitik abiatuta, handira egiteko ordua da. Enbido handira! Zubi txikiak konpondu bai, baina hiriko kaleak arautu ere bai. Auzolanetik hirigintzara. Biak dira beharrezko. Auzoz auzo, euskararen herrira, euskararen hirira.

Abenduak 3. Abendua hotz. Negua beti negu. Gorri edo beltz, baina negu, hotz. Horrek ez luke behar albiste. Futbol entrenatzailea edo hiriburuko alkategaia euskal hiztuna izateak beharko ez lukeen bezela. Euskarak berak gaur albigetiak zabaldutako beharko ez litzukeen bezala. Euskararen eguna, guztiek beharko luketeelako. 365ek, eta bisurteetan, 366ek, bai gure auzoan, baina baita gure herrian, gure hirian.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendaria Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrabiaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna
Leire Kortabarria
Maketaria Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrabiaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-88/2004
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Diffusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko azaroko zozketetako irabazleak



Tableta

Arantzazu Beain Larrañaga
(Bergara)



Bidezko merkataritzako otarra
Lurdes Larrañaga Iturbe
(Arrasate)



Arrikrutzerako sarrerak
Irune Igartua Leturia (Bergara)
Luziano Galdos Urzelai (Oñati)
Ana Maria Ruiz Santos (Eskoriatza)



Nairobitarra jokoa
Edurne Elkoroiribe Izurategi
(Oñati)
Kontxita Bilbao Mujika
(Bergara)



Kirolaz badakit jokoa
Xabier Madariaga Muguruza
(Arrasate)
J.M.Ugarte Aiastui
(Oñati)



'Todo saldra bien' liburua
Maria Lazkano Balanzategi
(Arrasate)



'Hitzak' antzezlanaren ikusteko sarrerak
Arantxa Egibar-Araunabeña
(Bergara)



Zarzuelarako sarrerak
Tere Azkarreta Jauregi
(Bergara)
Amaia Lazkanoiturburu Lizarralde
(Arrasate)



Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak
Iker Arroyo Sanchez
(Arrasate)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerek 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00.

Otarra: Otarra jasotzeko, zatoz Harreman dendak Arrasateko Eroski Merkatalgunean duen dendara.

Beste sariak. Saria jasotzeko zatoz, GOIENAREN egoitzara.

Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA. Otarora Lizentziaduna, Arrasate. 943 25 05 05

Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK

ONATI

Bakoitzari berea; Maria Irizarri, kalea

- Apaolazaren Alargun gisa ageri da gaur izendegian
- Udalbatzak aho batez erabaki du izena aldatzea

JULEN IRIONDO | OÑATI

"Maria Irizar nahikoa eskuzabala izan zen herriarekin. Badirudi euren jabetzakoak ziren lursail batzuk-eta herriaren zabalkunderako eman zituela". Maria Irizarrek berak eman, baina kaleari izena jartzerakoan gizona izan zuenaren abizena ageri zen, haren alargunaren omenezko kalea zela adieraziz: Apaolaza Alarguna. "Bere omenez jarritako kale izena da, baina ez bere izenarekin, baizik eta, kasik, [emakumea]

norena zen esanez: inoren alarguna, inoren alaba, inoren emaztea... Horrelako gauzak onartezinak dira, begietara ere min egiten dute", dio Oñatiko Udaleko Berdintasun batzordeko buru Maialen Urtzelaik. Horrela, joandako egueneko osoko bilkuran hasierako onarpena eman zion udalbatzak, aho batez, kaleari izena aldatzeko proposamenari.

Jerardo Elortzak *Kontzejupe-tik*-en argitaratutako artikulua bat deigarri eginda hasi ziren gaia

batzordean eztabaidatzen. Aurrez, Berdintasun Plana egin zutenean ere, kontuan izan zuten hirigintzaren inguruko hausnarketa egin beharra, hirigintza aztertzea "genero ikuspegitik": "Ikusita hausnarketa hori egiteko gurela eta hor barruan sartuko zirela, baita ere, kale izendegiaren eta kaleko iruditegiaren-eta azterketa, atzeratu egin genuen gaia. Baina hirigintzako hausnarketa hori bukatu genuen iazko ikasturte amaieran, eta orain kontua



Egungo Apaolaza Alarguna kalea, Maria Irizar deitzeko bidean dena. | I.G.

zen erabakia hartzea; batzorde desberdinak ukitzen ditu, Hirigintza batzordean landu behar izan da gaia, eta Berdintasunekoan ere bai". Eta gaia osoko bilkurara iritsi da, eta Bilduren eta EAJren aldeko botoekin onartu zuten kaleari izena aldatzea.

EAJko Lourdes Idoiagaren arabera, hartutako erabakia "mugarri bat" da: "Ea hemendik aurrera ere emakumeok geure izenarekin agertzen garen agertu behar garen lekuetan; ez bakarrik kaleetan, geuk ere sarri erabiltzen baitugu zeinen emaztea garen-eta. Nik uste oso garrantzitsua dela irizpide hori aldatzea".

Emakume izen gutxi

Gutxi dira Oñatin emakumei eskainitako toki izenak; Elizari lotutako Arantzazuko Ama, Bakaradeko eta Santa Marina plaza, bakarrenetakoak. Kale izendegiaren eta iruditeriaren inguruan egindako azterketan baieztatu ahal izan zuten hori. "Behintzat", urgentziaz egin beharrekoa zela iruditu zitzaion Apaolaza Alar-

guna kalearen izena aldatzea, "bereziki deigarria" zelako, Berdintasun batzordeko buru Maialen Urtzelaik dioenez.

Aurrera begira, kale edo plaza berriei izena jartzerakoan erabiliko den irizpideari buruz galdetuta, Urtzelaik dio, bere garaian, "desberdintasun hori ekiditeko", leku izenak edo ofizioenak jarriko zirela erabaki zela: "Egia dena da gaur hartutako erabakiarekin bide berri bat irekitzen dugula, eta lehen-goari gehitu dakioken irizpide bat izan daitekeela herrian esanguratsuak izan diren emakumei dagokien lekua ematea kale izendegian, iruditerian, monumentuetan eta abarretan. Hemendik aurrera beste edozein proposamen jasoz gero, irekita geundeko. Nahi genuke ahalik eta eskrupulosoena izatea kontu honekin".

Alegazioetarako epearen ostean erabakia behin betikoa bihurtzean, Udala arduratuko da dagokion lekuetan aldaketaren berri emateaz. Bizilagunek ez dute ezer egin beharko.



Kalearen izenaren plaka; azpian, iazko jaietako Egun Morean jarri zutena, Maria Irizarren izenean, hori bai. | IRATI GOITIA

ESANAK

"Horrelako gauzek min egiten dute begietara ere"

MAIALEN URTZELAI | BILDU

"Nik uste oso garrantzitsua dela irizpide hori aldatzea"

LOURDES IDOAGA | EAJ

Harpidetza bakoitzarekin, are independenteago

Jarri ekonomikoki zure tanta etorkizuna margotzen jarrai dezagun

ARGIA ASTERO jasotzeko aukera: **hilean 12 € baino ezi!***

ARGIA hilean behin jasotzeko aukera: **hilean 4 € baino gutxiago!*****

(*) 145 euro urtean. Igorpenetan ordainketa urtean behin edo bi zatitan egiteko aukera (46 zenbaki + 11 Larrun + Urtekarria). (***) 41 euro urtean (11 zenbaki + 11 Larrun + Urtekarria).

Egizu, egiozu harpidetza!

Eskaerak:

☎ 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

Durangoko Azokan ere topatuko gaituzu (Goienkale 71)



Ziburutik etorritako gurasoak eta umeak Arrasaten. | EDURNE BALZATEGI



Aretxabaletako plazan lasterka hasteko gertu neska-mutikoak. | MIRARI ALTUBE



Eskoriatzako kontzejupean neska kuadrilla kantuan. | IMANOL SORIANO



Bergarako gazteak dirua batzeko kutexkin. | MAIALEN TORRES



Oñatiko ikasleak herriko kaleetan antxixtika. | JULÉN IRIONDO



Bergararrak pankartaren atzean Ziburuko ikastolaren aldeko krosa has

BERGARA, OÑATI, ARRASATE, ARETXABALETA ETA ESKORIATZA

Laguntzak eta aldarrikapenak bat: "Nik ere ikastola nahi dut Ziburun"

Aranzadi, Txantxiku eta Arizmendi ikastolek deituta Kaskarotenearen aldeko jaia egin dute

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Ziburuko Kaskarotenea ikastola izan da protagonista aste bukaeran Debagoieneko hainbat herrian. Eta haren aitzakian laguntza ekimenek, aldarrikapen ekitaldiek eta jai giroak bat egin zuten egubakoitzean bost herritako plazetan: Bergara, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza.

Goizean ikasleak

Goizean hasi zituzten ekitaldiak hiru ikastoletako ikasleek: Aranzadi, Txantxiku eta Arizmendi. Batzuek metro gutxi batzuk, eta besteek gehiago, lasterka jardun

zuten guztiek -3 urtetik 18 urte artekoek-, euro baten truke. Arrasaten, gainera, Ziburutik bertatik etorritako gurasoen eta umeen bisita jaso zuten. Hunkituta azaldu ziren horiek, hainbeste jenderen laguntza keinuak eta babes mezuak jasota: "Euskaraz ikasteko aukera bakarra ikastolek eskaintzen dute iparraldean eta horregatik mobilizatu ginen orain dela hiru urte. Aurrera egiteko esperantza badugu, ea beste irtenbideren bat asmatzen dugun: etxe bat alokatu...", zioen Laida muxikak, Kaskaroteneako guraso elkarteko presidentea.

Arratsaldean aldarrikapena

Goizean hasitako lasterketek eta laguntza keinuek arratsaldean jarraipena izan zuten. Laino beltzen lekukoa euriak hartu zuen, eta giroa asko eskastu, baina horrek ere ez zituen kikildu plazetan elkartu ziren herritarrek.

Batzuek korrikan egin zuten euripean eta beste batzuek mokadutxo bat jan eta txokolatea edan lagunartean. Umeek han eta hemengo tonboletako opari guztiak eskuratu nahi izan zituzten eta zozketetan parte hartu. Dirua, Zibururako zela jakinik, baina, gurasoak lasai. Gazteek, oster,

jai giroa sortu zuten: trikiti eta pandero doinuekin herri batzuetan, gitarra eta ahots goxoarekin besteetan, eta dantzan eginez hurrengoan.

Bukatzeako manifestua irakurri zuten, eta esan: "Nola uka dakioke ume bati ikastolan hazteko eta hezteko eskubidea? Mirestekoa da Ziburuko guraso eta irakasleak egiten ari diren apustua; mirestekoa euren tinkotasuna, konpromisoa, sinesmena eta indarra", eta gaineratu: "Gure elkartasun keinu txiki honekin pausu bat gehiago eman ahal izango dute ikastola eraikitzeke".



Arrasateko plaza neska-mutikoz beteta egubako

LAIDA MUXIKA
KASKAROTENEA
PRESIDENTEA



"Hunkigarria izan da ikustea umeak kalean oihuka: guk ere ikastola bat nahi dugu Ziburun. Halako ekimenek indarberritu egiten gaituzte; izan ere, gure ikastolatik urrun zaudete baina era berean hain hurbil...".

DABID BEREZIBAR
ARETXABALETA



"Behar duenari egin behar zaio lagundu, oraingoan Ziburukoa da, hurrengoan Nafarroakoren bat izan daiteke... Ea guztion laguntzarekin aurrera egiten duten bai euskarak, bai ikastolak, bai Ziburuk".

JUANITO URIARTE
ESKORIATZA



"500 metro izan dira korrikan baina... uff. Euria eguneroko lagun dugunez hemen ezin atzera egin. Uste nuen iparraldean euskararekiko sentsibilitate handiagoa zutela baina antza ez. Hala ere, egingo dute aurrera, seguru".

**MARIÑE DIAZ
ETA
ITSASO IGARZA**
BERGARA



"Goizean hasi dugu jai giroa, umeek egin dute krosa lehenengo eta gero nagusiagoek. Jolasak ere izan dituzte; izan ere, dirua jasotzea da asmoa baina ondo pasatuta. Umeek ere badakite zertarako antolatu den jaia, Ziburun zer dagoen, guztiok garelako ikastola eta lagundu beharra dugula".



steko gertu. | MAIALEN TORRES



itz eguerdian. | JULEN IRIONDO



**JONE
MARKULETA,
IRATI AZPEITIA
ETA JONE
GALDOS**
OÑATI

"Gure ikastolak 800 bat ikasle ditu, baina hasieran txikia zen eta espero dugu han ere gurea bezain handia egitea. Badakigu laguntza behar dutela horregatik dortsal bakoitzeko euro bat jarri dugu eta gero kandelak ere salduko ditugu, argindarrak ez dutela sinbolizatuz".



OÑATI

IMANOL SORIANO

Aurreikuspenak gaindituta agur biboteei

Zapatuko jaiarekin esan zioten agur Movemberri Oñatin. "Lagun batzuk izango ginelakoan eta izugarria izan da! 50 lagunetik gora elkartu gara argazkia ateratzeko eta 45 lagun afaltzeko; mutil guztiok gainera, bibotearekin", zioen Aratz Losadak, antolatzaileetako batek. Twin Melody eta The Kites taldeek girotu zieten iluntzea eta sorpresa ere jaso zuten: "Markel Irizar agertu zaigu, Madriletik zuzenean, eskerrak ematera". Jasotako dirua, badakite 1.000 eurotik gora izango dela, Movemberrek bultzatutako minbiziaren ikerketarako da.

Gabon afaria

Abenduak **20** zapatua

Menua
Urdaiazpiko iberikoa
Bretainiako antzara-micuita
basafritu-coulisarekin
Verako esparragoak bi saltsarekin

Zapo-buztana nekora-kremarekin
eta almejekin.

Idiazabalgo gazta-tartatxoa
irasagarrarekin

Verdejo zuria
Kriantza beltza
Kafea barne

50€
(BEZ barne)

Sarien zozketa

Kontzerturako
artista gonbidatua

Raul

DJ musika
Afari-kontzertuaren ostean.

AUTOBUSA Arrasatetik eta Gasteiztik **20:30**ean. Itzulera **03:30**ean.
EZINBESTEKOA erreserba egitea **abenduaren 15a** baino lehenago. Plaza mugatuak.

Larrabea Golf Kluba. Landako errepidea z/g – Legutio (Araba) – Tel.: 945 46 58 22
Webgunea: www.larrabea.com Posta elektronikoa: larrabealoungeclub@gmail.com FB: LarrabeaLoungeClub

ESKORIATZA

Euskara bultzatzeko ekintza ugari

- Dantzak, bertsoak eta Ixotu gazte taldearen aurkezpena abenduaren 3a girotzen hasteko
- Aretxabaletan arte lana egin dute naturako elementuak erabilia Garaion elkartekoekin

ANDER LARRAÑAGA | ESKORIATZA

Euskararen Nazioarteko Eguna badatorrela-eta, asteburua aprobetxatuz, zapatuan egin zituzten euskararen aldeko ekintzak Eskoriatzan. Eguraldiak ez zuen larregi lagundu, horregatik antolatutako ekintza asko plazatik pilotalekura pasatu behar izan zituzten. Eskoriatzako Udala eta Hankamotx bertso-eskola ibili ziren antolaketa lanetan, beste eragile batzuekin batera.

Euskal dantzak, *Euskaraz Bizi Nahi Dut* argazkia, bertso kalejira eta bertso bazkaria egin zituzten. Honetaz gainera, Ixotu gazte taldea aurkeztu zuten. 16 urte inguruko hamabost gazte bildu dira euskara "ixotzeko" edo bultzatzeko asmoarekin, euren "hazia" jarri gura dutelako.

Aretxabaletan ere bai

Aretxabaletarrek ere euskararen aldeko ekarpena egin zuten zapatuan. Garaion elkartekoekin *Auzolanartean* ekintza egin zuten gaztelekuko gaztetxoek eta euskara elkarteko gazte taldeak. Natur elementuak erabiliz artelan bat sortu zuten plazan.



Dantzari gazteen ekitaldia pilotalekuan. | IMANOL SORIANO



Bertso-bazkaria Eskoriatzako Egokiena elkartean. | XABIER ARENAZA



Aretxabaletako gaztetxoak artelana egiten plazako arkupetan. | I.S.

BERGARA

Gozogileena ere artisau lana dela erakutsi dute

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

600 erreileno eta beste horrenbeste tostoi eraman zituzten zapatuan Bergarako plazara. Horiez gain, 75 litro esnerekin txokolate beroa egin zuten, erreileno eta tostoiak dastaketarako. Mujika, Reizabal eta Larrañaga gozotegietako artisauak arduratu ziren horiek guztiak prestatzeaz. Gozotegi bakoitzeko arduradunak 200

tostoi eta 200 erreileno egin zituzten zapatuari begira.

Herritarrek gustura hartu zuten ekimena. Udaletxe azpiko arkupetan jarritako mahai eta aukietan eseri eta han egon ziren nagusi zein gazte. Herritarrez gain, bisitariak ere aurkitu genituen: "Legazpitik gatoz. Autokarabanen gunera etorri gara, eta aukera aprobetxatu dugu dasta-

ketara etortzeko", azaldu ziguten. 30 bat autokarabana elkartu zirela esan ziguten.

Gabonetarako gozoak

Begarako gozogileen esanetan erreilenoak eta tostoiak gehien estimatzen dituztenak herritarrek dira: "Urte guztian saltzen ditugu", esan zigun Xabi Mujikak. Zapatuan, Gabonei begira egin-dako mazapan, turroi eta bestelakoak ere jarri zituzten salgai. Xabi Mujikak, Josune Sagastumek eta Elena Azpiatzuk erakutsi zizkiguten euren gozotegietan egin-dako artisau lanak.



Udaletxeko arkupetan egin zuten dastatzea eta erakusketa. | ARANTZAZU EZKIBEL

ARRASATE

Arkupetan babestu zen jendea San Andresko azokaz gozatzeko

A.E. | ARRASATE

Urdaiazpiko eta txorizo iberikoak, gazta, olio, olagarroa... denetarik dastatu eta erosteko aukera egon zen zapatu goizean San Andres auzoko Gudarien plazan. Eguraldia izan zen baina, traba bakarra. "Kantabriatik etorri gara, gure etxeko produktuak saltzera", esan zigun Kantabriako Saez harategikoak: "Eguraldiak ez digu lagundu

aurten", gaineratu zuen. Zapatu goizean 17 bat postu jarri zituzten. Jatekoaz gain, bitxiak, arropak eta, besteak beste, eskuz margotutako txapelak zeuden salgai.

Musikak girotu zuen eguna

Goizean txistulariek girotu zuten jaia, eta ilunkara, Sin+ taldeak izan zuen auzora joandakoak dantzan jartzeko ardura.



Auzotarrak urdaiazpikoa dastatzen. | IMANOL SORIANO

Eragile ugarik egin dute bat Arrasate Hezi ekimenarekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasate ikuspegi hezitzaile batetik hobetzea da Arrasate Hezi ekimenaren helburu orokorra. Horretarako, Udaleko Hezkuntza Sailak, Txatxilipurdik eta Bagarak parte-hartze prozesu bat abiatu zuten urri amaieran; hiru bilera egin dituzte, hezkuntza formaleko eragileekin, ez formalekoekin eta eragile sozialekin; 70 bat pertsonak hartu dute parte modu zuzenean. Izan ere, sustatzaileek uste dute heztea ez dela bakarrik eskolaren egin beharra, gizarte osoarena baizik.

Prozesua baloratzeko orduan hiru ideia azpimarratu dituzte:

prozesua "beharrezkoa" da, saioen dinamizazioa "ongi" baloratu da eta ideia orokorretatik zehaztasunetara joatea "zaila" izango da. Abenduan beste bilerara bat egingo dute hiru eragile horiekin, eta baita haurrekin, nerabeekin zein gazteekin. Urtea amaitu ostean balorazio sakon bat egin eta hartu beharreko bidea zehaztuko dute.

Gainera, herritarrendako galdetegiak abenduaren 10era arte erantzun daitezke; herriko hainbat txokotan daude eta digitalki ere bete daitezke: *Blogak.goiena.eus/arrasatekhezi/galdetegia*. Prozesuaren jarraipena egin daiteke blog horretan.



Hezkuntza formaleko eragileekin egindako lehen bilera. | TXOMIN MADINA

ENEKO BARBERENA



Balinda / Podemos

Barkatuko didate Ahal Dugu alderdikoek umetako hizkeraren txistea. Balio baitit azaltzeko balinda berba irakasleei ematen zien amorrua beste hedatu zela ikaskideon artean eta antzeko zerbait jazo dela politikan ere: ustelkeriaren

NIRE USTEZ

eta porrotaren aurkako amorrua beste ari baita hedatzen Iglesiasek gidatzen duen alderdia Raxoien gehiengo osoaren errautsetan.

Hainbatek, gure inguruan izan ez zuen eraginaren ziborrismoa, ez genuen ondo neurtu 15M mugimenduaren garrantzia. Badirudi zerbait aldatu dela Espainiar Estatuko politikan. Ebrotik behera esatera nindoan, baina akaso Arga ibaiaren ertzetan ere. Gurean ere indartsu sartu baitira. Fenomeno gaseosoa izan litekeela dioenik bada, iraganik eta programarik ez duenaren abantaila duela, espainiar politikak bizi duen kreditu faltaren aurrean azken itxaropena dela

Ahal Dugu *stablishment*arentzat... Nik dakidana da esanikoa betetzen badute (NATOtik irten, zorra ez ordaindu, ustelkeriaz garbitu Estatua...) etsai dezente egingo dituztela eta ahaleginak errespetua merezi duela. Zorte on. Kezkatzen nau euren definitu gabeko jarrerak hizkuntza/kultura minorizatu eta Espainiak preso dituen nazioekiko.

Beldur naiz ez ote duten ezkerrek sarri egin izan ohi duen interpretazio okerra egingo eta berdintasuna diotenean uniformizazio hatsa jariatu. Galde Kaskarotenian, han badakite berdintasun txarto ulertu hori zeinen krudela den, zeinen iluna, zeinen hotza.

Bertso-ginkanak, izugarrizko arrakasta

Oso arratsalde berezia izan zen azaroaren 22koa. Debagoieneko Bertso Elkartearekin batera bertso-ginkana antolatu genuen. Izugarrizko arrakasta izan zuen, 50 parte-hartzailetik gora, eta, ondoko argazkian ikus daitekeen moduan, gazteek bikain pasa zuten.

KOMUNITATEA GOIENA
GAZTE TXOKOAK | ARRASATE



IMANOL SORIANO

100 €* irabazi nahi?

PARTE HARTU
LEHIAKETAN!

badagogauzazailagorik

2. SAIOA

Lortuko du? BAI ☐ EZ ☐

Izen-Abizenak:

Telefona: Posta-e



Moztu eta eraman Goienako edo AEDko egoitzetara.
Epea: abenduaren 2an, 13:00ak aurretik

* Saria Ibai-Arteko dendetan erabiltzeko
100 euroko bonua izango da.



**Badago hizkuntza-ohiturak aldatzea
baino gauza zailagorik.
Arrasaten, euskaraz.**



Arrasateko
euskalgintza



Mondraitz taldekoak —eta beste zenbait korrikalari— Besaiden, lasterketako ibilbidea probatu zuten egunean. | MONDRAITZ

Mondraitz, Udalatxerako mendi lasterketa antolatzea lehentasun

Eratu berri den kirol kluba Arrasate Udalatx Mendi Lasterketa prestatzen ari da apirilaren 19rako; izen-emateak urtarilean edo otsailean irekiko dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Mondraitz izenarekin, kirol klub berria sortu da Arrasaten. Asfaltan zein mendian korrika egiteko zaletasuna duten zenbait arrasatearrek sortu dute: Iker Sarabia, Juanpe del Pozo, Markel San Migel, Eneko Urrizalki, Iñigo Altzola, Joseba Onsoño eta Iban Aranguren dira taldea abiarazi dutenak. Oraindik ez dute aurkezpene ofizialik egin eta oraingoz herri lasterketa bat antolatzea da kluba bera existitzearen arrazoia.

Arrasate Udalatx Mendi Lasterketa antolatzen dihardute 2015eko apirilaren 19rako. Ibilbidea "oso polita" izango da, antolatzaileen arabera: Herriko plazatik abiatuta Udalatxera igo, Txukurillotik —Udala— jaitsita Besaiderraino, eta Besaidetik Arrasatera, Herriko plazan amaitzeko. 21 kilometro inguru dira, maratoi erdia, eta 1.300 metroko desnibel positiboa duena: "Proba gogorra izango da, baina oso polita. Ibilbidean pare bat sekretutxo daude aurrerago jakinaraziko ditugunak", adierazi du Iker Sarabiak. Lasterketa herrikoa izatea gura dute baina dagoen

neko badakite maila altuko korrikalariak ere etorriko direla: "Horietako batzuek esan digute etorriko direla", baieztatu du Sarabiak.

Laguntza eta babes bila

Oraindik ez dute egunik zehaztu, baina urtaril amaieran edo otsailean irekiko dute izen-ematea. Korrika egiten adituak dira, baina ez horrenbeste halako proba bat antolatzen: "Astero elkartzeko gara. Zailena da enpresa handien laguntza jasotzea; esango nuke enpresa handiak hemen ez daudela ohituta halako probak babestera. Denda txikiak eta enpresa ertainak izango dira seguruenik gehien lagunduko ditugunak". Udalarekin ere jarri dira harremanetan eta proiektua dagoeneko aurkeztu dute udaletxean. Udaletik printzipioz baiezkota eman diete diru-laguntzarako, oraingoz zenbatekoa izango den ez dakiten arren: "Pozik gaude alde horretatik, erantzun ona jaso dugu-eta".

Orain buru-belarri ari dira apirilaren 19ko lasterketa antolatzen: "Taldea eratuta dagoen

arren, orain, lehentasuna, lasterketa da guretako", dio Mondraitz klubeko kideak. Aurrerago kluba ofizialki aurkeztuko dute; hori bai, aurreratu dute ateak irekita izango dituztela lagundu gura duen edonorendako.

Esaterako, Arrasate Udalatx Mendi Lasterketarako ere boluntarioak beharko dituzte ibilbidea markatzeko eta jan-edan postuetan egoteko, besteak beste. Hala, deialdiak aurrerago egingo dituzte.

Azkoitiko Matadeixetik gaztetxeko agertokira

Eguen honetarako 1992an jaiotako Akauzazte taldea gonbidatu du Kooltur Ekintza taldeak

J.B. | ARRASATE

Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan Azkoitiko Akauzazte talde beteranoak joko du eguean, gaztetxean (22:00). 1992an sortu zen taldea, Azkoitin horren famatua den hiltegi zaharrean, Matadeixe etxe okupatuan. 1993an eman zuten lehen kontzertua eta ordutik hainbat aldaketa izan dituzte taldean; zazpi edo zortzi lagun izatetik lau izatera pasatu ziren eta 2004a ezker hirukote moduan aurkeztu izan dira zuzenekoetan. Hala ere, Arrasatera bostkote moduan etorriko dira: bi

bateria, bi gitarra, baxua eta teklatura. Saillatzeko zailak dira Akauzazte taldearen doinuak; noise edo post-rock moduan defini daitezke.

Beste bi kontzertu

Abendurako beste bi kontzertu lotu dituzte Kooltur Ekintza-koek. Abenduaren 11n txalaparta eta flamenkoa nahasten duten Berriketan taldea dator; eta hilaren 18an, berriz, Bergarako Fly Shit. Talde bergararra disko berriarekin etorriko da Arrasatera, *Barneko ahotsaren bila* izenekoa.



Akauzazte taldearen zuzenekoetako bat. | KOOLTUR EKINTZA

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress



"Pertsona bezala, ez dituzte baloratu dirua, harrokeria..."

RIP taldiez idatzi euen Javi Sayes-ek (*Destruye*): "Zenbat bider jo zuten 'por milki!'. Gasolina ordaintzeko adina... kotxea hartu eta fuego".

Holan definidu euen talde haren eragiñe: "RIP taldeak rock munduan ateak zabaltu ditu, gero beste talde batzuk bide musikal horretan ari ahal izateko. Aipatzekoa da taldeak izan duen arrakasta eta nola gorde den arrakasta hori".

Beti erreperitorioa iguela eukitze be, klaru euen zergatik errespetetan euen jentiek RIP: "Musikari

dagokionez, goi mailako poesia eta munduaren ikuspegi zorrotza lortu dutelako; eta pertsonak bezala, ez dituztelako baloratu gaur egun hain ohikoak diren balioak: dirua, harrokeria..."

1988xen separau ostien, Txerra eta Jul anaiak transportista ibilli zien Mondraue eta Bilbo artien, Mahoma autobus-konduktore eta Portu bizikletan ibiltzen zan sarri herrixen gora eta behera.

Zenbaki berezixe (sanjuanak) 1990-06-22

Udala plazatik Garaiara arteko bidea etzi hasiko dira asfaltatzen

Eguraldiak laguntzen badu, Udalak etzi jarriko du martxan aurtengo asfaltatze-plana. Uri-barri etorbidean hasiko dira, Udala plazako biribilgunetik Garaia Berrikuntza Guneko sarrerarako errepide tartean. Aurten egingo diren beste asfaltatze-lan garrantzitsuenak izango dira Alfonso VIII. kalean, Fagor Etxetresnen parean —pitzadura bat konpontzea—, Kontzeziño kalean, Araba etorbidean eta Gipuzkoa etorbidean. Yarritu enpresari esleitu zitzaizkion lanak eta lan guztien aurrekontua da 276.087 eurokoa; zati handiena Diputazioak ordainduko du.

Azken egunak Hiesaren aurkako argazki lehiaketarako

Gaur da Hiesaren aurkako eguna. Sexologia Zerbitzuak hainbat ekintza antolatu ditu egun horren harira beste hainbat erakunde eta eragilarekin batera. Besteak beste, argazki lehiaketa antolatu dute abenduaren 5era arte. Muxu baten argazkia bidaliz gero lau sariren zozketan sartzeko aukera egongo da; muxula-benduak1@gmail.com helbidera bidali behar da. Adinen arabera ezberdinak izango dira sariak: *Kili Kontuak* ipuin bilduma; *Sua eta Pareko* jolasak; zortzi lagunendako irteera bat; eta produktu erotikoez osatutako otarra.

Emakumeen aurkako 65 indarkeria kasu artatu dituzte 2014an Bergaran

Gizarte-arazoaren dimentsioaz jabetuta, herritarrek hainbat ekintzarekin erantzun diote egoerari

M.T. | BERGARA

Urtea hasi zenetik, udal zerbitzuek eta Ertzaintzak jasotako emakumeen aurkako indarkeria kasuak 65 direla jakinarazi du Bergarako Udalak. Izan ere, azaroaren 25a dela eta, txostena kaleratu du, herriko emakumeen aurkako indarkeriaren datuak bilduz. Kasu gehienak bikoteki-deak edo bikotekide ohiak eragindakoak izan dira, eta emakume gazteenganakoak (18-30

urte artekoenganakoak, %44). Horrez gain, argitaratu dute, gizarte zerbitzuen arabera, gehienetan indarkeria psikologikoa izan dela, kasuen %58a, hain zuzen ere. Indarkeria fisikoko erasoak, berriz, kasuen %38tan gertatu dira, eta erasorik ezohikoena ekonomikoa izan da, kasuen %4a.

Aipagarria da, baita ere, erasotzaileen gehiengo zabala EAE-ko zela, %64a, hain justu.

Edonola ere, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, bergararrek ezezkoa eman zioten indarkeria mota horri, eta zenbait ekintza izan dira herrian azken egunotan.

Herritarren erantzuna

Antzerki eta film emanaldiekin, Beldur Barik lehiaketan parte hartuz, mural bat margotuz eta hainbat kolektiboren hausnarketan bidez argi erakutsi zuten

bergararrek emakumeenganako indarkeriaren kontra daudela.

Ezin da ahaztu, ezta ere, hezkuntza sektoreak egindako lan-keta. Besteak beste, Ipintza institutukoek elkarretaratzea egin zuten azaroaren 25ean. Hori bakarrik ez, gaur bertan, herriko eskoletako DBH 4.mailakoek *Jokoaut* antzezlan izango dute aztergai. Obrak gazteen arteko indarkeria du hizpide, eta ezta-baida irekitzea helburu.

Herritarrek abenduko kultura gidan berrikuntza ugari igarriko dituzte

Gabonak iritsi aurretik geratzen diren asteetan Bergara Biziren kanpaina izango da protagonista

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Abendua ohituraz betetako hila-betea da: Olentzero, afari eta bazkariak, familia... Bergaran, baina, abenduari beste buelta bat eman diote, hilabeteak duen izaera albo batera utzi gabe.

Kaleak pizteko kanpaina

Abenduaren 4an piztuko dituzte herriko kaleak. 18:00etan iritengo den argi kalejira baten erritmorra, merkatariek eta ostalariek

euren atarietako argazkiak piztuko dituzte. Trikitilari eta Musiraka taldeek egingo duten kalejira 20:00etan plazan bukatuko da, eta han, argia protagonista izango den ekitaldia egingo da.

Egun berean izotz pista irekiko dute, eta bertan irristatzeko txartelak Bergara Biziko denda eta tabernetan banatuko dituzte, erosketa bakoitzarekin.

Hilaren 13an, aldiz, Bergara Bizi festa egingo dute. Goiz horre-



Pazkoetan egin zen gazteen dantza solte txapelketa. | GOIENA

tan kaleetan desfilea egingo dute eta eguerdirako bingo herrikoia antolatu dute San Martin plazan.

Dantza solte txapelketa

Pazkoetan egin ohi zen Euskadiko bikote gazteen dantza solte lehiaketak abendura egin du salto: abenduaren 14koa 37. txapel-

keta izango da eta erkidego osotik etorriko dira bikote gazteak. "Gazte mailako txapelketa erreferentea da gurea", dio Amaia Agirrek, Moiazpi taldeko kideak. Bada, 18:00etatik aurrera, bikoiteek eskertu egingo dute Udal pilotalekura joaten diren ikusleen berotasuna.

Animatzen al zara herriko dendarien Idazlaguna izatera?

KOMUNITATEA GOIENA | MAITENA ARANA

ZAHAR-BERRI | ARRASATE

Martxan da *Idazlaguna* programa. Helburua, denda, jatetxe, taberna eta abarretako kartelak euskaraz izatea. 120 dendaritik gora dira izena eman dutenak. Orain boluntarioak behar ditugu, idazlagunak, beharra duten merkatariei idatziok euskaraz jartzen lagunduko dietenak. Nahiko genuke boluntario-talde handi bat osatzea. Dagoeneko 50 inguru baditugu baina gehiago nahi genituzke. Heldu gaitezke 100era? Zergatik ez?

Baldintzak

Boluntarioei eskatuko zaien egin-kizuna oso sinplea da: 2-3 dendatako idazlaguna izatea eta dendari batek hizkuntza paisaiako elementu bat jarri behar duenean, euskaraz jartzeko laguntza eskaintzea. Pentsatzen dugu hainbat kasutan oso lan txikia izango dela, denda askok oso kartel gutxi jartzen duelako eta kartel horiek

gehienetan errepikakorrak direlako. Nahi izanez gero, lana bakar-kaka egin ordez binaka edo taldean ere egin ahal izango da. Laguntza emateko modua bera ere modu askotakoa izan liteke: zuzenean dendara joanda, emailez, whatsapp-... Dendariak eta idazlagunak adosten dutena.

Ez dugu eskatzen filologoa edo euskara irakaslea izatea idazlaguna izateko. Boluntarioek edozein zalantza kontsultatzeko bitartekoak jarriko ditugu: zalantzak azaltzeko foro bat, Udaleko Euskara Zerbitzura edo Jardu-nera jotzeko aukera, testurik arruntenak egongo diren webgune bat... Pentsatzen dugu, horrela, zenbait kasutan boluntarioentzat ere euren burua janzteko modu polit bat izan litekeela.

Izena emateko, 605 71 24 69 edo 943 76 36 61 telefonoetara deitzea besterik ez dago. Bestela, jardun@topagunea.com helbide elektronikora ere idatzi daiteke. Animatuko zara?

Angiozar Herri Eskolan aste osoan zehar ospatuko dute euskararen eguna

M.T. | BERGARA

Euskararen Nazioarteko Eguna eguaztenean bada ere, gaur ekingo diete ospakizunei Angiozar Herri Eskolan. Guztien artean, euskararen aldeko lelo bat aukeratzeko dute, joan den astean ume bakoitzak etxekoekin egingdakoen artean, egubakoitzean argazkia ateratzeko gurasoekin.

Bihar, gazta freskoa egingo dute guraso tailerrean, eta etzi, euskararen egunean, egubakoitzeko argazkia antolatuko dute,

leloa osatzeko hizkiak eginez, besteak beste.

Eguenean, berriz, gurinezko galletak prestatuko dituzte, egubakoitzean herri kirolen eta argazkiaren ondoren banatzeko.

Egunero, asmakizuna

Aste osoan zehar, asmakizun bat irakurriko dute egunero, 09:00etan. Ondoren, haur bakoitzak bere erantzuna proposatzeko aukera izango du, idatzi eta kutxa batean sartuta.

Tea, gaztainak eta euskara eskutik helduta, Oxirondoko hileko lehen eguazteneko azokan

Hileko lehen eguazteneko bezala, azoka egingo dute Oxirondon, abenduaren 3an, baserritarren eta bertako ekoizleen produktuekin. Oraingo honetan, ordea, tea hartzeko aukera ere izango da azokan bertan, auzoko emakumeen eskutik, 18:30ean hasita. Ondoren, 19:00etan, danbolinean gaztainak erreko dituzte, eta nahi duenak dastatu ahal izango ditu.

Gainera, Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, Jardun elkarteak hainbat ekintza antolatuko ditu azokaren bueltan.

NIRE USTEZ



ASIER ELORTZA

'Mortadelo eta Filemon'

Joan zen astean, espero ez nuen opari bat egin zidaten. *Mortadelo eta Filemon*-en abenturen komiki bilduma bat. Egin nuen lehenengo gauza liburua ireki eta orriak usaintzea izan zen. Zenbat oroitzapen... zoriontasunaren usaina!

Amak askotan gogorazten dit, nire gelara etortzen zenekoa, korrika eta ardurata barre algarak entzutean. *Rompetchos*-en komikiak irakurtzen ari nintzela ikus-tean, lasai bueltatzen zen ohera, zoratuta nengoen galdezka...

Francisco Ibañez da umetan irakurtzen nituen komiki gehienek sortzailea: *Sacarino*, *Pepe Gotera*, *Rompetchos*, *Mortadelo eta Filemon*... Argi daukat umorea ulertzeko moduan eta nire jakin-mina garatzen eragin handia izan zuela, gaztelaniazko hiztegia aberasteaz gain. Oraindik idazten jarraitzen du eta nik berarekin barre egiten.

Sentsazio horiek nire alabei transmititzen ahalegintzen naiz eta gau batzuetan beraiekin etzaten naiz *Rompetchos* eta *Mortadelo eta Filemon* irakurtzeko. Uste dut beraiek ere pixka bat zoratuta nagoe-lapentsatzen dutela...

Eskerrik asko, Ibañez... eta eskerrik asko oparia egin zidanari.

Badaude beste batzuk nire hezkuntzan asko lagundu zutenak ere: Marx anaiak, Clint Eastwood, Tintin, Asterix, Bud Spencer eta Terence Hill... baina horiek beste baterako utziko ditut.

"Sentsazio horiek nire alabei transmititzen saiatzen naiz"

OHARRAK

55EKO KINTOEK BAZKARIA EGINGO DUTE

1934an jaiotakoek –55eko kintoak– urtero egiten duten bazkaria egingo dute abenduaren 6an. Batzokian izango da. 14:15ean elkartuko dira batzokian bertan, bazkaldu aurretik talde argazkia egiteko. Izena emateko, deitu 943-76 24 54 telefono zenbakira (Luis).



Udalbatzako kideak egunean egindako osoko bilkuran. | IRATI GOITIA

Artia mendian ez da pinurik landatuko aurrerantzean

Biodibertsitatearen aldeko apustuaren alde agertu da udalbatza

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Artia mendiaren plangintza onartu zuen udalbatzak egunean egin zuten azaroko osoko bilkuran. Gai zerrendatik kanpoko gaia izan zen eta aho batez onartu zuten bi alderdiek.

Herri onurarako lurrak

"Basogintza Herrijorran ekimean erabaki zuten herritarrek Artia mendirako zer gura zuten. Han erabaki zuten, esaterako, aurrerantzean ez dela pinu landaketarik egingo. Orain dauden zikloa beteko da, baina landaketa berriak egiten direnean, hosto zabaleko zuhaitzak landatuko dira, pagoak, haritzak edo ametsak, adibidez. Hori osoko bilkurak onartu zuen aho batez eta orain, Gipuzkoako Aldundiarekin batera egindako plangintza adostua onartu da", azaldu zuen alkatetza, Mikel Biainek.

Izan ere, titularitatea Udalarena izan arren, kudeaketa Aldundiarena da eta bien artean egin dute plangintza, Eguzkigintzaren laguntzarekin. "Lana ondo dagoela uste dugu guk ere eta jasota dagoenaren alde egiten dugu. Hala ere, uste dut plangintza honek bultzada politikoa behar duela. Esperientziagatik diogu hori", adierazi zuen bozeramaile jeltzaleak, Lourdes Idoigak. Bildu ere ados agertu zen proposamen horrekin.

Oñatik 108 metro karratuko azalera du eta herri onurarako lau baso: Aloña, Iturrigorri, Araotz-Txikilaleku eta Artia. Iturrigorri, egun, heziketara dago bideratuta Life programarekin; Aloñan herriko abeltzainek euren abereak larreratzen dituzte. Orain, Artiako plangintza zehaztu dute eta Araotz-Txikilalekun ere antzerak jokatzeko dela asmoa adierazi

zuen Biainek osoko bilkuraren amaieran.

Biolentzia eta merkatarik

Apaolaza Alarguna kalea aurrerantzean Maria Irizar kalea izatea ere onartu zuten. "Jerardo Elortzak idatzitako artikulua batean irakurrita hasi ginen horri bueltak ematen. Egun onartezina da emakume bat norbaiten alaba, alarguna edo iloba delako bakarrik onartzea. Beste hiruzpalau kale ere badaude emakume izenak dutenak herrian, elizari lotutakoak, baina hau deigarria irudituzitzaigun eta horregatik hartu dugu erabakia", adierazi zuen Maialen Urtzelaiak. Emakumei zuzendutako biolentziaren aurkakako Bilduren mozioa eta, Txandak aurkeztuta, etorri turistiko handiko gunetan merkataritza ordutegia zabaltzearen aurkakoa ere aho batez onartu zuten.

'Grunge Death' asteburua egingo dute gaztetxean hilaren bukaeran

O.E. | OÑATI

Musika hitzordu asko antolatu dituzte Antixena gaztetxean abendurako. Horietako bat, Nirvana edo Alice in Chains bezalako taldeen kantuak joaz egingo dute *Grunge Death* asteburua. Abenduaren 26an eta 27an izango da hori eta herriko hainbat musikaririk Seatlen sortutako musika omenduko dute.

Arrasateko neskak

Hileko lehen musika kontzertua, baina, abenduaren 5ean, egubakoitza, izango da. Perlak (Zarautz) eta Borrokan (Bera) taldeek joko dute; 22:00etan hasiko da kontzertua.

Abenduaren 12an, berriz, Arrasateko Ain_1 taldeak joko du, Kubako Jade bikotearekin batera. Arrasateko taldea bost neskek osatzen dute. Hona: Ainara Kortabarria, Iraitz Agi-

rre, Maialen Madariaga, Itsaso Nabaridas eta Amaia Pavon. Musika eta poesia irakurraldi bat eskaintzeko jaio zen proiektua, eta *Badoa*, *Badirau* izena du egin duen azken lanak.

Presoekiko elkartasun kontzertua ere egingo dute hilaren 20an, eta urte berria DJ jaialdi batekin hasiko dute.

Telleria eta Martinez

Musikaz gain, baina, *Ertzaintzaren oinarriak desmontatzen* eskola ere antolatu dute abenduaren 6rako; eta 29an, mendi irteera egingo dute.

Abenduaren 4an, bestalde, egunean, Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreak etorriko dira, Euskararen Eguna-ren harira antolatu den *Entxufatuak* antzezlan egitera; 19:30ean hasiko da.



Nirvana taldea. | WIKIPEDIA.ORG

Jostailu azokan trukatu ahal izateko materiala batzen egongo dira bihar arratsaldean Txalokan

Abenduaren 13an egingo du Txalokak jostailuen truke azoka eta harako materiala jasoko dute bihar, martitzena. Ludotekara eraman behar dira, 16:45etik 19:45era. Egoera onean dauden eta sexistak ez diren jostailuak jasoko dituzte. Euren truke, txartelak emango dizkiete umeei, hilaren 13an Foruen plazan egingo duten azokan beste jostailu bategatik trukatzeko.

Etzi, eguaztena, da azken eguna Gabonetako erakusleihu lehiaketan izena emateko

Abenduaren 7an hasiko da aurtengo Gabonetako erakusleihu lehiaketa eta parte hartu gura duenak abenduaren 3a aurretik bete behar dute horretarako izenemate orria eta entregatu honako lekuetan: udaletxeko harrera bulegoan, turismo bulegoan edo enplegu sailaren bulegoan, Bidebarrieta 12. Abenduaren 7rako apainduta egon beharko dira lehiaketan parte hartuko duten erakusleihuak. Zazpi sari emango dituzte aurtun.

Kopagoaren inprimakiak betetzen lagunduko duten bi pertsona egongo dira bihar Lagun Lekun

Kopagoa kobratu ahal izateko aurkeztu behar diren inprimakiak betetzen lagunduko duten bi pertsona egongo dira bihar, martitzena, Lagun Lekun, Eteon, 19:00etatik aurrera. Inprimakia betetzeko bete behar den baldintza da urtean 18.000 euro baino gehiago ez kobratzea. Eraman beharreko dokumentuak dira: kontu korrontearen zenbakia, NANaren fotokopia eta osasun txartela.

NIRE USTEZ

MAITE IRIZAR



Zergatik?... ba horrela delako!

Badut 4 urteko iloba bat, Nora. Elkartzen garenetan, beti segika izaten dudana; "Tia Maite, Tia Maite"... Irribarre batekin, bihotza segundo erdian konkistatzen duen sorgin horietako bat da geurea ere.

Baina aspaldian, adinari propio zaizkion galderak egiten dizkit. Hau ikusi edo bestea,

galdera beti da: zergatik? Erantzunarekin asetu ez, eta berriro, baina, zergatik?

Atzo, elkarrekin geundela, galderaka hasi zen. Hori zergatik? Eta bestea zergatik? Erantzun bat, ondoren bestea...

Baina galdera baten erantzuna, "ba horrelaxe delako" batekin bukatu nuen. Ulertu ala ez, pentsakor gelditu zen eta galderak amaitu ziren.

"Bada denbora bat neu ere iloba bezala nabilela. Zergatien bila"

Bada denbora bat, neu ere iloba bezala nabilela. Zergatien bila. Han eta hemen galdera berdina buruan: zergatik?

Erantzunen bilaketan ilobaz gogoratu naiz. Beharbada, itaunketa hau amaitzeko, onartu eta "ba horrelaxe delako" batekin konformatu beharko dut.

Hala ere, haren inozentzia eta nire errazionalizazioa ezin alderatu. Nik, galderen erantzun posible guztiak bizi, aztertu eta landu ditut. Beraz, zaila zaidan arren, adinari propio zaidanari ekin beharko diot.

Irrazionala dela sentitu, ulertu eta ukatu dudan hori, zergati errazional bezala elikatu eta ez, inozentzia errazional bezala.

ARETXABALETA

Hanzhi Wang txinatar akordeoilaria, abenduko kultura egitaraua hasteko

- 2013ko Arrasate Hiria txapelketa irabazi zuen
- Lau antzerki emanaldi ere egongo dira

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA
Aretxabaletako Udalak kaleratu du abenduko kultura egitaraua. Askotariko ekitaldiak egongo dira urtea bukatu aurretik. Lehenengoan, Hanzhi Wang izango da protagonista. Txinatar akordeoilariak 2013ko Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa irabazi zuen, maila bikaina erakutsita. Txapelketa hori irabazten zuen lehen emakumea izan zen, eta baita lehen txinatarra ere. Arrasateko aurtengo txapelketara egingo duen bisita

aprobetxatuz, kontzertua egingo du Arkupen abenduaren 7an, 13:00etan. Musikazaleek beste hainbat aukera izango dituzte abenduan. Leizarra musika eskolakoez hiru emanaldi egingo dituzte: 9an piano emanaldia (18:00, Arkupe); 16an Gabonetako kontzertua (19:30, parrokia); eta 18an bandaren zuzeneko (19:30, parrokia). Bestalde, Aretxabaletako abesbatzak bi kontzertu egingo ditu: 21ean sopranoarekin eta organistekin (19:30, parrokia) eta 27an Gabo-

netako kontzertua (19:30, parrokia). Abenduko azken musika proposamena Fermin Valenciaren kontzertua izango da: 30ean, Arkupen, 19:30ean. **Erakusketa eta zinema** Antzerkiak ere badu lekua Aretxabaletako egitarauan. Hilaren 14an *Olentzeroren sekretua* antzez-lana egingo dute umeendako; 18an Txalo taldearen *100 metro karratu* lana; 27an, Doke taldearen *Galderak*; eta 28an tobera, bailarako antzerki satirikoa.



Hanzhi Wang iazko Arrasateko lehiaketa irabazi ostean. | JOSETXO ARANTZABAL

Bestalde, zabalik dago kultura etxean *Elkar ezagutzetik, elkar aitortzera. Herriz herri zubiak eraikitzen* delako erakusketa. Ikusgai dago hilaren 30era arte.

Azkenik, zinemazaleek izango dute zerekin gozatu urtea bukatu aurretik: *Relatos salvajes, Perdida, Dixie eta matxinada zonbia, Fuego...*

NIRE USTEZ

PALOMA MARTINEZ



Zuhaitzei begira

Udazken honetan zuhaitzei begira nago eta inbidia ematen didate. Haiek urtero-urtero aldatzen dituztelako hostoak, oso era dotorean, gainera. Haizea dabilenean, udazkeneko bertsoak botatzen dituzte dantza eginez. Egun bat eta beste bat abesten eta dantzatzen beren hostoak agurtzen, biluzik gelditu arte. Biluzik eta

tente. Beren baitan indarrak batzen.

Bene-benetan gustatuko litzaidake, haiek egiten duten moduan, pentsamentu eta sentimendu guztiak berritzea. Hainbeste ikuspuntu, ideia, iritzi, eta bar dauzkat buruan, honezkero ez dakit egiten ari naizenaren arrazoia nondik datorkidan.

Horretarako geldi egon behar naiz. Geldi eta nire baitan gor-

"Haizearekin, bertsoak botatzen dituzte dantza eginez"

deta dagoen guztia eskura, haizeak jotzen duenean botatzeko prest. Dena dela, bizitzak ez daki geldituz egoten.

Aste honetan, adibidez, neska-mutiko taldetxo bat "no le pegues, matala" oihuka ari zen Herriko Plazako barandatik. Klean neska atzerritar bat korrika zihoan, eta bere atzetik mutil bat barrezka.

Mutikoaren parean gelditu nintzen eta hark buelta eman zuen eta plazarantz joan zen. Plazan zeuden neska-mutilkoek jarraitu zuten euren oihuekin ni ikusi arte. Garbi dago, haiek gaizki dagoela badakite; hala ere, egin zuten eta, ziur aski, berriro egingo dute. Zergatik? Zer gabilza gaizki egiten?



IKER BARANDIARAN

Bertsolaritzaz eta literaturaz

Eneko Barberenak eta Manex Agirrek hasi zuten egunean Ostegun Kontalariak ekimena. Bertsolaritzaren eta literaturaren gaineko hausnarketa egin zuten biek bakarrik bidez. Bertsolaritzak azken urteetan izan duen gorakadaz egin zuten berba, eta baita literaturak bizi zuen egoeraz ere.

ESKORIATZA

Telesko fundazioa desegiteko hasierako onarpena

Telesko Udal Telebista Fundazioa izeneko organismo autonomoa desegitea onartu zuen Eskoriatzako udalbatzak urriaren 28an egindako osoko bilkuran, hasierako izaerarekin. Fundazioa desegiteko data 2014ko abenduaren 31 da. Hortik aurrera, Udalak telebanaketa zerbitzua bere gain hartuko du.

Hartutako erabakia jendaurrean dago, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzan. Halakorik egonez gero, horiei buruzko erabakia udalbatzak hartuko du. Bestela, behin betiko onartuta gertatuko da.

Frontoiko paretetan irudiak margotzeko auzolana familian

Abendurako hainbat ekintza esku artean ditu Eskoriatzako Udalak. Euskara eta Gazteria Sailak familian egiteko auzolana antolatu du abenduaren 13rako. Asmoa da herriko familiak elkartu eta frontoiko paretetan irudiak margotzea. Pilotalekuari itxura berritua emate aldera, askotariko pinturak ipiniko dituzte gurasoen eta haurren esku. 17:00etan elkartuko dira guztiak pilotalekuan bertan.

Auzolana bukatu ostean, eta eguna borobiltzeko, Tor magoak ikuskizuna egingo du parte-hartzaile guztiendako. Umeekin askotariko trukuak egingo ditu.

EskoHitzari buruzko erakusketa zabalik hilaren 1etik 5era

Azaroaren 8an egin zen EskoHitzari buruzko informazioa duen erakusketa ikusgai egongo da gaurtik egubakoitzera arte. Bi informazio mota dago: alde batetik, orain arte egingdako proiektuen balorazioa eta datozen hiru urteetarako eskoriatzarrek egindako ekarpenak; eta beste alde batetik, lau proiekturi buruzko informazioa. Horien gaineko iritzia eman behar dute eskoriatzarrek: kiroldegiko kanpoko igerilekua, Intxaurtxueta haur parkea, auzokonposta eta erdiguneko zirkulaziorako proposamen berria. Erakusketa zabalik egongo da 10:00etatik 20:00etara arte.

Euskararen Egunaren harira azken ekitaldiak egingo dituzte herrian

Aurreko zapatuan hasi ziren Euskararen Eguna ospatzen herrian. Bada, azken ekintzak etzi, Euskararen Egunean bertan, egingo dituzte. Goizean zehar Herriko Plaza apaindu egingo dute, eta arratsaldean herritar guztiendako ekintzak izango dira: 16:30ean gaztaina erreak Luis Ezeiza eskolako jolaslekuan; 17:00etan buruhandiak leku berean; 17:30ean haurrendako askotariko jolasak eta jokoak pilotalekuan. Azkenik, spinning saio irekia egingo dute pilotalekuan, euskaraz (19:00).

Bestalde, egunean, hilaren 4an, kantu kalejira egingo dute. Kalerik kale ibiliko dira herriko hainbat musikari euskal kantuak abesten.

Zabalik, orri-puntuen lehiaketara lanak aurkezteko epea

2015ean Udal Bibliotekan erabiliko den orri-puntua aurkezteko lehiaketa martxan da. Lanak bibliotekara eraman beharko dira abenduaren 12a baino lehen. Lehiaketan parte hartzeko ez da adin mugarik ipini eta nahi beste lan aurkez daitezke. Parte-hartzaileek teknika eta gai libreak erabili ahal izango dituzte.

Epaimahaiak aukeratzen duen lanak 150 axtroki jasoko ditu sari modura eta liburutegiko 2015eko orri-puntua izango da. Liburutegian banatuko dituzte. Bestalde, epaimahaiak egoki ikusten badu, aurkeztutako lanekin erakusketa egingo du.



Ikasle talde bat eskolako jangelan bazkaltzen. | SAN MARTIN ESKOLA

ARAMAIO

Eskolako jangela zerbitzuaren eredua aldatzeko, talde eragile bat sortu guran

Bertako jantokian 90 bat ikaslek bazkaltzen dute aurten; zerbitzua gurasoek kudeatzeko Jaurlaritzaren laguntza beharko lukete, kostua "handia" delako

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Ez da kontu berria San Martin eskolan jangela eredua aldatzeko proiektua. 2014-2015 ikasturtean 90 bat dira jangela zerbitzua erabiltzen dutenak. Zerbitzua *catering* enpresa batek kudeatzen du gaur egun eta eskolako guraso elkarteak aspalditik ari da zerbitzua aldatu edota eurek kudeatzea aztertzen: "Beste hainbat eskolatan janaria kanpotik etortzen da prestatuta. Hemen jaki asko eskolan bertan prestatzen dira, baina lehengaiak *catering* enpresa batek jartzen ditu. Gure asmoetako bat litzateke lehengaiak ere bertakoak izatea; horrek balioko luke, besteak beste, bertako produktuei beste irteera bat emateko", uste du guraso elkarteak Amaia Irizarrek.

Esperientziak ezagutzen

Azaroaren 26rako hitzaldia antolatatu zuten eskolako liburutegian, egun funtzionamenduan dauden beste esperientzia batzuk ezagutzeko. Orduñako Udalaren sukalde proiektua, Durangoko Kuru-

tziaga ikastolako jangela eredua eta eskola jantokietan elikagai ekologikoak eta menu orekatuak txertatzeko Ekolapikoa programa ezagutzeko aukera izan zuten hitzaldi hartan: "Bestelako esperientziak ezagutzeko aukera izan genuen. Era berean, orduko eredua aldatu eta gaur egungoa lortzeko zelan borrokatu diren ere ikasi genuen. Hemen badugu zer ikasi eta zer aprobetxatu esperientzia horietatik", dio Irizarrek.

ESANAK

"Lehengaiak ere hemengoak izanda, bertako produktuei beste irteera bat ematea lortuko genuke"

AMAIA IRIZAR | GURASO ELKARTEA

"Onena" eta "merkeena"

Azaroaren 26ko saiora ez zen guraso askorik agertu; jendetsua goa izan zen, ordea, otsail amaieran egin zuten bilera. Bilera hartan bi helburu nagusi zehaztu zituzten: haurren kalitatezko elikadura bermatzea eta herriko ekonomia sustatzea. Guraso elkarteak ez dute uste "justua" denik Jaurlaritzaren dekretu batek Aramaiori behartzea jangela eredua. Hala, eskatzen dute eredurik ez inposatzea eta baliabide zein laguntza berak eskaintzea eredu guztiei. Izan ere, zerbitzua eurek kudeatuz gero, aldea gurasoek ordaindu beharko lukete, eta hori, diotenez, "sekulako karga ekonomikoa" da, Aramaioko guraso gehienendako "jasanezina".

Etorkizunari begira talde eragile bat sortu gura dute; gurasoek, baserritarrek eta beste eragileren batek osatuko lukete. Izan ere, guraso elkarteak uste du bertako eredua "onena" izateaz gain "merkeena" ere badela, Jaurlaritzak orain arte izan duen plana aldatzen badu.

horrela, ekarpenak egiteko dituzten herritar guztiak gonbidatu gura ditut", esan du Ima Beristain alkateak.

Karta txapelketak

Landatxope erretiratuen elkartearen lehia bizia izango dute aste honetan. Izan ere, atzo, domeka, gaztaina erre jana egin ostean, karta jokoen txapelketak izango dituzte gaurtik egunera arte. Gaur puntxo, bihar briska, etzi tute eta egunean mus txapelketak jokatu dituzte. Antolatzaileek esandakoaren arabera, txapelketa guztiek astean hasi, baina bukatuta egon behar dute abenduaren 9rako.

ELGETA

Euskararen Egunarekin lotuta argazki erraldoia egin nahi dute Elgetan

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak kideek, berriz, Kultura Asteko ekintzak hasiko dituzte asteen

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aurreko astea ezker ari dira ikasleak, irakasleak eta gurasoak Euskararen Egunean ekin-tzak prestatzen. Eskola egun berezia izango da eguaztena, abenduak 3, goizean goizetik. Jokoen eta askotariko ekintzen bitartez euskarak duen garrantziaz ariko dira neska-mutikoak.

Herritarrek 16:00etatik aurrera egingo diren ekintzetara gonbidatu dituzte bai Maala guraso elkarteak bai Udalak. Kantuak abestu eta dantzatuko dituzte, jokoak egingo dituzte plazan guraso elkarteak antolatuta, eta 17:00etan txokolate-jana egongo da guztiendako. Ondoren, argazki erraldoia atera gura dute herritarren laguntzarekin. Euskal Herriko mapa

irudikatu nahi dute. Mapa lurrean margotuko dute, eta herritarrek gainean kokatuz osatuko dute irudi erraldoia. Herritar bakoitzak *Euskarak 365 egun* dioen kartela erakutsiko du. Ekintza horretan parte hartzera gonbidatu dituzte herriko gainerako eragileak.

Erretiratuen Kultura Astea

Xalbadorpe elkartearen, berriz, asteen emango diote hasiera 2014ko Kultura Asteari. Eguaztenterako, abenduak 3, *Novedades en la Villa Titiritaina* antzez-lana iragarri dute Espaloian, 17:30ean. Oñatiko Ikusi Makusi taldeak egingo du emanaldia. Eta barikuan, abenduak 5, bingoa egingo dute erretiratuek, 17:00etan, Ozkarbi elkartearen.

Abenduaren 9ra atzeratu du Mankomunitateak bilketa sistema berriaren ezarpena Elgetan

Gaurko, astelehena, zegoen aurreikusita hiri-hondakinak batzeko sistema berria Elgetan. "Debagoieneko Mankomunitateak jakinarazi digu abenduaren 9an ekingo diola sistema berriak", azaldu zuten Udaletik bariku goizean. Horrenbestez, astebete atzeratuko da sistema aldaketa. Bestalde, esan beharra dago 113 txartel daudela jasotzeko udaletxean. Etxebizitza guztiek dute egokituta txartel bana, bina kubo eta hiztegi bat. Hala, udal arduradunek eskatu diete materiala jaso barik duten herritarrei udaletxetik lehenbailehen pasatzeko.

LEINTZ GATZAGA

Zirkulazioaren gaineko ordenantza ikusgai dago

Joan den astean jarri zuten iragarkia kontzejupean, eta bulegoan kontsulta daiteke

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Interesa duten gatzagarrek datozen asteotan kontsultatu ahaliko dute udalbatzak onartutako zirkulazioaren gaineko ordenantza. Legeak agintzen duenari jarraiki, aukera dago, era berean, ordenantzarekiko alegaziorik balego, horiek jartzeko. Eta hori bada kasua, udal gobernuak alegazioak aztertu eta erantzun egin beharko ditu.

Aparkalekuak eta beste

Gogoan izan zirkulazioaren gaineko ordenantzak (udalbatzarrek azaroan onartu duena) udalerriko abiadura mugak eta aparkatzeko guneak errespetatu egiten direla bermatzea dela helburua.

Hala, arauok errespetatzen ez dituenari lehenengo abisu bitartez jakinaraziko diote

arau-haustea, eta arau-haustea errepikatzen bada, orduan jarriko diote isuna. Edozelan ere, isuna jartzea ez da Leintz Gatzagako Udalaren lehen aukera.

Gaztainuzketako parkea

Bestalde, datozen asteotan hasiko dituzte Gaztainuzketako txabolen kanpoko aldean eraiki gura duten parkearen obrak. Diru-laguntza jaso du Udalak proiektu hori egiteko, eta horrek behartuta, urtea amaitu baino lehen hasi beharko dituzte lan horiek.

Abentura parke moduko bat eraiki gura dute Gaztainuzketan, aisialdi-gune hura neska-mutikoek jolasean ibiltzeko oso egokia dela kontuan hartuta. Hala, bestelako ziburu zaburuekin batera, tirolina jarriko dute bertan.

ANTZUOLA

Eraikin eta espazio publikoen diagnosia bukatzeko ekarpenak

Herritarren iritziak jasotzeko batzar irekia egingo dute abenduaren 4an Olaranen, 18:00etan

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Herriko eraikin eta espazio publikoen erabileraz hausnartzeko eta haiek aztertzeko prozesua abiatu zuen Udalak uztailan. Eraikinak eta espazioak zein egoeratan dauden, ze erabilera duten eta herritarren premietara egokitzeko egin beharrekoa zehazteko enpresa bat kontratatatu zuen Udalak.

Diagnosi horrek aurrera segitzen du. Baina udal arduradunen nahia izan da diagnosi hori herritarrekin partekatzea eta adostea. Hori horrela, batzar irekia egingo dute herritarren ekarpenak eta iradokizunak jasotzeko. Abenduaren 4an izango da, Olaranen, 18:00etan. "Batzar inportantea da. Herritarren iritziak entzuteko. Hori

Goiena Klubeko abenduko zozketak!

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



Arrasateko hipermerkatua



PS3

Sony Play Station 3 kontsola eta Invizimals The Lost Kingdom jkoa

Parte hartzeko sariaren izena:
PS3

www.harremandenda.org

Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra

Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra.

Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra



ARRIKRUTZ
o ñ a t i k o o b a k

Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikruz




argia

Jokoak

Kosmojet, 2 joko ditugu

Parte hartzeko sariaren izena:
Kosmojet



IRRIEN LAGUNAK KLUBA

Irrien Lagunak aldizkaria Aldizkariaren 15 ale.

Parte hartzeko sariaren izena:
Irrien Lagunak

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Hamabigarren jardunaldian lortu du Antzuolak lehenengo garaipena

- Atsedenaldira egindako aldaketak indarra eman dio taldeari
- Datorren aste bukaeran Usurbilera egin beharko dute bisita

EMAITZA

ANTZUOLA

2-0

ANAITASUNA

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Kostata. Jardunaldi askoren ostean. Horrela lortu du Antzuolak lehenengo garaipena. Taldeak lan ona egin du denboraldian zehar, baina emaitzak ez dira lanarekin bat etorri. Eta, futboleko puntuak dira balio dutenak.

Antzuolak Anaitasuna izan zuen aurrean zapatu arratsaldean Ezkibelen. Etxeko taldeak nahiko ondo hasi zuen lehia, taldea ondo kokatuta egon zen zelaian. Batez ere defentsan erakutsi zuen sendotasuna Antzuolak.

Bertan behera utzitako gola

Atzean sendo eta aurrera irteteko gogoz eta indartsu. Horrela zeuden etxeko jokalariek. Gola egiteko amorruz. Bada, Altxetako izan zuen markagailua estreinatzeke lehenengo aukera. Antzuolako jokalariek baloia sareetara bidali zuen, baina gola bertan

behera utzi zuen epaileak. Hasiera batean, epaileak ontzat eman zuen gola; baina, marrazainak jokoz kanpo adierazi zuen. Muruamendiaren entrenatzaileak oso zalantzakoa izan zela erabakia esan zuen partidua amaieran.

Hortik aurrera, bi taldeek nor baino nor gehiago jokatu zuten. Partidu parekatua izan zen eta Antzuolak nahi baino gehiago disfrutu zuen.

Aldaketa ekarri zuen aldaketa

Atsedenaldira Antzuolak Josu Zubikarai atera zuen zelaira Julien Sanzen ordeiz. "Erasora begira egindako aldaketa izan da", azaldu zuen entrenatzaileak. Modu horretan, etxekoek aurkariaren bizkarra bilatu nahi izan zuten. Bilatu bakarrik ez; baita aurkitu ere. Izan ere, aldaketa hori partiduko gakoa izan zen.

Bigarren zatiko 15. minutuan, ezkerreko hegaletik Oinatzek baloia erdiratu eta boleaz, gola egin zuen Zubikarai. Gol ikusgarria izan zen. Bost minutu ez ziren pasa, etxekoek bigarren sartu zuten. Kontraeraso azkar batean atezainaren aurrean Danel bakarrik geratu, hari iskin egin eta atea hutsik zuela baloia sareetan sartu zuen. Partidua bideratuta utzi zuten antzuolarrak bi gol horiekin.



Etxeko jokalariek baloia kontrolpean dutela. | IMANOL SORIANO

Anaitasunak baloi luzeak bidali zituen Antzuolari min egiteko asmoz, baina atzean ondo kokatuta jarraitu zuten etxeko mutilek eta arazo barik atera zituzten baloiek atzetik, euren atea hutsean mantenduz.

Ilusioz aurrera begira

Behin lehenengo irabazita, aurrera begira ilusioz daude antzuolarrak: "Jokalaria asko lesionatuta izan ditugu, eta poliki-poliki errekupekatzen dabilgu. Ondo antolatutako taldea gara, azka-

JON MURUAMENDIARAZ
ENTRENATZAILEA

"Lehenengo lortuta ea emaitza on gehiago datozen"

Jon Muruamendiaren pozik zegoen taldeak egindako lanarekin, eta, nola ez, zaleek izandako jarrerarekin.

Zorionak!

Eskerrik asko.

Kostata baina heldu da lehenengo garaipena.

Bai, kosta egin zaigu lehenengo garaipen hau lortzea baina behin hau lortuta, ea jarraian datozen beste batzuk.

Nola ikusi duzu taldea?

Atzean sendo jokatu dugu eta horrek aurrera joateko indarra eman digu. Atsedenaldira erasorako aldaketa egin dugu eta emaitza ona lortu.

Zaleen babesa erabatekoa izan da.

Partiduak galdu ditugunean ere beti egon izan dira gurekin. Eta, gaur, ikustekoa izan da nola agurtu gaituzten txalo artean. Zaleak beti daude hor, txaloka.

ERREGIONALA

Arazo barik gailendu da Mondra bergararren aurka

Azkeneko partidua jokatu, Mondrak laugarren tokian amaitu du liga eta Bergarak azkenekoan

EMAITZA

MONDRA

9-0

BERGARA

A.E. | ARRASATE

Emaitza ikusita, argi dago Mondrak ez zuela aurkaririk izan zapatuan Mojategin. Etxeko taldea jaun eta jabe izan zen, eta inolako arazorik izan barik gailendu zen Bergararen aurka.

"Bagenekien partidua samurra izango zela, baina partidua zelaian jokatu behar dira", azaldu zuen partidua amaieran Andoni Ezkurak, Mondrako entrenatzaileak. Gol zaparrada jaso zuen Bergarak Mojategin; hala ere, Ezkurak mahoneroen lana txalotu gura izan zuen: "Meritu handia dute. Iaz, gu euren leku berean egon ginen. Badakigu zer den hor egotea", zioen. "Golak sartu ahala talde batek gora egiten du; jasotzen dituenak, berriaz, behera", gaineratu zuen.

Ondo jokatutako lehia

Andoni Ezkurra pozik zegoen taldeak erakutsitako jarrerarekin. Arrasateko neskek ondo jokatu zuten, eta arazo barik mantendu zuten atea hutsean. Aurrean, gainera, gol asko egin zituzten.

Lehenengo zatian hiru gol egin zituzten eta gainerako seiak bigarrenetan etorri ziren. Golegileak izan ziren: Nerea Dorronsoro (4), Andrea Paredes (2), Amaia Agirre, Eider Zeziaga eta Lide Zubiaga.

Gipuzkoako erregional mailako liga amaitutzat eman dute aste bukaerako jardunaldiarekin. Mondrak laugarren tokian amaitu du, 14 punturekin; eta, Bergara azkena izan da. Ez dute punturik lortu bergarrek. Erregional mailako hirugarren multzo honetan Arizmendi izan da sailkapeneko lehenengoa, 24 punturekin.



Jokalariek gola ospatzen. | IMANOL SORIANO

FUTBOLA

Hiru gol sartuta, Bergara Elgoibar baino gehiago izan da etxetik kanpo jokaturako partiduan

Partidua hasi bezain laster hartu zioten aldea bergarrek Elgoibarrekoei. Izan ere, 5. minutuan Retegik falta batean sartutako golarekin aurretik jarri ziren markagailuan. Ondoren, 30. minutuan, Elgoibarrekoen aldeko kórner batetik, kontraerasoan atera eta Ikerrek atezainaren gainetik baloia loratu eta sekulako gola sartu zuen. Hala bukatu zen lehen zatia. Bigarrena, berriz, orekatuagoa izan zen, eta Iñigo Matxok sartutako hirugarren golari esker partidua lasaitu egin zen. Hala, hiru puntuekin etxera.

Aloña Mendi puntu barik bueltatu da Lesakatik, Beti Gazteren aurkako norgehiagokan huts eginda

Aloña Mendi taldeak ezin izan du punturik eskuratu, Beti Gazteren aurka jokaturako partiduan. Lan asko egin duten arren, aukera gehiago izan dituzte aurkariak eta bigarren zatiko 60. minutuan lesakarren gola etorri da. Aurkariak, ezker hegaletik abiadura biziz baloia erdiratu dute, Aloñakoek, baloia urrundu, baina etxeak baloia pixka bat bultzatuta 1 eta 0 jarri dira markagailuan. Hortik aurrera ezin izan diote partiduari buelta eman eta puntu barik bueltatu behar izan dira etxera.

Penalti bat huts eginda berdinketaz konformatu behar izan da Aretxabaleta, aukera gutxiko partiduan

Ohorezko erregionaleko Aretxabaletako futbol taldeak aukera gutxi izan zituen, Hondarribiaren aurkako partiduan. Aurkariak oso modu defentsiboan jarri ziren, bost defentsarekin eta futbol zelaia estua izanik zaila izan zitzaien erditik, zein bandetatik gakoak bilatzea. Gilleni egindako penaltia, Sanchezek kanpora bota zuen, eta horrez gain, beste bi aukera argi izan zituzten, normalean sartzen dituzten horietakoak. Hala husnako emaitzarekin konformatuta, bueltatu behar izan ziren Valleren mutilak.

Lan oso ona eginda baina puntu bakarrarekin bueltatu dira Debatik Gotzon Urtzelaiaren mutilak

Mondrak partidu zaila izan zuen zapatuan Amaiak Bat taldearen aurka. 0 eta 0 amaitu zen, baina Urtelai pozik zegoen: "Ilusioz jokatu dugu, eta oso pozik nago. Izan ere, jokalariek maila ona erakutsi dute eta errekonozimendua merezi dute". Lehen zatian aurkariak izan ziren nagusi, baina Mondrakoek, baloia konfiantzaz ukituz, lan ona egin zuten. Bigarren zatian aldiz, gola sartu zuen Barberok, baina joko kanpo zegoenez, epaileak balio gabetu egin zuen. Orain, erreku peratzeko denbora izango dute abenduko zubian, eta hurrengo jardunaldia prestatuko dute.



IMANOL SORIANO

Aretxabaletak partidu eskasa

Erregional preferenteko Aretxabaletak 0 eta 1 galdu zuen Lagun Onak taldearen aurka etxean. Ondo ekin zioten partiduari Iban Rodriguezen mutilek, aukera ugariarekin, baina bigarren zatiko 25. minutuan, falta batean sartu zieten golaren ostean, ez zuten bururik altxatu. Lehiakortasuna izan zuten faltan etxeak eta hala, ezin izan zioten eman buelta partiduari.

ARETO FUTBOLA



Aratz Kortazar jokalaria, presioa eginez Kukuyagako jokariari baloia kentzekotan. | IMANOL SORIANO

Eskoriatzak 6-2 irabazi dio Kukuyaga Etxebarriri, joko bikaina egindako partiduan

- Bigarren zatian jaun eta jabe izan da Eskoriatza
- Baloia jabetza izateak, asko lagundu die

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA
Euskal Liga mailako Eskoriatza areto futbol taldeak 6 eta 2 garaitu du Kukuyaga Etxebarri taldea partidu gogorra jokatu. Hala, aurreko astean Scaliburren aurkako norgehiagokan jasotako porrota ahaztuta geratu da.

Partidua hasi bezain laster jarri ziren aurretik Narciso Pavoren mutilak, Aratzek sartutako golari esker. Lehen gola sartuta pixka bat lasaitu egin ziren etxeak eta garesti ordaindu hori; izan ere, buelta eman zion partiduari aurkariak 1 eta 2 jarrita.

Aurkariak garaipena eskuratzeko gogo biziz etorri ziren eta atezaina jokari lanetan jarri zuten. Eskoriatzarrek presioa

ikusirik, berdín egin zuten. Hala, berdinketa iritsi zen laster (2-2) Asierrek sartutako golari esker, eta lehen zatia amaitu aurretik, 3 eta 2 jarri ziren aurretik, Richardek sartutako golaren ondoren. Hala amaitu zen lehen zatia.

Bigarren zatia, berriz, intentsitate handikoa izan zen. Baina Eskoriatzakoak baloia jabetza izan zuten ia zati osoan eta hori erabakigarria izan zen. Jokaldi politak egiten saiatu ziren eta halaxe iritsi ziren hiru golak. Aratzek sartu zuen laugarrena, Romerok bosgarrena, eta seigarrena, Johnnyk. Aurkariak aldiz, ez zuten besterik sartu, eta 6 eta 2ko emaitzarekin, etxean geratu ziren hiru puntuak.

Garaipen pozgarria
Zapatuan jokaturako partidua irabazi beharra zeukaten Eskoriatzakoek. Izan ere, hilabete gogorra izan da azaroa. Seigarren jardunaldia 3 eta 3 berdindu zuten, zazpigarrena, 0 eta 6 galdu, eta aurreko astean jokaturakoa ere galdu, 2 eta 0. Garaipen horrekin pozik hartuko dute zubiko atse denaldia Pavoren mutilek.

Hurrengo jardunaldia abenduaren 13an jokatu dute; etxetik kanpora, gainera, Gora Bilbao taldearen aurka. Abenduko zubia dela-eta jai izango dute hurrengo astean. Beraz, aste honetan indarrak hartu eta irabaztera irtengo dira eskoriatzarrek, bizkaitarren kantzara.

Mondratek, 9-3 irabazi dio Laskoraini

Areto futboleko gazteen mailako Mondratek 9 eta 3 irabazi dio Laskorain taldeari. Aurreko astean Samaniego Orixeran aurka 3 eta 1 galdu bazuten ere, jardunaldi honetan hiru puntuak lortu dituzte etxean jokaturako partiduan. Hala, sailkapenean bosgarren postuan aurkitzen dira orain. Hurrengo, Larramendiren aurka izango dute.



JOSETXO ARANTZABAL

EBA MAILA

Etxetik kanpoko kantxetan saskiratzea zaila egiten zaie Arrasateko jokalariei

Ligako zazpigarren jardunaldia galdu egin dute; hurrengo jardunaldia bi aste barru jokatu dute

EMAITZA

FUNDACION BALON. VALLADOLID

70-45

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Atzo goizeko bederatzietan irten ziren Arrasateko jokalariek etxetik, eta bidean bazkaldu ondoren Valladolideko Pisuerga kiroldegian jokatu zuten partidua. Ez zen partidu ona izan. Valladolid hasieratik jarri zen markagailuan aurretik, 10 puntuko aldearekin. Hala ere, minutuak aurrera joan ahala arrasatearrak markagailuan puntu bakarrera hurbildu ziren. Baina, atsedenaldirako hiru minutu falta zirenean, hainbat kontraeraso egin zituzten Valladolideko jokalariek eta berriro ere 10 puntuko aldea hartu zuten. "Beti atzetik ibili gara, eta horrelakoetan zaila izaten da partiduari neurria hartzea", azaldu zuen Larreategi entrenatzaileak amaieran.

Taldea ez dago prest

"Taldea ez dago prest etxetik kanpo jokatzeko", gaineratu zuen Larreategik. Hiruko jaurtiketak egiten saiatu ziren, baina Donostian eta Errioxan gertatu zitzaizen moduan, atzokoan, baloia ez zen saskian sartu; eta, gainera, aurkariak kontraerasoan harrapatu zituzten arrasatearrak. Bi aste barru etxean jokatu dute Burgo taldearen aurka.



Iturripeko kantxan, MUko jokalaria. | IGOIENA

JOSU LARREATEGI | ENTRENATZAILEA

"Beti ibili dira markagailuan aurretik"

Valladolidetik bueltan zetorren Larreategi eta etxetik kanpo jokatzeko taldea ez dagoela prest jakinarazi du.

Nola jokatu du taldeak Valladoliden?

Ez da partidu ona izan. Eurak beti ibili dira aurretik eta horrela zaila izaten da partidua aurrera ateratzea.

Nolako jokoa erakutsi du taldeak?



GOIENA

Beti bezala, saiatu gara bizkor jokatzeko, kontraerasoan, eta baita hiruko jaurtiketak egiten. Baina, gaurkoan, ez dira jaurtiketak sartu.

Emaitzak erakusten duen moduko aldea

egon da jokoan?

Bai, gaur bai. Hala ere, talde hori ez da 25 puntuko aldearekin galtzekoa. Etxean jokatzeko gero, bestelakoa izango litzateke emaitza.

BIGARREN MAILA



Soraluce Bergarako jokalariek lehian. | IMANOL SORIANO

Goian jarraitzeko garaipena lortu dute bergarrek

Hurrengo jardunaldia Mondragon Unibertsitatearen aurka jokatu dute

EMAITZA

SORALUCE BERGARA

63-57

ORIOKO

A.E. | BERGARA

Jon Beistegiren mutilek gogor egin behar izan zuten lan egubakoitzean partidua aurrera ateratzeko. Liderra izan zuten aurrean, Orioko. Talde gogorra dela erakutsi zuten Oriokoek, batez ere lehenengo minutuetan. Etxeko jokalariek urduri hasi zuten lehia eta ondorioz, atsedenaldira bi puntu atzetik joan ziren.

Hirugarren laurdenean, baina, aldagelatik indarberrituta irten ziren mahoneroak, Oso joko ona erakutsi zuten eta modu horretan markagailuan aurre hartu zuten. Hirugarren laurdeneko partziala 21-10 izan zen.

Lehiako hiru gakoak

Etxeko jokalariek laugarren laurdenean ere txukun jokatu zuten. Markagailuko aldea man-

tentzeko gauza izan ziren, eta ondorioz garaipena etxean gertatu zen: 63-57. Lehia irabazteko gakoak, etxeko taldeak egindako defentsa ona izan zen.

Beistegi entrenatzailea pozik zegoen egindakoarekin: "Partidua aurrera ateratzeko gakoak hiru izan dira; batetik, errebo-tea, oso ondo zaindu dugu; bestetik, mentalki taldea indartsu egon izana; eta, azkenik, defentsan egindako lan bikaina".

Garaipena lortuta, Soraluce Bergarak sailkapeneko hirugarren postuan jarraitzen du.

Arrasatearren aurkakoa

Aste bukaerako emaitzak kontuan hartuta, Mondragon Unibertsitatea da taldeko lider berria. Eta, hain zuzen, bergarrek arrasatearren aurka jokatu beharko dute hurrengo jardunaldia –abenduen 14an. "Joko ezberdina egiten dugun taldeak gara. Bi taldeak dira gazteak, baina eurak txikiagoak dira eta korrika asko egiten dute; guk, aldiz, jende altuagoa daukagu eta barruko jokoa egiten dugu".

NAGUSIAK

Eskoriatzak etxean galdu du Goierriko taldearen aurka

Eskoriatzak 39-48 galdu zuen egubakoitzean Ayma Goierri taldearen aurka. Bi taldeak parekatuta daude sailkapenean: Ayma Goierri bosgarren postuan dago 11 punturekin eta Eskoriatza 7. tokian 10 punturekin. Nabarmendu behar da Goierriko taldean Alazne Nieto oñatiarrak jokatzeko duela (eskuman).



IMANOL SORIANO

ESKUBALOIA

Itxura oso eskasa erakutsita galdu du Soraluze Bergarak etxean

Sailkapeneko bigarren postuan dagoen Gure Auzune taldeak aise irabazi dio

EMAITZA

SORALUZE BERGARA

24-35

GURE AUZUNE

MIRARI ALTUBE | BERGARA
Bolada txarrean sartuta dago Soraluze Bergara taldea; urduritasuna dela, konfiantza falta dela partiduak ezin irabazi jarraitzen dute Josetxo Muniategiren mutilek.
Aurkari zaila zuten aurrez aurre zapatuan, etxean: bigarren

dagoen Gure Auzune taldea. Eta bergararrek ez zuten jakin Gasteiztik etorritako makina geratzen.
Defentsan ahul agertu ziren bergararrak hasieratik, urduri, eta huts asko eginez. Hala, zuloak topatzen zituzten han eta hemen gasteiztarrek eta gol zaparrada jaso zuten etxekoek. Gure Auzunekoak, oster, defentsa lanetan sendo agertu ziren, baloiak berreskuratzen argi, eta kontraerasoetan asmatzen. Eta bergararrek golak egiteko zailtasunak zituzten. Muniategik pazientzia eskatu zien hainbat aldiz mutilei jaurti aurretik pentsatzeko, eta haserretu ere egin zen akats onartezinak egin zituztelako. Hala, atsedenaldira 12 puntuko aldearekin joan ziren, 9 eta 20.



Soraluze Bergarako jokalaria jaurtitzeko zailtasunekin. | IMANOL SORIANO

egin haren jokoak. Orduantxe aprobetxatu zuten aldea murrizteko etxekoek eta hiru gol jarraian egin. Baina, ilusioa besterik ez zen izan. Bukaera 24 eta 35, eta entrenatzailea ulertu ezinik zegoen: "Jokatzen badakitela erakutsi behar dute mutilek, eta horretan ez badute asmatzen ezingo dugu irabazi".

Denboraldia aurrera doa eta hamar partidutatik hiru bakarrik irabazi ditu Soraluze Bergarak. Datorren astean atsedenaldira dute eta hurrengoan Bilbora joango dira, Escolapios taldearen etxera. Bi asteotan egiteko asko dute: lanean gogor jarraitu eta bolada txarrari zelan eman buelta hausnartu.

JOSETXO MUNIATEGI | ENTRENATZAILEA

"Ahul gaude mentalki eta oso urduri"

Entrenatzailea kezkatuta zegoen mutilen lana ikusita.
Aurkari gogorra zen eta beremaila eman du, ezta?
Ez, ez da aurkaria, guk oso gaizki jokatut dugu. Arazoa geurea izan da; oso urduri jarri gara.
Atsedenaldira alde handiarekin joan zarete, 9 eta 20...
Bai, eta ordurako mutilak oso behean zeuden moralki. Gero ere gaizki

hasi gara; ondoren aurkaria erlaxatu egin da eta gu apur bat hobeto... Baina ez, ez gara egon partiduan.
Non egonda arazoa, defentsan ahul?
Denean, tentsio barik... Oso gaizki.
Liga bideratu beharrean, ezta?
Uste nuen konfiantza hartuta genuela baina ez, azken bi partiduetan akats asko egin ditugu. Mentalki gaude ahul.



ESKUBALOIA

JOSETXO ARANTZABAL

Aloña Mendik 24-28 galdu du

Izarraitz Aloña Mendik 24-28 galdu zuen etxean atzo, Usurbilen aurka. Etxekoek partidua irabazteko ahaleginak egin arren, aurrean liderra izan zuten, eta ezin gaititu. Oñatiarrak sailkapeneko bosgarren postuan daude, 8 punturekin. Bi aste barru Eibarko Haritza taldearen aurka jokatu beharko dute.

ESKUBALOIA

Eibartarrek bigarren zatian ateratako defentsa mistoari ezin aurre eginda geratu dira Ford Mugarriko mutilak

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE
Arrasateko mutilak esku hutsik itzuli ziren Somos Eibar eskubaloi taldearen aurka jokatu lehaitik (21-19). "Taldea sendoa zela bagenekien, liderrak dira-eta", zioen Pablo Gartzia entrenatzaileak. Mondragoetarrek joko ona erakutsi zuten, batez ere lehenengo zatian. Zerbait gehiago ere merezi izan zuten, baina azkenean puntu barik itzuli ziren etxera.
Lehenengo zatian arrasatearrek gehiago izan ziren. Hobeto jokatu zuten eta markagailuan beti ibili ziren bi edo hiru goleko

abantailaz aurretik. Batez ere, defentsan egin zuten lan ona arrasatearrek: gogor defenditu zuten euren atea.

Defentsa mistoa
Bigarren zatian, Eibarko taldeak defentsa aldatu zuen. 6-0tik 4-2ko defentsara pasa ziren. Defentsa mistoak min handia egin zion Gartzia taldeari. "Defentsa mistoa egin digute eta ez dugu jakin horri aurre egiten", azaldu zuen "ez dugu egoera kudeatu", gaineratu zuen. Jokatzeko modu berrira ezin egokituta, Arrasa-

teko taldeak falta asko egin zituen eta ondorioz epaileak jokalaria egotzi zituen. Momentu batean, bi jokari gutxiagorekin jokatu zuen Ford Mugarrik.
Bigarren zati horretan, Eibarko taldea lau goleko abantailarekin ibili zen goitik; minutuak pasa ahala, baina, abantaila txikitu egin zuten: "Hala ere, eurak beti ibili dira gol bat edo bi aurretik", azaldu zuen Gartzia.

Zumaiarren bisita
Ford Mugarrik bosgarren postuan jarraitzen du 15 punturekin. Datorren astean Zumaiako Pulporen bisita izango dute Iturripen. Partidua zapatuan izango da, 18:30ean. Berebiziko garrantzia izango du lehiak; izan ere, Pulpo seigarren postuan dago sailkapenean, Ford Mugarriren puntu berdinekin.

PILOTA

Manex Balerdi Gipuzkoako txapeldun

Gipuzkoako kadete mailako txapela jantzi du Manex Balerdi antzuolako pilotariak –Bergaran jokatzeko. Andoingo Osa pilotariaren aurka 18-11 irabazi zuen Usurbilen jokatu finala. Partidurik galdu gabe iritsi da finalera Balerdi.



REYES AZKOITIA

ESKUBALOIA

Abenduaren 14an egingo dute aurtengo Santamasetako krosa

Santamasetako krosean parte hartu gura dutenek egunean bertan eman beharko dute izena, abenduaren 14an, 5 euro ordainduta. Aurtengoa 37. krosa izango da, eta Enrike Kabiketaren omenezko hamabigarrena. Helduen krosa 12:30ean hasiko da. 6,4 kilometroko ibilbidea izango da eta kuadrilaka lehiatu beharko dute: kuadrila bakoitzeko lehenengo bost korrikalarien denborak hartuko dira kon-tuan sailkapenean.

San Silbestre trail mendi proban izenematea zabalik

Abenduaren 31n Bergaran jokatu den San Silbestre trail Peugeot Etormobil Sari Nagusian parte hartu gura duenak *kirolprobak.com* atarian eman behar du izena 5 euro ordainduta. Aurtengoa, lehenengo egingo dute mendi lasterketa hau. 200 korrikalari-errendako lekua egongo da hasiera puntuan. Behin proba amaituta dutxatzeko aukera egongo da Agorrosin kiroldegian eta baita Aranzadi Ikastolan ere.

TXIRRINDULARITZA

Iban Velascok ziklismoa utzi du

Mokorreko lesioa, "uste baino larriagoa" izan dela dio

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Iban Velascok (Arrasate, 1980) agur esango dio ziklismo profesionalari. Iazko Espainiako Vueltan izandako erorikotik ezin izan da nahi moduan errekuperatu, nahiz eta urte osoa eman duen horretarako gogor lanean. Hala, profesional mailan bederatzi denboraldi egin dituen txirrindulariak –Orbean, Euskaltelen eta azken bi urteak Caja Ruralen–, mailota zintzilikatuko du. Honen berri emateko agur gutuna bidali zuen eguenean hainbat komunikabidetara.

Agur gutun hunkigarria

"Urtea gogorra izan da niretzat. Oso zaila egin zait ikustea urteak aurrera egiten zuela eta ezin izango nuela berriro ere lehiatu. Baina horrela izan da. Mokorreko lesioa, hasieran onartu nahi nuen

na baino larriagoa izan da. Nire ibilbide profesionalean zehar hainbat lesio izan ditut, eta azken hori ere aurrekoak bezalakoa izango zelakoan nengoen...". Hitz hauekin hasi du Velascok agur gutuna. Nahi zuen moduan errekuperatu ezin izan duen mokorreko lesioaren gainean mintzatuz. Baina, txirrindularitzak emandako une onak, txarrak baino gehiago izan direla aipatzen du: "Atzera begiratzean irribarrea datorkit aurpegira, bizi izandako unerik onenak ematen zaizkit burura. Zerbait maitatzen duzunean gertatzen diren gauza txarrak erraztasunez ahazten dituzula uste dut, eta horixe bera da txirrindularitzarekin gertatzen zaidana."

Txirrindularitzak eman dizkion aukerei eta ezagutu dituen pertsonen eskerrak emateko era-

bili du gutuna, modu hunkigarri eta nostalgiko samarrean. Bertan, familiari, txirrindularitzari, ibilbide profesionalean lagun izan dituen mekanikari, masajista, zuzendari, taldekide eta zale guztiei eman dizkie eskerrak: "Oso itsusia izango zen agur esatea nire ametsa egia bihurtzen lagundu didaten pertsonen nire eskerrik zintzoenak eman gabe".

Hala, bizimodua aldatzeko garaia iritsi zaiola dio. Baina garai berri baten atarian egon arren, "txirrindulari sentituko dela".

Kontuak kontu, ez dagoela triste esanez bukatu du: "Gutunak nostalgikoa dirudien arren, ez nago triste, nire bizitzaren etapa oso garrantzitsu bat gogoratzen aritu naiz, eta oroitzapen horietan bihotza izan dut gidari, besterik ez. Besarkada bat, eta errepideetan ikusiko gara".



Iban Velasco, Monterronen, itzulian erorikoa izan eta gutxira. | GOIENA



Velasco, Euskaltel taldean ari zela. | GOIENA



ERRUGBIA

IMANOL SORIANO

European, baina gozatuta

Eskola kirolaren barruan errugbia ezagutu zuten zapatu goizean Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako gaztetxoek. Arrasaten izan ziren jokatzeko, baita gustura jokatu ere, nahiz eta eguraldiak ez lagundu. Izan ere, euri zaparradak izan zituzten lagun 10 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek goiz guztian. Harrobia egiteko lehenengo kirola ezagutu egin behar eta horretan jardun zuten Mojategin.

ERRUGBIA

Aurreko partiduko porrotaren arantza kendu du ARTk

Arrasate Rugby Taldeak 35-13 menderatu du Zaisa Irun taldea, etxeko lanak ondo eginda

I.B | ARRASATE

Zapatuan jokaturako partiduan ondo egin zituzten etxeko lanak Igor Isasiren mutilek. Izan ere, 35-13 irabazi zieten irundarrei, Mojategin jokaturako partiduan.

Galtzen hasi ziren, 0 eta 3, baina denboraz erreakzionatu zuten eta markagailuari buelta eman, 7 eta 3 jarriz. Ondoren, 14 eta 3 etorri zen, eta halaxe bukatu zuten lehen zatia.

Presio handia egin zuten etxekoek, eta bigarren zatian bonus puntua lortu zuten lau entsegu egin ondoren. Igor Isasi entrenatzaileak zera zioen: "Gaurko helburua bonus puntua lehenbailehen lortzea zen, eta nola ez, etxean garaipena eskuratzea. Beraz, helburuak bete ditugu. Hala ere, esan beharra dago 35 eta 3ra iritsi garenean erlaxatu egin gara. Azken bost minutuetan bi

entsegu sartu dizkigute-eta". Hala ere, oso ondo jardun zuten etxekoek, bai erasoan, bai defentsan.

Tentsio uneak bukaeran

Partiduaren azken minutuetan tentsio uneak izan ziren. ARTko jokalaria bat eta Irungo beste bat, kaleratu zituzten. "Irabazten ari garenean ez da komeni izaten joko horretan sartzea, guk gure jokoa egin behar dugu, baina batzuetan kosta egiten da hori kontrolatzea...", zioen Isasik.

Denboraldi bikaina ari da egiten ART. Orain arteko jardunaldi guztiak irabazi dituzte bat izan ezik. Joan den astean 50-5 galdu zuten Uribealde taldearen aurka, baina oraingoan arantza hori kentzea lortu dute.



Arrasate Rugby Taldeko jokalaria baloiari ostikoa ematen, Iruneko jokalaria heldu aurretik. | IMANOL SORIANO

MENDIA

Oxel Arrieta | Mendi eta arroila gidaria

"Euskal Herrian ditugun altxorrekin, ez dugu zertan kanpora joan"

- Betidanik izan du mendiarekiko eta mendiarekin lotura dituzten kirolekiko zaletasuna
- Mendi eta arroila gidaria izateak "erantzukizun handiak" dakartzala dio arrasatearrak

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Oxel Arrieta arrasatearra (1980, martxoa) betidanik izan da mendiarekiko eta mendiarekin lotura dituzten kirolekiko zalea. Hala, bi heziketa ziklo egin zituen mendi eta arroila (kanoi) gidaria izateko. Hori horrela, hainbat arrisku eta dibertsio momentu pasatuko da arrasatearra Euskal Herriko eta Pirinioetako mendi eta erreketan.

Nola hasi zinen mendi eta arroila gidari?

Txikitatik joan izan naiz gurasoekin batera Euskal Herriko eta Pirinioetako mendietara. Baina zaletasunetik harago joan nahi nuen, eta, horregatik, mendi ertainen kirol teknikari izateko heziketa ikastea erabaki nuen. Ondoren, arroilen kirol teknikari heziketa zikloa egitea erabaki nuen. Gaur egun, proiektu berri batekin ari naiz, Euskal Herrian ditugun txoko zoragarriak ezagutarazteko asmoz.

Ikasketa horiek atera ondoren zer egin zenuen?

Duela bi urte Escalonan, Pirinioetan, egon nintzen, Ainsatik gertu dagoen herri baten. Han, arroiletako praktikak bukatu nituen, eta bertan geratu nintzen bi hilabetez lanean, taldeak erreketara eramaten eta jaitsierak egiten. Aurretik, berriz, Ordesan egon naiz hiru hilabetez, mendiko ibilaldiak egiten eta arroilak jaisten.

Mendi eta arroila gidaria izateko, lekuak ondo ezagutu beharko dituzu, ezta?

Bai; azken finean, halako ikasketak egiten dituenak denbora librean ahal duen heinean mendian ibiltzeko zaletasuna izaten



Oxel Arrieta, Pic du Midi d'Ossau atzean duela. | MENDITXIK.COM

du. Hala, nik gurasoekin, lagunekin... ahal dudanean joaten naiz. Egun baten bailara bat egitera, beste batean errekek aurkitzera, GR ibilbide zati bat egitera... Askok ibili behar da leku bat ondo ezagutzeko...

Nolako irteerak egiten dituzu?

Egun bateko irteerak, 2 edo 3 eguneko ibilbideak, 5 egunera irits daitezkeen zirkularrak; adibidez, Monte Perdidi buelta ematea... eta errekek egiten ditut. Batez ere, udan egiten dut lan, bezeroek gehien eskatzen dutena

erreken jaitsiera izaten baita.

Irteera guztiak bezeroaren mailaren arabera izaten dira. Mendiko ibilbideetan, adibidez, sekula mendian ibili ez diren pertsonekin kontuz ibili behar da, ezin dira sekulako ibilbideak prestatu...

Zeren bila joaten dira halako ekin-tzetan parte hartzen dutenak?

Gehienak abentura bila etortzen dira, normalean. Beste batzuk, bestalde, japoniarrak, esaterako, Pirinioetako loreak ikustera etortzen dira, bereziki. Horretarako, Ordesako haranera eramaten ditut, Cola de Caballora. Bada, edelweiss eta hartz-belarri loreak ikusteko gogo biziz egoten dira.

Arriskurik badu lan horrek?

Bai; erreketan, bereziki, arrisku handia egon daiteke. Nire lana arriskua kudeatzea da, arriskuen aurretik erabakiak hartu eta beharrezkoak diren teknikak erabiltzea. Nirekin datozenak etxera oso-osorik bueltatzea dut helburu, eta, nola ez, naturak eskaintzen digunaz disfrutatu dezaten nahi izaten dut.

Bestalde, aktibitate etortzen diren asko mendian federatu gabe etortzen dira, baina istripu aseguru izaten dute. Zerbait gertatuz gero, ospitaleko gastuak, erreskate zerbitzua... dituzte.

Erantzukizun handia duen lanbidea?

"Beharrezko teknikak eta materiala erabiliz arriskuak ekidin daitezke"

"Ikasketez gain, zaletasuna izan behar da mendi eta arroila gidari izateko"



Arrieta, familia batekin erreka jaitsiera egin ondoren. | MENDITXIK.COM

Bai, baina neurriak ondo betez gero, arriskua txikitu egin daiteke. Hasiberriekin, pausoz pauso joan behar da. Lehenengo, beharrezko teknikak erakutsi, eta gero, zailagoetan sartu.

Pirinioetan bakarrik ibiltzen zara gidari?

Maiatzetik ekainera bitartean Sierra de Guaran egoten naiz. Han, munduko kanoi esanguratsuenetako batzuk daude eta leku zoragarria da. Gero, Pirinioetara joaten naiz, ekaina, uztaila eta abuztua pasatzera. Baina uste dut Euskal Herrian ere sekulako altxorrak ditugula, ez dugu zertan kanpora joan. **Euskal Herrian dauden erreka guztietatik gehien gustatzen zai-zuna zein da?**

Eginon dagoen Leze arroila, adibidez. Kobazulo bat da eta mendia gurutzatzen daiteke errekek

egindako bidetik. Beste bat, aipatzekoa, zailtasun handiagoa duena, Nafarroan, Irurtzundik 15 minutura dagoen Oilaraneko Artazulo da, 45 metroko jaitsiera batekin amaitzen dena.

Ikastaroak ere ematen dituzu?

Orientazio ikastaroak ematen ditut; mapak eta iparrorratza nola erabili ikastekoak, GPSa erabiltzeko, nibologia... Bestalde, mendiko segurtasuna eta arroilen jaitsiera hobetzekoak ere ematen ditut...

Gaur egun, proiektu berri batekin ari zara lanean, ezta?

Bai, webgune bat eraiki dut horretarako. Turismo aktiboa bultzatzeko proiektu batekin ari naiz. *Menditxik.com* izeneko. Hain zuzen ere, natura gustuko duten herritarrek Euskal Herriko mendi eta errekek ezagutuz disfruta dezaten.

KULTURA

Distira handiko hauspoen asteburua dator berriro ere

Abenduaren 5etik 7ra ospatuko dira Arrasateko Akordeoi Lehiaketak

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Aurten ere mundu osoko akordeoi-joleen geldione bilakatuko da Arrasate. *Arrasate Hiria* Nazioarteko 22. Akordeoi Lehiaketa, Gipuzkoa 35. Akordeoi Lehiaketa eta Gipuzkoa 27. Akordeoi Jaialdia izango dira abenduaren 5etik 7ra bitartean ospatuko direnak. Horren berri eman zuten joan den egubakoitzean Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteko kideek eta Udal ordezkariak.

Parte-hartzea areagotzen

Azpimarratzekoa da aurten lehiaketen parte-hartzea asko hazi dela; 396 partaide daude, iaz baino %19 gehiago. Aipatzekoa da ere, nazioarteko lehiaketan munduko txoko desberdinetako 14 akordeoi-jole lehiatuko direla; Alemaniatik, Txinatik, Espainiatik, Errusiatik, Eslovakiatik, Kazakhstandik, Poloniatik, Serbiatik eta Euskal Herriko datoz, hain zuzen, horiek.

Lehiaketen egitura aurreko urteetako bera izango da: egubakoitzean, Nazioarteko eta Gipuzkoa lehiaketetako kanporaketa faseak izango dira Amaia antzokian; zapatuan, Gipuzkoa Jaialdia egingo da Amaian, Kulturaten eta Ferixalekuan, eta horien sari banaketa ere Amaian izango da. Amaitzeko, domekan, Nazioarteko eta Gipuzkoako lehiaketen azken faseak egingo dira; horiek ere, Amaian. Horren ondoren, Arrasateko akordeoi lehiaketen azken ekitaldia etorriko da eta sariak banatuko dituzte.

Nobedade moduan, zaharren egoitzan egingo dute kontzertu



Egubakoitzean Kulturaten egindako Arrasateko Akordeoi Lehiaketen prentsaurrekoa. | ANDER LARRAÑAGA

bat hilaren 6an: duela bizpahiru urte jarritako kalejirarekin batera, halako ekitaldiak akordeoi doinuak herrira gerturatzeke asmoarekin egiten dituztela adierazi zuen Hauspoz-eko zuzendaria den Aitor Furundarenak.

Epaimahaia

Urtero lez, txapela kentzeko moduko epaimahaia izango da: Euskal Herriko zein Europako eskarmentudun musikariak etorriko dira. Errusiako Friedrich Lips,

Norvegiako Geir Dragsvoll, Stefan Hussong alemaniarra eta Iñaki Alberdi eta Ramon Lazkano euskaldunak dira epaimahai-kideak, hain zuzen ere.

Wangen kontzertuak

Horretaz gainera, iazko irabazleak, Hanzhi Wang txinatarrak, bi kontzertu emango ditu Debagoienean, asteon. Bata, egubakoitzean, 20:00etan, Kulturaten; bestea, domekan, 13:00etan, Aretxabaletako Arkupe kultur etxean.

Lehiakortasuna baztertzeke jaia

Hauspozen filosofia pedagogia eraikitzailearekin bat datorren jaialdia da Gipuzkoa Akordeoi Jaialdia. Helburua da, akordeoi ikasleek parte hartzea, lehiakortasunari garrantzia eman gabe.

Hauspozkoek azaldu dutenez, garrantzitsua da ikasleek helburu sano batzuk ezartzea, beti ere, garaipenarekin itsutu barik. Horregatik, hain juxtu, da jaialdi bat eta ez lehiaketa bat. Hala ere, helburu txiki horientatik, sailkapen bat egiteko hiru domina banatuko dituzte: urrezkoa, zilarrezkoa eta brontzezkoa. Hauspoz-eko Aitor Furundarenak dioenez, jaialdi horrek ematen dio "bizia" lehiaketa multzo horri, ikasle, irakasle eta gurasoen harremanak ematen duen aberastasunagatik.

AITOR FURUNDARENA
HAUSPOZEKO ZUZENDARIA

"Pedagogian oinarritzekoa da egiten duguna benetan gustatzea"

Hauspozeko Aitor Furundarena da Arrasateko lehiaketen antolatzaileetako bat.



Zein da Hauspozen konpromisoa Arrasateko Akordeoi Lehiaketetan?

Hauspozek baditu bi ardatz nagusi, gaur egun: batetik, akordeoiaren pedagogia eta bestetik, sorkuntza bultzatzea. Guk urtean zehar bi ekintza nagusi egiten ditugu: irailean Zarautzen eta abenduan, hemen, Arrasaten. Arrasatekoa da, esango nuke, pedagogia-aren arloan nagusia. Saiatzen gara da, alde pedagogiko horretatik, akordeoi zaleak biltzen eta ezagutera ematen hemen edo han zer egiten den. Beraz, esan bezala, hor jartzen dugu fokua eta saiitzen gara ez indartzen gehiegi lehiaketaren arlo konpetitibo hori. Pedagogiaz nabiltzen, ez dut pedagogiaren alde tekniko-rik esaten; finean, pedagogian oinarritzekoa da egiten duguna benetan gustatzea. Halere, azken ideia honekin batera, helburu batzuk jartzea ere beharrezkoa da.

Nolako izan da lehiaketa multzo horien bilakaera?

Aspaldi hasi ginen lehiaketa horiekin Arrasaten. Lehenbizi Gipuzkoa lehiaketa sortu genuen, ondoren jaialdia, eta azkenik, Arrasate Hiria nazioarteko lehiaketa. Pausu horiek oso ondo erakusten dute ebolutzio guztia. Garai batean ematen zuten lehiaketak baino, ez zegoela gauzak egiteko beste modurik; lehiaketak egiten ziren guztietarako eta horrekin gauza handiak lortu dira. Baina, momentu batean ikusi genuen lehiaketek ez zituztela asebetetzen denon beharrak. Hori horrela, orduan sortu genuen jaialdia eta horrekin eman genion funtsezkoa duen indar handi hori. Azkeneak, *Arrasate Hiria* distira eman dio, dudu barik. Bestalde, esango nuke, *Arrasate Hirian* daudela bi ideia: batetik, lehiaketa bera; eta gero, sozialki suposatzen duena, bai lehiaketaren oihartzu-naren aldetik eta bai antolaketaren aldetik.

Arrasate Hiria lehiaketako irabazleak



HANZHI WANG

2013: Arrasate Hiria irabazi duen lehen emakumea da eta lehen txinatarra. Beste hainbat sari entzutetsu ere jaso ditu.



MACIEJ FRACKIEWICZ

2012: *Polityka* aldizkariaren Passport saria eskuratu zuen. Otsailean bere bakarkako lana kaleratu zuen.



IOSIF PURITS

2011: Sariak jaso eta jaso dabil zortzi urte zituenetik errusiarra. 2011an Urteko Musikari izendatu zuen *Musical Review* aldizkariak.



IVAN SUERKO

2010: Sari kopuru ikaragarriak jasotzeaz gain, kroaziar honek Mladen Tarbuk musikari ospetsuarekin kolaboratu du.

Jolastu eta irabazi

Gorbeia Erruletan

3.500€ eta 2.000
erosketa-txarteletan opari

centrocomercialgorbeia.com

Parte hartu nahi izanez gero, Gorbeia Merkataritza Guneako edozein establezimendutan erosketa bat egin behar da.

Eskaintza hau indarrean izango da 2014ko azaroaren 28tik abenduaren 28ra arte


GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Oinarri guztiak
www.centrocomercialgorbeia.com webgunean

Ain_1-ek 'Badoa, Badirau' lanarekin agurtu ditu zaleak

- Lan berriaren aurkezpena lagunarteko giro epelean egin dute
- Bira amaitutakoan, otsailean, taldea "lozorrora" joango da

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Ain_1 talde arrasatearrak egubakoitzean egin zuen azken diskoaren aurkezpen kontzertua. *Badoa, badirau* lanak "gero arte" bat esan gura du taldearendako, otsailetik aurrera, behin diskoaren bira amaituta, geldiuinetxo bat egingo dutelako. Hala ere, indarrez agurtu zituzten Arrasateko gaztetxera hurbildu ziren entzuleak eta lagunak.

Jendez gainezka egon zen gaztetxea; lagun, familia eta jarraitzaileek, Ain_1en azkenetarikoa emanaldi horretara hurbildu gura izan zuten agur esateko eta bide batez, disko berriaren doinuekin gozatzeko.

Kontzertu osatua

Esan bezala, *Badoa, badirau* diskoaren aurkezpen kontzertua izan zen barikuko, beraz, esan daiteke lan berriko kantuak nabarmendu zirela. Hala ere,

aurreko lanei keinu eginaz, euren abesti mitikoenak ere interpretatu zituzten, publikoak gehiago disfruta zezan.

Ez zen ordea izan, abesti soil ez osatutako emanaldia; poesia, dantza, ikus-entzunezkoak eta espektakulua uztartzen zituen ikuskizuna baizik. Esaterako, kontzertua Sarrionandiaren berbeekin hasi zuten, euren "gero arte" diskoaren esanahia azaltzeko. Bestetik, erronka berriak gainditu dituztela erakutsi zuten Ain_1ekoek: euskalkian abestera edota *melodium*-a bezalako instrumentu "arraroekin" jotzera ausartu ziren.

Lagunarteko giroa

Eszenatokia eroso izaten ahalgin handia egin zuten; aulkiek, kandelak eta argiek asko lagundu zuten ikuslegoa "etxean bezala" sentiarazteko: oso giro intimoa eta goxoa. Publikoak ere asko



Ain_1ekoak, egubakoitzeko gaztetxeko aurkezpen kontzertuan. | IMANOL SORIANO

lagundu zuen aurkezpen kontzertua berezia izaten: bistakoa zen, lagun, ezagun eta familiar-teko asko gerturatu zirela kontzertura, eurekin izandako konplizitatea nabarmena zelako. Horretaz gainera, kantu eta kantu artean, euren edo instrumentuen gaineko anekdotak kontatzeko edota txantxa batzuk egiteko denboratxoa hartzen zuten taula gainekoek. Eta publikoa berenganatzen joan ziren apurka-apurka.

Kontzertu osatua eta ikusteko polita izan zen; giro epelean, lasai ikusi eta musikaz disfrutatzen den emanaldi horietakoa.

"Gero arte" izan da

Disko berriaren aurkezpena bai, baina era berean jarraitzaileak agurtu dituzte. "Helburua zen lan berria erakustea, baina, lan berrian bagoazela esaten ari garenez, nolabaiteko agur bat ere bada", azaldu zuten Ain_1eko neskek barikuko kontzertuan.

Ahotsenean ere bai

Hori horrela, taldeak, lozorrora joan aurretik, belarri gehiago goxatuko ditu hemendik eta otsaila bitartean eskainiko dituen kontzertuetan. Hurrengoko eman-kizuna etzi, eguaztenean, izango da, Berrizen. Eta, egubakoitzean, abenduaren 5ean, ere ekitaldia dute. Oraingoan Durangoko Azokako Ahotsenea gunean egongo da taldea. Horretaz gainera, diskoa salgai egongo da, *Musika-zuzenean*-en.

Zorionak, Asier!

Asier Olabarria izan da lehen saioko lehiaketaren irabazlea.



Zuk ere
100 €*
irabazi
nahi?



Asier Olabarria irabazlea eta Aintzane Lasa Arrasateko Udaleko ordezkaria saria ematen.

PARTE HARTU
LEHIAKETAN!



badagogauzazailagorik

* Saria Ibai-Arteko dendetan erabiltzeko 100 euroko bonua izango da.



Badago hizkuntza-ohiturak aldatzea
baino gauza zailagorik.
Arrasaten, euskaraz.



Arrasateko
euskalgintza

Euskadiko estremadurarrek Gabonak aurreratu dituzte Oñatin egin duten jaialdian

Euskal Herriko sei herritako Extremadura elkartetako kideak izan dira, Santa Ana aretoan

A. L. | OÑATI

Extremadurako Elkarteen Euskadiko Federazioak antolatuta, *La Bellota* Legazpiko Extremadurako Elkarteen laguntzarekin, Gabon kanten eta dantzen 23. jaialdia egin zuten zapatuan, Oñatiko Santa Ana aretoan.

Extremadurako jotak eta Gabon kanten entzutera eta dantzak ikustera jende mordo hurbildu zen; Santa Ana gainezka

eta lagun asko ezin sartu. Izan ere, kanpoko jende asko etorri zen, Donostiako, Errenteriako, Ermuko, Galdakaoko, Santurtziko eta Legazpiko Extremadurako elkarteak izan zirelako Gabon jaialdian parte hartu zutenak.

Gonbidatu moduan, Oñatiko Aloña erretiratuen abesbatzak ere euren hazia jarri zuen eta gainerako elkarrekin batera abestu.



Donostiako Extremadurako elkarteak, zapatuko jaialdian. | ANDER LARRAÑAGA

Maider Arregik eskuratu du lehen postua eta finalerako lehen txartela

Oñatiko bertso txapelketako lehen kanporaketa da

KOMUNITATEA GOIENA | OÑATIKO BERTSO ESKOLA | OÑATI

Maider Arregik lortu du lehenengo postua 188,25 punturekin, eta ondorioz, baita finalerako txartela ere, Oñatiko VII. Bertso Txapelketako lehen kanporaketan. Atzetik geratu dira: Andoni Goitia (180,75), Egoitz Aizpuru (177,5), Urko Egaña (175,25), Iñaki Olalde (170) eta Ander Lizarralde (157). Hauek, bigarren kanporaketako puntuen arabera sailkatuko dira.

Norgehiagoka polita

Oñatiko gaztetxean jokatu zen kanporaketa. Herriko bertsozale-tasunak ez zuen huts egin: hutsune gutxi gelditu ziren eraikinean. Gogotsu ekin zioten txapelketari seiek. Zortziko handian bikoteka hiruna bertso zen lehen lana. Orokorrean igarri zitzairen bertsolarietako nerbioak edo lehenengo bertsoak osatzeko zailtasuna; hala ere lan txukuna burutu zuten. Bereziki Aizpuru eta Goitiak. Dibortziatu berri ziren bikotearen paperean jarri zituzten, epaileak haurren zaintza partekatu izango zutela erabakitak. "Ta berriz ere nola zainduko ditu umeen problemak/ bere burua behar bezala zaintzeko kapaz ez denak?", bota zuen Egoitzek. "Nundik eraso behar zenidan aspaldi nizun usaindu./ Zorionez hark guk ez daukagun etorkizun ona zain du/ ta bi bagaitu haurrak zergatik guraso bakar-rak zaindu?/ Gure arteko gora-beherarik ez beza berak ordaindu", erantzun Andonik.

Bikoteka baina zortziko txikian jarraitu zuen saioak. Gorabeherarik gabe eta lanak txukun bete-



Andoni Goitia bertsoan Oñatiko gaztetxean. | OÑATIKO BERTSO ESKOLA

tzen jarraitu zuten. Hemen Arregi eta Lizarralde ibili ziren finen. Publikoak ere gozatu zuen beraiekin. Taberna berdineko bi zerbitzari ziren, baina bezero guztiek Maiderrri eskatzen zizkioten trago guztiak. "Zuk edaten diezu tragoen erdia" bota zuen zerbitzari popularrak eta "edan omen ditut nik, erdiak traguak/ eta gainera dira, zuk zerbiutakuak" erantzun bakar-tuak.

Lau oinekin bertso bat osatu eta kartzelako lanera pasa ziren bertsolariak. Puntu erantzuna eta bakarka bertso bana eskatu izan zen jarritako lana. "Ez dugu beti izaten gustuko bisita" jarri zitzairen puntu modura eta honetan Goitia moldatu zen egokien: "Sarritan gogoz kontra egin behar zita/ baina bizitza nola doan ikusita/eskua eman behar begiak itxita".

Bakarkako gaia "joan den bisitariak deserroso utzi zaitu" izan

zen. Urko Egañaren lana izan zen azpimarragarriena: *Nire begiko lagun min-min bat inguratu zait honela/ esanaz bere bizitza inper-nu grabe bat dela. /Nik esan diot txarrena ere igual konpon daite-kela./ Begirada bat bota dit eta azkena balitz bezela/ bi masailak mela-mela/ atea itxi ta agertu nau. Ze egoera krudela./ Iruditzen zait bera joanda ni ere joan naizela".*

Hori horrela, Arregi doa finalera. Gainontzekoek bigarren kanporaketa pasa eta puntuen arabera jakingo dute pasako diren edo ez. Lasaitua ere igarri zitzairen bertsolarietako bukaerako agurretan. Olaldekin detailea ere izan zuen publikoan zeuden birekin: "Bertso eskolak emanda ditu horra ze fruitu ugari/ nere txalo ta animo berriak ditugun biri/ Urko eta Gontzaleri". Zapatuan arituko dira lehenengokoz Oñatiko Bertso Txapelketan.

Aitor Arregi, Kepa Errasti eta Asier Altuna sarituak Zine Bileran

ANDER LARRAÑAGA | DEBAGOIENA
Lekeitioko 37. Euskal Zine Bilerak debagoiendar ugari saritu ditu; izan ere, eskualdeko zazpi film labur sailkatu ziren finalerako eta horietatik bostek jaso dute sariren bat, batzuek bi ere bai. Hori ikusita, argi dago zinemagintzaren arloan bailara emankorra dela.

Sail profesionalean Debagoienetik sailkatutako hiru laburrak saritu dituzte. Batetik, Bergarako Asier Altunaren *Soraa* film laburrak argazki onenaren saria jaso du. Bestetik, Kepa Errasti aretxabaletarraren *Aitona Mantangorri* lanak gidoi onenaren saria. Eta azkenik, Aitor Arregiren *Zarautzen erosi zuen* laburrak bi sari eskuratu ditu: film onenarena eta zuzendaritza onenarena. Arregi oñatiarrak, gainera,

jaialdi horren baitan antolatutako *Zinema begiratu eta uler-tu. Nola?* mahai-inguruan parte hartu zuen.

Zinegile-harrobi bikaina

Huheziko Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasle ohien artean ere, iaz eskoletan egin-dako lau film labur sailkatu ziren finalera, eta horietatik bi saritu dituzte.

Labur horiek sail amateurrean lehiatu dira eta ondorengo sariak jaso dituzte: *Positibatzea* lanak *Gazte 22* saria eskuratu du -22 urtetik behe-rakoei zuzendutako saila da hori- eta *Anonymous* film laburrak bi sari irabazi ditu; bate-tik, ekoizpen onenarena, eta bestetik, *Antzar Morea* saria -genero ikuspegia hoberen txer-tatzearen emandakoa-.



Lekeitioko 37. Euskal Zine Bilerako sarituak. | EUSKAL ZINE BILERA

19. Korrikaren 'Denok Korrikara!' bideoklipa kaleratu dute dagoeneko

Oskorriren Sautrela abesti famatua moldatu dute aurtengo Korrikako ediziorako

ENEO AZKARATE | DEBAGOIENA
Datorren martxoaren 19tik 29ra Urepeletik Bilbora izango da 19. Korrika. Egitaraua zehazten ari dira dagoeneko eta eguene-tik dago kaleratuta kantaren izen bera daraman *Denok Korri-kara!* bideoklipa. Oskorriren Sautrela abestiaren moldaketa da. Bilboko taldeak, Gabriel Arestiren hitzak oinarri har-tuta famatu egin zuen abestia-rena, hain justu ere.

Bideokliparekin batera, Korrika Laguntzailea kanpaina da, orain, lehen urratsa, hau da, lasterketarako dirua biltzea.

Herritarren sostengua bere-biziko laguntza dela nabarmen-du du Mertxe Mujika AEK-ko

buruak, erakundeetatik jasota-ko diru laguntza ez baitzaie nahikoa; Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, bere horretan dau-de laguntzak azken urteetan, eta Nafarroan batere laguntza-rik ez daukate. Laguntzaileen kanpainari aparteko garrantzia eman diote, beraz. 12 euroren truke, Korrikaren pina eta des-kontu txartela emango dituzte.

Durangoko Azoka omenduz

Korrikak euskararekin zeriku-sia duen eragileren bat omentzen du, eta datorren urtekoan Duran-goko Azoka izango da. Aurtengo abenduaren 7an, domekan, egingo dute omenaldi ekitaldia, Durangon bertan.

Lopez de Munain sailkatuta finalerako

Bergarako Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketa jokatu zuten egubakoitzean. Gari Lopez de Munain gelditu zen lehenengo eta finalerako txartela eskuratu du. Haren atzetik: Eñaut Uriarte, Unai Arantzabal eta Jon Patxi Aiastui. Datorren kanporaketa hilaren 12an izango da Pol-Polen eta finala hilaren 28an, Kortazarren.



IMANOL SORIANO

ANGER

GURE MUSIKA TALDEAK

Anger laukotea *Sute perfektua* diskoaren promozioan. | ANGER

"Beste erronka bat behar genuen eta 'Txap' egokia zen grabazioa egiteko"

- ▶ Bonbereneara jo dute arrasatearrek 'Sute perfektua'-ri bizitza emateko
- ▶ Zapatuan 11:30ean Ahotsenean izango dira diskoa zuzenean aurkezten

J.D. | ARRASATE

Anger arrasatearrek estudioko laugarrena kaleratuko dute aste honetan bertan: *Sute perfektua*. **Sute perfektuari bizitza eman diozue; zertan datza?**

Disko honetako abestiek bizi dugun eta konturatu gabe erretzen gaituen sute perfektuaren inguruan hitz egiten dute. Guztia aurretik eramaten duen eta sostengarria ez den sutea, libre sentiarazten gaituena baina gero eta kate motzagoan lotzen gaituena, oso erraz asimilatzen diren su artifizialekin gerra deklaratzaren dugun bitartean gure uestezko ametsak, sormena eta bizitzeko modua merkantzia bihurtzen dituen.

Nolakoa izan da prozesua?

2014ko urtarrilean planteatu genuen urte bukaerarako disko berria grabatzea, eta ordutik irailera, ideia ezberdinak landuz abestiak garatzen joan gara. Lehenik eta behin, lokalean landuz

eta ondoren Beñaten etxeko estudiantxoan zirriborroak grabatuz. Tarte honetan ez dugu kontzerturik eskaini konposatze lanetan zentratzearen, gure kasuan taldekide bakoitzaren errealtatea, kontzertuak eta konposatze lanak uztartzea konplikatua baita.

Zuen kasuan zerk du garrantzi handiagoa, hitzek ala musikak?

Hitzek musikak besteko pisua daukate gure abesti eta diskoetan. Guretzat, abestiak konposatzea sormen ariketa bat da ondoren kontzertuak emanez disfrutatze-ko, baina ariketa hau testuingu-

ru jakin batean kokatzen dugu, irakurketa bat egin eta mezu bat zabaltzeko asmoz. Gure disko guztietan bizi dugun garaia irakurketa egiten dugu; betiere, modu kritiko-autokritikoan eta ikuspuntu sozial edo politikotik. Musika, eta sormena oro har, tresna ezin hobea iruditzen zaigu ikusten, pentsatzen eta sentitzen duguna adierazteko. Ez dugu besteen lanak epaitu nahi, baina, emaitza orokor moduan, azken urteotan sormenean eta batez ere musikan bozgorailu kritiko edo eraldatzailea izateko aukera aprobetxatzen ez dela iruditzen zaigu. Kontrara, arlo honetan sustatzen den eredia oso bestelakoa da, sarri hitzei edo esan nahi denari garrantzia kenduz.

Disko guztietan musikalki urrats bat aurrera egin duzue.

Horrela izaten saiatu izan gara, ez da behartuta egiten dugun gauza bat, modu naturalean gau-

ZERTZELADA



SUTE PERFEKTUA

Estiloa: Metal, Rock.**Egilea:** Anger (Arrasate, 2014).**Argitaletxea:** Bonberenea Ekintzak.**Iraupena:** 39:28 minutu.

Erretzen ez denak ere transmititzen du

Arrasateko laukotearen lan hau entzuten hasterakoan pentsatu dut taldearen hastapenetako metalera itzuli direla eta Beñato gitarra jotzaileak, Momoren laguntzarekin, pultsua irabazi duela. Baina diskoa aurrera joan ahala, oso azkar egiaztatu dut riff eta erritmo metalero zein thrasheroak nagusi badira ere, bestelako soinu mota gordetzen duela. Azken lanetan hain presente zegoen post-hardcorea ez dago hain agerian, eta horren orde bestelako sonoritateekin proba egin dute, lasaigoak, dantzagarriagoak eta iradokitzaileagoak direnak. Askatu deskubritzeko disko berriak, baina hobe zuek egiten baduzue bilaketa. Eta kantuen hitzek beste artikulatu bat merezi dute.

IKER BARANDIARAN

za berriekin probak egiteko grina daukagu, eta oraingoan ere hainbat elementurekin jolasten saiatu gara. Oso nabarmena izango ez den arren, musika beltzak, funk edo rapak protagonismo handiagoa hartu dute diskoan; gure identitatearen parte diren elementuei muzinik egin gabe.

Oraingoan, gainera, Bonberenean grabatu duzue; zelan joan da?

Azken lanak Josema Linazasororekin grabatu ditugu, eta bide horretan ezinbesteko pieza izan da, irakatsi digunagatik, egindako ekarpenagatik eta lortutako harreman estuarengatik. *Sute perfektua*-rako beste ikuspuntu bat, beste erronka bat behar genuela ikusi genuen, eta, horretarako, *Txap* egokia izan zitekeela pentsatu genuen. Ibilbide garrantzitsua duen teknikari eta musikaria da, eta guretzat esanguratsuak diren zenbait diskoren grabaketetan zeresan garrantzitsua izan du; Berri Txarrak, Anari, Kashbad, Dut, Kuraia, Willis Drummond eta Glaukomarenak, besteak beste. Hiru bat aste egin ditugu Tolosako Bonberenean diskoa grabatu eta nahasten, eta esperientzia benetan polita izan da. Oso giro onean, oso prozesu atsegina izan da, eta, beste behin ere, asko ikasi eta grabaketaz eta emaitzaz asko disfrutatu dugula esan dezakegu.

Diseinuari garrantzia eman diozue.

Hitzak eta musika transmisiorako tresna diren neurrian, diseinua ere horretarako osagai garrantzitsua dela iruditzen zaigu, eta, horrengatik, berebiziko arreta eskaintzen diogu. Unai Bergarak egin du, eta, aspalditik ezagutzen dugunez, erreparrorik gabe esperimentatzen du.

Ruper Ordorikaren Zaindu maite duzun hori-rekin ausartu zarete.

Ordorikarengandik musikalki urrun samar gauden arren, asko miresten dugun sortzailea da. Bere ibilbidea, abestiak nahiz hitzak oso esanguratsuak iruditzen zaizkigu. Aurreko urteko Elkartasun Egunean, Anger Duhalde eta Hapa Hapa bezala, kantua prestatu genuen. Emaitza polita iruditu zitzaigun diskoa konposatzen ari ginela kontzeptu orokorrarekin, eta musikalki lekua zeukala ikusita grabatzea erabaki genuen.

"Etxeko aurkezpenean lanean gabiltza oraindik"

Diagnosticakoaren eragina nahaste psikologikoetan

Koldo Gilsanz pediatriak dio diagnostikoa, batzuetan, oztopo izan daitekeela

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE
Diagnosticoko batek lasaitua ematen du, identifikazio goiztiarrak aukera ematen baitu arazoa larri-
gia izan aurretik bideratzeko. Baina nahaste psikologikoei buruz hitz egiterakoan kontu handiz ibili behar dela ohartarazten du *Guraso.com* atarian Koldo Gilsanz pediatriak. Zorionez, zenbait estigmatizazio desagertuak dira, bai-

na diziplinaren konplexutasuna handia da, eta, Gilsanzen esanetan, "ez-normalak ez du beti gaxoa esan nahi". Gilsanzek onartzen du aurrerapauso handiak eman direla, baina psikologiak bide luzea duela aurretik eredu kliniko klasikoaren barruan funtzionatzeko. Gainera, faktore biologiko-organikoez gain, psikologiak faktore kognitiboak, afektiboak,

emozionalak, jokaera aldagaiak eta testuinguru sozialak hartzen ditu kontuan. "Kontuz ibili behar dugu normala zer den esatean, eta ez errazegi ondorioztatu normala ez dena anormala dela".

Patologiak sortzeko joera
Gilsanzek ohartarazten du termino kliniko asko gaizki erabiliak direla, eta gizarte honek edozein jokaera patologia bihurtzeko joera duela. "Pertsona bati etiketa bat jartzen diogu, eta horrek pisu bat du, hala bere nortasunean nola bere ingurunean". Irakasleek, gurasoek eta sendagileak etiketekin kontuz ibili beharko genukeela uste du adituak.

Gehiegizko medikazioari buruz ere mintzo da, eta multinazional farmazeutikoen papera azpimarratzen du. "Diagnosticokoaren lehen arriskua berarekin dakarren tratamendua da. Arazoa bereziki larria da haurrei buruz hitz egiten dugunean. Oraindik ez dakigu psiko-farmako batzuen epe luzerako eragina zein izango den. Medikazioak azken aukera beharko luke".



Umea, etxeko parkean, jostailuz inguratuta. | NETICOLA

Gaztetasuna luzatzeak lotura estua du, gaur egun, heldutasuna prekarizatzearekin

Diego Carbajo soziologoak ikerketa egin du EAEko 25 eta 34 urte arteko gazteak elkarriketatuta

L.Z. | ARRASATE
Tradizionalki, pertsona heldua eratzen duten ezaugarriak dira: lan eta bikotekide egonkorrak lortzea, etxebizitza bat jabetzan hartzea eta familia osatzea. Diego Carbajo ikertzaileak gazteen estrategiak aztertu ditu, eta ondorioztatu du gaur egungo egoera sozio-ekonomikoaren ondorioz betekizun tradizionalak apurtu egin direla, gaztetasuna luzatu egin dela eta prekarietatea ezarri dela heldutasunean.

Ikertzaileak gazteria kontserbadorea aurkitu du. Estrategia berritzaileak sortu dituzte, baina emantzipatzeko dituzten arazoei aurre egiteko. Kontua da behin-behineko irtenbideak behin betiko bihurtzen direla. Hala, gazteak gazte izateari uzten dio egoera prekarioan dagoen heldu bihurtzeko. Bada, prekarietate hori areagotu egiten da emakumeen kasuan.

Prekarietatea
Ikertzaileak azaltzen duenez, etxebizitza baten jabetza lortzeak lehentasunezko helburua izaten jarraitzen du gazteendako. Hala, 30 urte inguru betetzen dituztenean, alternatibak bilatzen dituzte pertsona heldu bati eskatzen

zaizkion betekizunak betetzeko. "Gazteak estrategikoki luzatzen du bere egonaldia etxean (...) edo pisu bat alokatzen du edo konpartitzen du". Beste helburuetako bat lan-egonkortasuna da. "Prekarietatea gainditzeko (...) gero eta gazte gehiagok denbora luzeagoa erabiltzen dute etengabeko prestakuntzan eta ikaskuntzan (...). Gazteek denbora librean lan egiten dute".



Neska taldea lanean. | FERNANDO

Biderketa taulak ikasteko metodologia ugari garatu dituzte

L.Z. | ARRASATE
Euskarazko materiala faltan igartzen da, baina metodologia erakargarriak aurki daitezke sarean biderketa taulak buruz ikasten laguntzeko.


Hirugarren mailatik aurrera irakasle, guraso eta ikasleendako biderketa taulak ikastea/irakastea buruhauste garrantzitsua bihurtu ohi da. Hiruaren eta lauaren taulak buruz ikasi behar dira, beste modurik ez dagoelako. Baina gainerakoendako badira lagungarri egingo zaizkigun zenbait trikimailu. *Guraso.com* atarira ekarri ditugu, eta bertan aurkituko dituzue loturak.

Bestalde, badaude hainbat metodologia garatu dituzten

adituak. Jesus Jarque pedagogoak, esaterako, inteligentzia bits-etan oinarritutako sistema hedatu du. Beste metodo bat garatu du Juan Luis Marquez doktoreak: Quick Multiply.

Taulak erreparasatzeko jokoak
Taulak ikasita ditugunean dibertigarria izan daiteke jokoan eta *on line* jardueren bitartez ikasitakoa erreparasatzea.

Hor ere askotariko aukerak daude: biderketa taulen antzaren jokoak, lau lerroan jokoak, estralurtar txikien jokoak, indio-larren jokoak edo Smartick webgunea. Gurasoek seme-alabekin batera egin dezakete jolasean, eta horrela biderketako taula erreparasatu.



1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Feliziano Aranzabalen, bi logelako etxebizitza salgai. 69,38 metro koadro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 627 59 75 38

102. EROSI

Bergara. Bergara aldean baserri bat erosiko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 51 07 71

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza jantzia ematen da errentan. Egoera onean. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Berokuntza indibiduala, gasarekin. Andra Marin. 605 74 34 39 (M.Carmen)

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Ferrerías kalean. Bi logela, sukalde-egongela eta komuna. igogailua eta berokuntza. PVC-zko leihoak. Hilean 500 euro eta komunitaterako 30 euro. Bi hileko fidantza eskatuko da. 652 76 21 63

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan. Egoera onean. Hiru logela, egongela, sukaldea, bi komun eta garaje-trastelekua. Berokuntza eta ur bero zentrala. Bizkaia Etorbidea 1ean. 645 73 29 66 edo 943 76 03 31 (Jose Manuel)

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan alde zaharrean. Guztiz berritua. Bi logela. Berokuntzarekin eta altzariz hornitua. Interesatuok deitu telefono honetara: 629 38 29 96

Elgeta. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, jangela-egongela, sukalde hornitua eta bi bainugela. Berokuntza eta igogailua. Egoera oso onean, eraikin nahiko berria. 606 08 39 92 edo 679 56 84 78

Eskoriatza. Etxebizitza berria ematen da errentan. Erdialdean dago. Hiru logela eta bi bainugela. 652 70 08 00

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, gutxienez bi logelakoa. Hilean gehienez 500 euro ordain ditzaaket. 605 68 18 49

Baserri bila Debagoienean. Bikote arrasatearra Debagoienean edo inguruan errentan hartzeko baserri bila dabil. 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

Bergara. Etxebizitza errentan hartu nahi dut. 667 36 09 39

Bergara. Hiru logelako etxebizitza hartu nahi dut errentan. Gehienez 500 euro ordain ditzaaket. 602 03 33 56 (Carmelo)

Bergara. Bergaran logela bakarreko edo biko etxe bat errentan hartu nahi dut. 616 39 49 91

Oñati. Logela bakarreko edo biko etxebizitza hartu nahi nuke errentan. 647 24 40 54

105. ETXEA OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan Zabalotegi 11n. 602 07 12 06

Bergara. Logela ematen da errentan, sukaldea eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Leku lasaian dago. Wifi-arekin. Hilean 250 euro, gastuak barne. Kontratu barik. 637 18 07 23

106. BESTELAKOAK

Etxebizitza aldatuko nuke. Gasteizen dagoen etxebizitza bat aldatuko nuke Aramain antzekoa den beste baten truke. 672 28 30 38

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ARRASATE

Jai Zale taberna errentan ematen da. Tel.: 699 66 92 05 (Julia)

402. ESKAERAK

Arrasate edo Aretxabaleta. Garbitasunean edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, gauetan zein asteburutan. Eskarmentua dut eta lege paperak ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 618 14 71 34

Arrasate. 36 urteko neska astelehenetik ostiralera etxeko laguntzaile moduan aritzeko gertu. Egun osoz, orduka, gau ez edota etxean bertan bizi izaten ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 678 80 96 01

Arrasate. Neska gertu asteburuetan, orduka, nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono honetara: 632 54 45 25

Arrasate. Sukalde laguntzaile, garbiketan edota lisatzen lan egingo nuke. Egunez. Interesatuok deitu telefono honetara: 632 23 46 19

Bergara edo inguruak. Haur Hezkuntza ikasten dabilen 24 urteko neska euskalduna naiz, Bergarakoa, eta haurrak zainduko nituzke arratsaldetan. Esperientzia handia daukat. Interesatuok deitu telefono honetara: 680 17 33 61

Bergara. 24 urteko neska arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Baita janaria prestatu, etxea garbitu eta ospitaleko egonaldiak egiteko ere. Esperientzia dut eta erizaintza ikasketak eginda. Bergaran zein Arrasaten edo Antzuolan. Interesatuok deitu telefono honetara: 618 92 40 53

Bergara. Emakume euskalduna, esperientziaduna, pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 690 05 79 07

Debagoiena. 56 urteko emakume euskalduna, geriatria laguntzaile tituladuna eskarmentuduna, orduka nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Nati. 676 78 22 35

Debagoiena. 56 urteko emakumea lanerako gertu. Eskarmentua dut umeak zaintzen, etxe zein lantegien garbiketan zein tailerrean. Interesatuok deitu 647 10 58 72 edo 943 79 96 25 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Arratsaldez edo orduka nagusiak zaintzen eta garbitasunean lan egingo nuke. Asteburuetan, etxean bertan bizi izaten ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 622 05 30 57

Debagoiena. Emakume euskalduna lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 606 50 25 67

Debagoiena. Erizain laguntzaile lanerako gertu: nagusiak paseoan lagundu, janaria prestatu, konpainia egin eta abar. Autoa daukat. 617 20 59 43 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Garbiketak egiten, nagusiak eta umeak zaintzen esperientzia daukat. Tabernak garbitzen ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 666 92 49 27 (Sarina)

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.eus/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoiena. Gizona lan bila, ordukanagusiak zaintzeko. Asteburuetan ere bai. Interesatuok deitu telefono honetara: 602 07 12 06

Debagoiena. Lan bila nabil: nagusiak zaintzen, garbitasunean edota sukalde laguntzaile. Interesatuok deitu 691 03 25 02 edo 943 54 09 41 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Mutila etxeko lanakegin, nagusiak zaindu edota sukalde laguntzaile jarduteko gertu. Esperientzia daukat nagusien zaintzan eta lege paperak ditut. 658 74 94 63 edo 632 26 01 84

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko edo garbiketarako. Interesatuok deitu honetara: 691 16 96 43

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen eta garbitasunean. Autorik ez dut. Berehalahasteko moduan. Interesatuok deitu telefono honetara: 603 63 21 99

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Garbiketan, zerbitzari eta banatzaile moduan lan egin izan dut. Berehala hasteko gertu nengoke. Gidabaimena daukat. Interesatuok deitu telefono honetara: 646 72 08 24

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Ingrid. 649 14 82 61

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta paseoan laguntzeko, etxeko lanak egin, garbiketak eta abarretan aritzeko gertu nago. Sukalde laguntzaile ere bai. Josten, brodatzen eta arropak egiten ere badakit. 631 10 76 99

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo etxe, taberna eta abarrek garbitzen lan egingo nuke. Baita orduka ere. Interesatuok deitu telefono honetara: 606 64 16 09

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen eta garbitasunean. Autorik ez dut. Berehalahasteko moduan. Interesatuok deitu 603 63 31 55 edo 677 83 37 23 telefono zenbakietara.

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketak egiten zein sukaldean pintxo eta abarrek gertatzen lan egingo nuke. Baita baserrietan ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono honetara: 697 20 00 86

Debagoiena. Neska arduratsu eta esperientziaduna lanerako gertu. Umeak zaindu, orduka garbiketak egin edota nagusiak zaindu eta paseoan ateratzeko laguntzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Garbiketak, umeak eta nagusiak zaintzen. Interesatuok deitu telefono honetara: 678 84 35 81

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Geriatria ikasketan ditut. Nagusiak zaindu edota garbitasun lanak egingo nituzke. Egun osoz, erdiz zein orduka. Interesatuok deitu telefono honetara: 656 85 66 02

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaindu eta garbiketarako gertu. Orduka edo egunez, baina etxean bertan bizi barik. Interesatuok deitu telefono honetara: 717 15 01 69

Debagoiena. Neska arduratsua, euskalduna, umeak eta nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat. 634 42 67 04

Debagoiena. Neska asteburuetan nagusiak zaindu edota garbiketarako gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 674 53 60 59

Debagoiena. Neska espainiarra nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko gertu. Egun guztian zehar. Esperientzia dut. Interesatuok deitu telefono honetara: 633 84 65 30

Debagoiena. Neska euskalduna lanerako gertu: etxeko lanak, nagusiak zaindu, gaua pasatu ospitalean eta abar. Esperientzia eta informereak ditut. Autoa ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 35 22 60

Debagoiena. Neska nagusiak zaindu eta paseoan laguntzeko, etxeko lanakegin, garbiketarako eta abarretan aritzeko gertu. Sukalde laguntzaile ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 66 33 63

Debagoiena. Mutila orduka zaintza lanak egiteko gertu. Eskarmentua eta erreferentziak daukat. 662 43 08 54

Debagoiena. Haur hezkuntzako ikasle euskalduna goizetan umeak zaintzeko prest. 688 61 11 01

Debagoiena. Mutil gaztea lan desberdinak egiteko prest; adineko jendea zaindu, sukaldeko laguntzaile, zerbitzari eta abar. 685 73 25 35

Debagoiena. Neska prest lan egiteko. Geriatriako ikasketak ditut. Ospitalean gaua pasatu edo etxean bertan gaixoak zaintzen. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600 00 51 60

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke, 10:00ak eta 16:00ak artean, garbiketan edo nagusiak zaintzen. Lan baimena eta lege agiriak daukat. 677 39 70 48

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke gauetan. Ana. 695 96 98 74

Debagoiena. Pertsonak zaintzen, garbiketan edota sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Hotelak garbitzen lan egindakoa naiz. Autoa daukat. 636 11 23 40

Debagoiena. Urte askoan nagusiak zaintzen aritutako neska lanerako gertu. 631 88 01 58 (Marlene)

Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasate. Emakume euskalduna goizetan orduka etxeko lanak egiteko gertu. 688 81 61 79 edo 943 77 00 26

Oñati. Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest: orduka, asteburutan, egun osoz, gau ez edota egun soltetan. Ikasketak eta urtetako esperientzia. 651 70 85 13

Sukaldaria. Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitarteak eta abar egiten urtetan aritutakoa. 666 83 21 95

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Kontabilitatea. Goi mailako ikasketak egiten ari den ikasle batek kontabilitateko laguntza eskolara jasoko lituzke. 688 63 68 43

Marrazketa eta materialak. Goi mailako Mekatronika ikasketak egiten dabilen ikasle batek marrazketan eta "materialak" arloetan laguntza jasoko luke. 696 14 88 95

Marrazketa teknikoak. Batxilergoko lehenengo mailako marrazketa teknikoko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut, Arrasaten. 669 87 24 54

Oñati. Irakaslea behar da bi neskatarik eskola partikularrak emateko. DBH 4. maila eta Batxilergoko lehenengo mailarako. 627 91 23 21 (Mila)

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. Abuztuan jaiotako katakumeak eta katu helduak ematen dira opari. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 09 63 46

Katu ar heldua. 3 urteko katu arrarentzat etxe berri baten bila nabil, zaindu ezin dudalako. Esterilizatuta dago eta behar dituen txertoak hartuta ditu. Oso jostaria da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 71 78 82

Txakurra opari. Pomerania arrazako txakurra, lau urtekoa, ematen da opari. Alergia arrazoiak direla eta, ezin dugu zaindu. Oso maitagarria da eta ume artean hazitakoa. Txertoak eta txipa dauka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 625 70 38 92

704. BESTELAKOAK

Txoriak. Txoriak badituzu emateko, nik jasoko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

8. DENETARIK

804. HARTU

Bizikletak. Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Iñaki. 699 06 23 95

805. TRUKATU

Korrika egiteko zinta. Oinez ibiltzeko edo korrika egiteko zinta trukatu nuke spinning-eko bizikleta baten ordez. Zinta Domios TC270 modeloa da. 13 km orduko hartzen ditu eta plataforma aldan ere ipin daiteke. Interesatuok deitu telefono honetara: 665 75 88 52

806. GALDU

Belarritakoa Bergaran. Urriaren 24an, ostirala, belarritakoa bat galdu zitzaidan. Aro bat da, bi zentimetro ingurukoa, eta brillanteak dauzka. Balio sentimental handia dauka. Norbaitek aurkituko balu eskertuko nuke nirekin harremanetan jartzea. Eskerrik asko. 660 64 95 50

807. AURKITU

Kartera Antzuolan. Dirua bakarrik duen kartera topatu dute Antzuolan. Ez dauka dokumentaziorik. Galdetu udaletxean. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 76 62 46

Pen-drivea Aretxabaletan. Azaroaren 20an, Durana kalean pen-drive bat aurkitu genuen. Informazio gehiagorako deitu zenbaki honetara. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600 05 19 00

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Neska bila. 40-45 urte bitarteko neska ezkongabea ezagutu nahiko nuke. Deitu telefono zenbaki honetara 615 75 09 90

ETXeko SUKALDERAINO

Maria Cruickshank | Aktorea

- Sukaldaritzarekiko grina txikitatik datorkio oñatiarrari
- Alaba bat izan du duela bi hilabete: ama eta aktore lanak batzen ditu

"Benetako umore oneko zerbait egitea gustatuko litzaidake"

ANDER LARRAÑAGA | OÑATI

Itsaso moduan ezagutzen dute askok Maria Cruickshank (Oñati, 1989), *Goenkale* telesailean pertsonaia horri bizia emateagatik. Duela gutxi ama izan da eta aktore lanak familiako betebeharrekin uztartu behar izaten ditu. **Zelakoa da Maria Cruickshank?** Pertsona bat beti egia eta gauza berriak dabilena bilatzen eta konformista ez dena. Saiatzen naiz nigan gauza berriak sortzen. **Ze harreman duzu sukaldearekin?** Onartu beharra daukat sukaldean ibiltzea asko gustatzen zaidala, baita jatea ere. Nire etxean asko ibili gara sukaldean. Esaterako, amak kurtso makrobiotikoak ematen ditu; hortaz, hura ere sukaldaria da. Hori horrela, betidanik izan dugu sukaldearekiko gustu handia, eta, egia esan, harremana estua da. **Zertara gonbidatuko zenuke lagunik onena?** L'Albirren (Alacant) dagoen jate-txe japoniar batera gonbidatuko nuke: sushi erraldoi zoragarria zerbitzatzen dute han. **Beraz, tradizionala baino, sukaldaritzaz modernoa nahiago...** Biak atsegin ditut. Leku hura probatu nuen duela urtebete eta ezberdina iruditu zitzaidan, ez

nuen inoiz halako sushirik probatu, eta uste dut, gainera, Espainiako sushirik onena egiten dutela han. Hala ere, sagardotegi batera ere joango nintzateke. **Zeinekin gustatuko litzazuke mahaiaren bueltan eseri?** Interesgarria iruditzen zaidan edozein pertsonarekin. Jende askorekin bazkaldu behar izan dut eta beti ezagutzen da interesgarria den norbait.

AUKERAN...

Lehen platera: Pasta asiarra.

Bigarrena: Ahate-paparra, magret-a.

Postrea: Sagar *tatin*-a.

Edatekoa: Sagar-zukua.

Zergatik aktore? Betidanik, txikitatik, jolastea gustatu izan zait, eta, niretako, antzerkian edo telebistan ibiltzea jolastea da. Beraz, zergatik nire lanean jolasten ez jarraitu platoa edo antzerkia den panpina-etxe erraldoi batean? Lana da, bai, eta serio hartu behar da, baina, niretako, jolastea da. **Nor miresten duzu interpretazioaren munduan?** Meryl Streep. Betidanik miretsi izan dut emakume moduan. Bere lana ikusgarria iruditzen zait. **Aktore ez bazina...** Margolari, agian? Arte Ederrak ikasi nituen; beraz, artearekin edo irudimenarekin lotutako zerbait. Irudimentsutzat daukat nire burua. **Antzerkia ala zinema?** Momentuaren arabera. **Zein antzezlan, pelikula edo telesailetan parte hartuko zenuke?** Edozeinetan. Pelikula edo antzerkiren batean. Telesailetan agian ez. Benetako umore oneko zerbait egitea gustatuko litzaidake. **Interpretatutako zein duzu pertsonariarik kutunena?** *Eta zer II* izeneko antzerki bat egiten dut. Bertan, pertsonaia desberdinak interpretatzen ditut, baina badago pertsonaia bat bene-



Maria Cruickshank oñatiarra. | MARIA CRUICKSHANK

"Betidanik miretsi izan dut Meryl Streep emakume eta aktore moduan"

tan maite dudana: *Amima* 8 urteko ume marokoarraren pertsonaia dut begiko. **Zer duzu maite bizimodu honetan?** Bizitza. Dena. Bizitzen baduzu kontzienteki, dena da polita: gauza berriak ikasteko eta onak disfrutatzeko. **Anekdotarik?** Duela bi hilabete ama izan nintzen eta *Goenkale*-n hasi naiz lanean. Amatasuna nire mutilari eman

diot, eta, hala, hirurok joaten gara grabatzera. Bularra ematen diot hartze eta hartze artean eta aurrekoan grabatzen geundela platoko ateak ireki ziren eta alabaren negarrak entzuten ziren. Momentu barregarria da. **Zerk beldurtzen zaitu?** Bizitzan galduta egoteak. **Lanetik etxera iritsi berri, sofan eseri eta...** Ez daukat telebistarik; hortaz, sofan eseri eta irakurri. **Nora ospa egingo zenuke gustura?** Edonora. Gustuko dut bidaiatzea. Egia esan, Espainiatik eta Frantziatik kanpo; Italiara, AEBetara, Asiarra... **Ze esaldi konpartituko zenuke?** Arnasa hartu eta pazientzia izan; gauzak hobeto etortzen dira.

PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

TXOKOLATEZKO ETA ESNE-GAINEZKO 'PETIT-SUISSE'-A

Berez *petit-suisse* postrearen esanahia errespetatzen badugu (gaztaz eta esne-gainez egindako postrea), nekez esan liteke gaur proposatu behar dizuedana hori denik; gehiago du mousetik *petit-suisse*-tik baino. Edozein modutan, emaitza ahoan dugunean halako teknizismoak berehala ahaztuko dituzue-nez, gomendioa da errezeta apuntatu eta kozinatzen hastea.

Ez dator Sultzatik Izenak dioen kontrara, *petit-suisse*-ren jatorria ez dago Suitzan, Normandian baizik. Baina egia dena da suitzar batek egin zuela lehen aldiz. 1850ekoa da postre horren gaineko lehen berria.



Petit-suisse-ak potetxotan, gainetik esne-gaina dutela. | THE COOK ROCKER

Auvilliersko (Goi Normandia) esne-fabrika bateko langile suitzar batek proposatu zuen esne-gaina gehitzea gazta egiteko erabiltzen zuten gaztanberari.

Papertxoan batuta Hasieran, paper fin batean batu-

ta saltzen zuten postre hori, egurrezko kutxetan paketatuta, bakoitzean halako sei. Pieza bakoitzak 60 gramoko pisua zuen eta *suisse* izena eman zioten orduan. Gaur egun, berriz, Frantzia osoan saltzen dituzte *petit-suis-*

se-ak, hiru tamainatakoak: *double petit-suisse*-ak (estra txikiak), *petit-suisse*-ak (txikiak) eta *double suisse*-ak (handiak). Eta jakina, gurean ere ezagun askoa da izen bereko postrea.

Fitxa

- Denbora: 40 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★

OSAGAIAK

- Postreak estaltzeko txokolatea, 200 g.
- Gurina, koilarakada bat.
- Lau arrautza.
- Azukrea, 100 g.
- Esne-gaina, harrotzekoa, 100 g.
- Aukeran, txupito bat brandy (eta beste bat guk geuk hartzeko).

Prestaketa

1. Lehenengo, txokolatea urtu behar dugu, gurinarekin batera. Maria bainuan urtu daiteke, baina mikrouhin-labea askoz ere erosoagoa da.
2. Urtutako txokolate eta gurinari lau gorringo gehituko dizkiogu (zuringoak gorde egingo ditugu, geroago erabiltzeko). Nahasketa hozkailuan gordeko dugu.
3. Bien bitartean, zuringoak elur-puntua izan arte irabiatuko ditugu. Poliki-poliki azukrea gehituko diogu.
4. Txokolatearekin lortu dugun *pseudomerengea* kontuz nahastu. Eta emaitza katilutan, edalontzitan, jogurt-pote hutsetan... banatuko dugu. Gero, hozkailuan sartuko ditugu, eta bertan egon beharko dute, gutxienez, pare bat orduz. Ordurako esne-gaina harrotuta beharko genuke. Esne-gaina gainetik botata ateratzen dira.


Lan munduko sareen jabe ere izan gura du Facebookek

Enpresen barne-komunikaziorako tresna bat izango da datorren urratsa

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Hazkundearen goia jota eta belau-naldi berria erakartzeko geroago eta gaitasun murriztagoa erakutsita, Facebookek bestelako zenbait urrats eman ditu azken urteetan: Instagram, WhatsApp eta Snapchaten erosketak, aplikazio berriak, publizitatea modu gehiago eta beste hainbat.

Erabat berria zaien alorrera egin gura dute jauzia orain, enpresa mundura, The Wall Street Journal-en argitaratu denez. Enpresen barne komunikaziorako tresna bat prestatzen dabil Zuckerbergen konpainia, informazioak dioenez. "Asmo handiko" proiektu moduan deskribatzen dute egunkari horretan eta tresna bezala, balioko luke, enpresa osorako barruko komunikazioa kudeatzeko. Albiste hau denboran bat dator Facebook eta lan mundua lotzen dituen beste zurrumurru ondo zabaltzekin. Izan ere, diotenez, LinkedIn-ekin lehian sartuko litzatekeen lan bilaketarako eta harremanetarako profesionalen sare sozial bat da Facebookek laster aurkeztuko duena. The Wall Street Journal-eko artikuluak aditzera ematen duenez, Facebook bi mota horiek bateratuko lituzkeen erreminta batean legoke lanean: lan bilaketa eta profesionalen sarea, batetik, eta enpresen barne-komunikaziorako aplikazioa, bestetik. Urtarrilean omen dira aurkeztekoak.



Argazki-muntaia. | JENNIHILLMEDIA

Gaur egun lan munduan informazioaren kudeaketak gaintitu behar duen langa handienetako bat posta elektronikoko mezuen metaketa nahas-mahas neurrigabea da. Arazoari aurre egiteko, Slack moduko aplikazioak geroago eta erabiliagoak dira. Slack-ek, zehazki, barne-komunikazio lanetarako e-posta alde batera utzi eta sare sozial baten itxura hartzen duen aplikazio bat proposatzen du, komunikazioa erraztu eta arintzeko. Antolaketa eta kudeaketa aukerak ere handiak dira Slack-en. Geroago eta enpresa gehiagok, e-postaren gainez egitearen aurrean, azaldutakoaren moduko alternatibak hasi dira erabiltzen. Bat baino gehiago dago merkatuan.

'Facebook at work'

Xehetasun gehiago ere ematen dira artikuluan. *Facebook at Work* izenarekin bataiatu dute egitasmoa, hain zuzen, eta posta elektronikokoaren alternatiba proposatuko du sare sozialak denbora errealean eguneratzen den eta komunikatzeko bideak ematen dituen plataforma eskainiz. Plataforma hori gainera, proiektuak eta lantaldeak kudeatzeko bereziki diseinatu egongo litzateke. Asmoa da gainera, doan eskaintzea, merkatuko antzeko tresnak ez bezala. Facebooken berezko hedapenak – 1.300 milioi erabiltzaile – abiapuntu onean jar leza ke egitasmoa baina pribatutasunari buruzko kritiken itzal luzea ere hor du Facebookek.

Beats Music zerbitzua eskaintzen hasiko da Apple

Informatzaileek diote hileko 5 eta 10 dolarreko harpidetza sistema proposatuko duela Applek

J.B. | ARRASATE

Beats konpainia erosi eta gero – 3.000 milioi dolar –, ikusteko zegoen musika entzuteko gailuen enpresaren jabe egin eta gero ze asmotan zebilen Apple. Gainera, Beats Music musika streaming zerbitzua ere hor dago eta ematen duenez iOS-en etorkizuneko bertsioetan sistemari bertan integratuta etorriko litzatekeela zerbitzua. Orain arte zurrumurrua izan dena, proiektuko partaide diren iturriek baieztatu dute zerbitzua berandu baino lehen agertuko dela Applen sistemetan. Zehaztasunetara ere jaitsi dira informatzaileak eta, aurreratu dute, hileko 5 eta 10 dolar arteko harpidetza tarifak eskainiko lituzke zerbitzu berriak.

Uneotan Apple hainbat diskoetxerekin lebilke tratuan katalogoen eskubideak nego-

ziazteko, berez, Beats Music-ek oso murrizta baitu. Iturriek ziurtatzen jo badute ere, deigarria da planteatzen den harpidetzaren prezioa, kontuan izanda, datuen arabera, ohiko erabiltzailea ez legokeela pagatzeko prest urteko 40 euro baino gehiago, asko jota.

Diskoetxeak ezin ase

Zerbitzuaren kostuaren eztabaidan diskoetxeen presioek baliteke zeresana eduki izana. Youtube eta Spotify zerbitzuetan eskaintzen den doako musika kopuru handiari etekinik zelan atera ezin asmatu dabilta musika konpainiak eta ematen duenez, halako zerbitzuei langak jarri ala harpidetzak garestitzeko eskatzekotan dira. Kontuak kontu, litekeena da Beats Music hurrengo eguneraketarekin batera etortzea.



Beats-en aplikazio mugikorraren irudia. | BEATS



Netflix erabiltzen, bi ikusle. | NETFLIX

Telebista 2030ean desagertuko dela dio Netflixen buruak

J.B. | ARRASATE

Netflix-eko zuzendari nagusia da Reed Hastings eta hark dioenez, "telebista tradizionalaren aroa 2030 urtean amaituko da". Film eta telesailen streaming zerbitzua da berea, munduko ezagunena eta arrakastatsuen, eta zalantzarik ez du etorkizuna Internet bidezko nahierako telebista dela esatean. Gaur egun ez bezala, edukien bana-

keta globala izango dela dio hark eta horretarako mundu mailako eduki banaketa eskubideak eskatzen ditu Hastingsek.

Netflix konpainia estatubatuarrek sorterritik harago kontinente amerikar osoan egin du jada hedapena. Europan, Erresuna Batuan, herrialde eskandinaviarretan eta Herbehereetan eskaintzen du dagoneko zerbitzua.

Debagoiena da enpresak IKTetan ondoen hornituta dituen eskualdea Eustat-en arabera

J.B. | ARRASATE

Inkesta kaleratu du Eustat erakundeak Informazio eta Komunikaziorako Teknologiaei (IKTak) buruzkoa. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, webgunea duten enpresen %47,2ak euskaraz ere badu. Debagoiena da enpresetako webgune gehien euskaraz dituen eskualdea, alde handiarekin.

Informazioaren Gizarteari buruzko inkesta kaleratu berri du Eustatek, Euskal Estatistika Institutuak. Debagoiena nabarmen agertu da inkestan 10 behargin ala gehiagoko enpresen artean, Informazio eta Komunikazioaren Teknologietan ondoen hornituta dagoen eskualdea dela. Hala, enpresen %96,7ak du Internet-

rako konexioa. Deigarria da, baita ere, kode-irekiko programak erabiltzen dutenen artean ere, ehuneko oso altua dela: %85,1. Debagoienean, era berean, enpresen euskarazko webguneen proportzioa handia da, gainontzeko eskualdeekiko alde nabariarekin. Hala, enpresen %74,8k dute webgunea euskaraz; Gipuzkoako %61,1eko batez bestekoaren gainetik eta, oso gainetik, hiru probintzien batz bestekoari erreparatuz gero, %47,2.

Parkinsona dutenentzako koilara

Parkinson gaitza dutenek inoren laguntza barik jan dezaten, goi-teknologiako koilara garatu eta merkaturatu du Googlek. Liftware enpresaren sorkuntza da, konpainiak urte hasieran erosi zuena, eta dardarizoa %76 murrizten duela diote.



VIMEO

TELE-BEGI



IMANOL GALLEGRO

San Nicolas 'coronado'

Halaxe da, bai, Nicolas txikiak bere burua koroatu du. Hilabetez isilik egon eta gero, mingaina askatu eta telebis-taren errege bilakatu da. *Telecircon* hasi zuen bere erromesaldia, eta asteen ere, hainbat komunikabidetan ikusi dugu Nicolasito berak bizi edo asma-tutakoak kontatzen.

Itxuraz, Espainiako espioi, tratante eta diplomatiko arrakastatsua izan da, XXI. mende-ko Mata Hari txiki hori. Berak azaldu duenez, Juan Carlos eta Felipe erregeekin harreman ona dauka, eta pre-sidenteordea, ia bere kuadril-lakoa da.

Telecircon behin eta berri-ro errepikatzen duenez, bere Whatsappa altxor bat da. Nico-lasitok, bere familiako kideak eta kuadrillakoak eta zenbait lige izateaz gain, JuanCar, Sorallita, Marianito, Felipito... eta maila horretako jendetza omen dauka. Letiziak bidali-ko ote zion katutxoen bideoa? Batek daki. Whatsappean horren kontaktu ilustreak izanda, inoiz bidali ote die begitxoak dituen mokordotxoak?

Nire ustez, bere istorioak usain txarra dauka, baina orain arte telebisten apeu nagusia zen Pablo Iglesiasi tronua kendu dio Nicolas txi-kiak.

ASTEAGOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 1	MARTITZENA, 2	EGUAZTENA, 3	EGUENA, 4	EGUBAKOITZA, 5
				
'Harmailatik' Errugbian Arrasate Kanpanzar taldeak lrunen aurka jokatu-tako momenturik one-nak ikusiko dira. 22:00	Zubiateko labea Eskoriatzako Zubiate-ko labea ezagutzeko aukera izango da Mireia Bikuñaren eskutik. 20:00	Osoko bilkura Arrasaten martitze-nean egingo den oso-ko bilkura oso-osorik eskainiko da eguazte-nean telebistan. 22:30	'Amaia DJ' Whatsapp eta sare sozia- len bitartez ikus-entzuleek eska- tutako bideoklipak jarriko dira. 22:00	'Azokan gaur' Durangoko Azoka zabaldu berritan egin- dako magazin saioa eskainiko da Durango- tik bertatik. 10:30
12:00 Debagoiena zuzenean 13:00 Sasoi betean 13:25 Zorion Agurrak 13:30 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Kulturizketak 15:30 Onein 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Osoko bilkura 18:00 Bertso saioa 18:25 Zorion Agurrak 18:30 Berriak 19:00 Amaia DJ 19:30 Kulturizketak 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Harmailatik 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Kulturizketak 00:00 Debagoiena zuzenean 00:30 Berriak	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Harmailatik 13:00 Sasoi betean 13:25 Zorion Agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik 15:30 Onein 15:55 Zorion Agurrak 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Kontzertua 18:15 Ikusmira 18:25 Zorion Agurrak 18:30 Berriak 19:00 Idemtitateak 19:30 Harmailatik 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Kulturizketak 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Harmailatik 00:00 Debagoiena zuzenean 00:30 Berriak	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Kontzertua 13:55 Zorion Agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Sasoi betean 15:30 Onein 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 Berriak 17:00 Harmailatik 17:30 Kontzertua 18:25 Zorion Agurrak 18:30 Berriak 19:00 Harmailatik 19:30 Idemtitateak 19:55 Zorion Agurrak 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Gipuzkoa pedalka 22:30 Osoko bilkura 23:30 Berriak 00:00 Debagoiena zuzenean 00:30 Berriak	12:00 Debagoiena zuzenean 12:30 Gipuzkoa pedalka 13:00 Idemtitateak 13:30 Ur eta lur 13:55 Zorion Agurrak 14:00 Debagoiena zuzenean 14:30 Berriak 15:00 Bertso saioa 15:25 Zorion Agurrak 15:30 Onein 16:00 Debagoiena zuzenean 16:30 BERRIAK 17:00 Osoko bilkura 18:00 Kulturizketak 18:25 Zorion Agurrak 18:30 Berriak 19:00 Sasoi betean 19:30 Gipuzkoa pedalka 20:00 Debagoiena zuzenean 20:30 Berriak 21:00 Debagoiena zuzenean 21:30 Berriak 22:00 Amaia DJ 22:30 Debagoiena zuzenean 23:00 Berriak 23:30 Gipuzkoa pedalka 00:00 Debagoiena zuzenean 00:30 Berriak	10:30 Azokan gaur 11:40 Kontzertua 12:00 Amaia DJ 13:30 Tribuaren bertak 14:30 Tumatzak 15:00 Kontzertua 15:30 Kulturizketak 16:00 Landakoenea 17:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots 18:00 Azokan gaur 19:00 B alde 20:00 Debagoiena zuzenean 21:00 Kulturizketak 21:30 Amaia DJ 22:00 Debagoiena zuzenean 23:00 Kontzertua 00:50 Debagoiena zuzenean

Akauzazte taldearen kontzerturako sarrerak zozketatuko dira

Kooltur ostegunak egitasmoa- ren barruan, Azkoitiko den Akauzazte taldeak emango du kontzertua gaztetxean egue- nean, 22:00etan. Bertarako sarrerak lortu nahi izanez gero, deitu 943-25 05 05 telefo- nora edo idatzi *irratia@goie- na.com* helbidera. Zorte on, entzule!

Ain_1 taldea elkarrizketatuko dute gaur, astelehena

Badoa, badirau da Ain_1 lau- kotearen bigarren lan luzea. Diskoa argitaratu berritan, taldeko kide Amaia Pavon elkarrizketatuko dute gaur, astelehena, *Igo autobusera!* irratsaioan, 11:00etan. Lan berriaren nondik norakoak kontatuko ditu Pavonek Arra- sate Irratiko 107.7ko uhinetan.

Durangoko Azokari buruzkoak izango dira 'Igo autobusera' -n

Ate joka dago euskal kultu- raren plaza izango den Duran- goko Azoka. Bertan izango dira disko, liburu edo beste- lako produkturen bat eram- go duten Debagoieneko hain- bat sortzaile ere, eta horien berri jasotzeko aukera izango da asteen, 10:00etan eskaintzen den *Igo autobusera!* irra- tsaioan, Arrasate Irratian.

Durangoko Azokan gertatzen dena jarraitu ahal izango da hilaren 5etik 8ra bitartean

Azoka Telebistak eskainitako programazioa jasoko du Goiena telebistak

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE Egubakoitzean, hilak 5, zabaldu- ko dute lau egunetan kulturaren plaza izango den Durangoko Azo- ka. Eta etxetik, Goiena telebis- taren bitartez, azokan gertatzen dena ikusi ahal izango da 10:30etik 20:00etara, egubakoitzetik dato- rren astelehenera bitartean.

Hainbat saio ikusgai

Azokak irauten duen egunetan hainbat saio ekoiztuko dira Azo- ka Telebistak Landakon izango duen gunetik eta horiek ikusiko dira Goiena telebistan.

Azokan gaur magazin estilo- ko saio bat ekoiztuko da goiz eta arratsaldetan. Egune-ko egitaraua gogora ekarri eta azokan dauden artistak elkarrizketatuko dira, besteak beste, saio horretan.



Iazko Azoka Telebistarako adierazpenak hartzen, Durangon. | GOIENA

Amaia DJ bideoklipen saioa ere ekoiztuko da; Euskal taldeak elkarrizketatu eta euren bideo- klipak aurkeztuko dira.

Kulturizketak edo *Tumatzak* saioak ere ikusi ahal izango dira baita zuzeneko kontzertuak eta ekitaldiak jaso ere.

Lander Garro idazlea martitzeneko 'Kulturizketak' saioan izango da

Autobiografikotik asko duen 'Gerra txikia' eleberriaren nondik norakoak kontatuko ditu

A.T. | ARRASATE Aurten bigarren eleberria kale- ratu du Lander Garro euskal idazleak: *Gerra txikia*. Susa argitaletxearekin argitaratu du eta bihar, martitzena, Larraitx Zeberio- k aurkezten duen *Kul- turizketak* saioan izango da gonbidatu (22:00).

Errefuxiatu familia

Berez Oreretakoa den baina Hendaian errefuxiatzen den Ugarte familiaren istorioa kon- tatu du eleberrian, Xabi izene- ko seme txikiarenaren ikuspun- tutik. 80ko hamarkadan koka- tzen da lana eta autobiografikotik asko duen istorioa da *Gerra txikia*.

Politikak sortutako gatazka eta izua dira istorio horretako



Lander Garro. | GOIENA

protagonistak; GAlen garaian giro- tutako atxiloketak, hilketak eta deportazioak gogora ekar- riz, iraganeko mamuak berresku- ratu ditu euskal idazleak. Horren berri emango du, beraz, marti- tzenean Goiena telebistan.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Malen Balerdi Berezibar
Abenduaren 6an, 11 urte.
Zorionak! Patxo handi bat familiaren eta zure lagun guztien partetik.



OÑATI
Jokin Madina Korta
Abenduaren 5ean, 9 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
June Iriarte Balerdi
Abenduaren 3an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunean eta patxo handi bat zure familiaren partetik. Bereziki Aner, Malen eta Naroa.



BERGARA
Markel Arana Mendizabal
Abenduaren 1ean, 3 urte. Zorionak eta muxu potolo-potolo bat zure urtebetetzean. Ondo pasatu eguna danon partetik.



ARRASATE
Alaitz Zaitegi Manzanaz
Azaroaren 28an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure urtebetetzea. Aitatxoren, amatxoren eta Iratiren partetik. Muxu handi bat!



OÑATI
Mario Elizburu
Azaroaren 28an, 7 urte. Zorionak, mutiko handi! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Txokolatada goxoa zure zain! Muxu potoloak etxeko guztien eta, bereziki, Enzoren partetik.



OÑATI
Hodei Benito Alzelai
Azaroaren 27an, 2 urte. Zorionak, maittia! Ondo-ondoo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu potolo bat. Aitatxo eta amatxo.



ANTZUOLA
Oier Lasa Oncala
Azaroaren 27an, 3 urte. Zorionak, polita! Gure etxeko jefek hiru urte bete ditu. Ondo pasatu zure egunean, aitatxoren, amatxoren eta Noraren partetik. Muxu handi bat.



ARRASATE
Karen Ruiz Arana
Azaroaren 26an, 16 urte. Zorionak, *moni*! Egun ona pasatu! Etxeko denon partetik. Asko maite zaitugu, potxoli. Muxu potolo-potolo bat.



ARETXABALETA
Danel Seijo Fernandez
Azaroaren 25ean, 14 urte. Zorionak, Danel. Muxu asko zure familiaren aldetik. Asko maite zaitugu. Oso ondo pasatu zure eguna.



ARRASATE
Aitor Rubio
Azaroaren 24an, 7 urte. Zorionak zure zazpigarren urtebetetzean!



ARRASATE
Irantzu Souto Lasa
Azaroaren 22an, 4 urte. Zorionak, sorgintxo! Oso ondo pasatu egun berezi honetan eta txokolate eta txurro asko jan! Muxu handi-handi-handi karrukada bat, etxeko denen partetik, maittia!



BERGARA
Peru Larrañaga
Azaroaren 21ean, urtebete. Zorionak, printze! Jarraitxu zure barretxo politx horrekin poz-pozik! Patxo potolo bat gu danon partetik baña jaso handixena Sarerena! Zorionak, Perubitxo!



ARRASATE
Haizea Arroyo Zubia
Azaroaren 29an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure eguna. Patxo handi-handi bat familiaren eta laguntxoan partetik.



OÑATI
Maren Arenaza Altube
Abenduaren 3an, 5urte. Zorionak potxola zure egun honetan. Muxu potolo bat etxeko danen partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.eus* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariatzaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Jaio da!

**Eman jaiotzen berri Goiena
paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora
edo zatoz GOIENAREN ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte
jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Xira Moral Iturbe

Arrasate. 4,090 kilo. Azaroaren 27a.
Gurasoak: Amaia eta Iker. Argazkian,
Xira gurasoekin.



Garazi Txurruka Agirre

Arrasate. 4,220 kilo. Azaroaren 27a.
Gurasoak: Estibaliz eta Eduardo. Argaz-
kian. Garazi jaioberria gurasoekin.



Aimar Hernandez Lopez

Arrasate. 3,750 kilo. Azaroaren 25a.
Gurasoak: Naiara eta Jorge. Argazkian,
Aimar gurasoekin.



Maddi Agirretxe Ayala

Aretxabaleta. 3,670 kilo. Azaroaren 25a.
Gurasoak: Oihana eta Xabier. Argazkian,
Maddi txikia sehaskan lo.



Unax Azurmendi Lopez

Arrasate. 4 kilo. Azaroaren 25a. Gurasoak: Ruth eta Asier. Argazkian, Unax jaioberria sehaskan.



Asier Maiz Mora

Arrasate. 3 kilo. Azaroaren 21a. Gurasoak: Maider eta Haritz. Argazkian, Asier, aitaren besoetan.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

		Halakoa edo	▼	Azienda	▼	Saguzarrak	▼
		Andaluziako hiria		Sobera		Gadolinioa	
	▶			▼		▼	
		Jorratu	▶				
		Eskas					
Aiarako	▼	Gaude	▶	▼		Bokala	▶
Toka, digu		Gur egin				Neguko kirola	
▶		▼			Dagoen	▶	▼
					Lasaitasun		
* Irudiko garraiobidea	▶				▼		
Abere emea							
▶						Kriptona	▶
						Ez eme	
Kanpo, landa	▶		Gauza, gaia	▶		▼	
Trukatzeke moduak			Potasioa				
▶			▼				

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

Л	К	П	К	В	Е	В	В	К
■	В	Л	■	Е	К	В	І	В
П	В	В	І	Х	В	■	К	В
■	В	П	Л	О	В	П	З	В
З	І	С	П	К	■	Д	Е	И
■	В	■	С	В	В	■	Е	■
	■	■	Г	В	И	Д	П	■
■	■	■	В	Г	В	С	В	■
■	■	■	■	■	■	■	■	■

BILA-BILA 7



AI, ENE!

Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!

Lehen, neguan hain ohikoak diren jertseek oreinak, elur malutak eta tankerakoak izaten zituzten. Orain, *Street Fighter*-eko pertsonaiak. www.nopuedocreer.com




AHOBERO

"Espainia ez dago ustelduta, ustel batzuk daude"

MARIANO RAJOY | ESPAINIAKO PRESIDENTEA

Ustelkeriaren kontrako osoko bilkura monografikoa egin zuten joan den astean Espainiako Diputatuen Kongresuan, eta bertan esan zituen hitzok Rajoyk. Kasualitatea da, bada, dauden ustel apur horietako asko bere alderdikideak eta gobernukideak izatea! www.eitb.eus

EGURALDIA



Max. **15°**
Min. **10°**

Euria egingo du, goizean goiz euria mardulagoa eta sarriagoa izango da. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2014-12-01

HAMARREKOA

Tania de Sousa Zestoarra 18 urte zeuzkanetik dabil musikan; orain, 27 urterekin eta, besteak beste, 'Zuloak' eta halako proiektuen ostean, 'Tania Tank' atera du, bakarkako lehen lana | TXOMIN MADINA

"Musika ez da ezer estetika bat gabe; irudia, artea ere bada"

1. Supermerkatu baten lan egitetik, musikatik bizi izatera... Ez da aldaketa makala!

Nahiko nuke musikatik bizi izan! Orain, horretan zentratuta nago; hasierak zailak dira, eta pixkanaka joango naiz. Lehenengo diskoa apustu bat da; asmoa da urtebeteko bira egitea.

2. Zer erakutsi dizu taldean ari zetik bakarleri moduan ibiltzera pasatzeak?

Erantzukizuna handiagoa da, baina gusturago nabil: nire kantak dira, eta egiten dudanaren kontrol osoa daukat. Nire bidea hartu dut; bide zuzena, uste dut.

3. Tania Tank duzu lehen lana bakarleri moduan. Gustura emaitzarekin?


Denbora eta baliabide gehiagorekin hobe daiteke, baina, lehen diskoa izateko, gustura nago. Akaso, produkzioan zerbait aldatuko nuke, kantaren bat ere bai; uste dut hori artista guztioi gertatzen zaigula.

4. Diskoko hamabi kantuetatik hamaika zureak dira. Zeinek definitzen zaitu ondoen?

Ez dakit... Uste dut denek nitaz hitz egiten dutela; literalak izan barik, nahiko autobiografikoak dira: egoera pertsonalak, beldurra, amodio eta desamodioak...

5. Zer dakarkio euskal musikari Tania de Sousak?

Ez dugu ezer asmatu, baina uste dut zerbait freskoa egiten gabiltzala. Askotariko estiloak lantzen ditugu, beste bide batetik goaz.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Gauzak azkarrago joatea eragingo nuke, bat-batean gure kontzertuetan ehunka pertsona egotea"

ARGAZKIA: O. ASO
EDIZIOA: M. ANTERO

6. Hilabete gutxi da diskoa kalean dela, eta dagoeneko AEBetan bira egin duzu.

Sekulako bidaia izan zen, ahaztezina. Leku txikitik jo arren, esperientzia polita izan zen. Bira bat horrela hastea sekulakoa da, gehiago ez dugu halakorik egingo!

7. Zein garrantzi ematen diozu irudiari?

Tamainan, baina egun daukan garrantzia. Dena bisualki sartzen zaigu: bideoak, argazkiak... Irudia ez da obsesio bat, baina beti gusatu izan zait gauzei estetika bilatzea. Musika ez da ezer estetika bat gabe; irudia, artea da ere bada.

8. Alde handia dago agertoki gainera Taniaren eta egunerokoaren artean?

Agertokian espresatzen dudana sentitzen dudana da. Esaten didate agertokian energia eta indar handia erakusten dudala, gero xumeagoa naizela. Baliteke, baina naturaltasunez ateratzen zait.

9. Zuloak proiektuak egin zintuen ezagun. Nola gogoratzen duzu?

Ezagutarazteaz gain, dakidan %80 irakatsi zidan. Nire bizitzan puntu eta aparte bat izan zen, zerbait ahaztezina. Aukeragatik eskertuta nago eta nostalgiarekin gogoratzen dut, baina ez penaz.

10. Fermin Muguruza barik, zauden lekuan egongo zinateke?

Inondik inora ere ez. Jendeak ez lidake hainbeste laguntza emango, hainbesteko zabalkundea egingo.

BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



Euskararik gabe, Nafarroa!

Gaur, urteko azken hilabeteko lehen eguna den honetan, aste interesgarri bati hasera ematen ari gara. Euskararen aldeko aste berezi bati. Kanpainako leloak, euskarak 365 egun behar dituela aldarrikatzen du eta hala ez den artean, nekaezin jarraitu beharko dugu "euskaltzaleon auzotik euskararen herrira" transitatzen.

Motiborik badugu euskaltzaleok, Ziburuko Kaskarotenia ikastolaren aurkako erasoa edo Nafarroan euskara jasaten ari den zapalkuntza egoera ezagututa, baina bai eta ere euskarazko irrati bat sintonizatzea zenbat kostatzen zaigun kontutan hartuta edo lehen hitza euskaraz egitea zaila egiten dela konprobatu ondoren.

Ez du gure hizkuntzak beharrezko zukeen aitortza eta horregatik ere merezi du euskararen eguna ospatzeak; errendikazioa bezainbat ospea ere behar duelako; datorren asteazkena da hartarako bereziki hautaturiko eguna. Ez hutsik egin! Izan ere, zein arraroa den, euskararik gabe Nafarroa; bai asteazken honetan bai eta beste 364 egunetan ere.

Eta ospakizunetan hasiz gero, badugu geure hizkuntzari bultzada emateko bigarren aukera ere: 5etik 8ra bitartean, Durangoko Azoka ospatuko da. Animatu! Eta kukutxo bat egin. Lau egunez daukazue aukera.

SEAT LEON ST

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70